



Joera
sozialak
eta
gizarteratzea

Sartu.

Joera
sozialak eta
gizarteratzea

 **Sartu** • **Federazioa**

Finantzatzaileak:

Servicio Público de Empleo Estatal.
Ministerio de Trabajo e Inmigración.



Fondo Social Europeo.
Unión Europea



Unión Europea

Fondo Social Europeo



© Sartu Federazioa, 2010



Diseinua eta maketa: Concetta Probanza

Legezko Gordailua: SS - 838/2010

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Araba k. 45. 20800 Zarautz

Aurkibidea

Sartu Federazioa	7
0. Sarrera	9
1. Delphi metodoa	11
1.1. Alderdi teorikoak	11
1.2. Gure azterlana: joera sozialak eta gizarteratzea	15
2. Pobrezia, bazterketa eta gizarteratzea eta ahulezia	21
2.1. Pobrezia-kontzeptua	21
2.2. Bazterketaren elementu komunak	26
2.3. Bazterketa- eta gizarteratze-faktoreak eta gizarteko berdintasunik ezaren zeharkako ardatzak	27
2.4. Ahulezia-kontzeptua	31
3. Egungo egoera lan-, ekonomia- eta finantza-arloan	35
3.1. Bazterketa-faktoreak areagotzea edo berriak agertzea	35
3.2. Gizarteko maila jakin batzuen ezegonkortasuna	38
3.3. Egonkorren ezegonkortzea	42
Azterlanean parte hartu duten pertsonen ekarpenak	46
4. Bazterketa finantzarioa	53
4.1. Finantza-arloan baztertuta gelditzeko hainbat modu	53
4.2. Bazterketa finantzarioaren ondorioak	55
4.3. Espainia	57
Azterlanean parte hartu duten pertsonen ekarpenak	60

5. Gizarte-politikak EAEn	61
5.1. Ongizate-estatua	61
5.2. EAEko gizarte-politikaren bilakabideko hainbat une	64
5.3. Gizarteratze aktiboa	78
5.4. Grafiko kronologikoa: gizarte-politikak EAEn	82
Azterlanean parte hartu duten pertsonen ekarpenak	84
6. Gizartean esku hartzeko hirugarren sektorea	91
6.1. Terminoak mugatuz: hirugarren sektorea eta gizartearen esku-hartzea	91
6.2. Gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreari buruzko EAEko hainbat datu	97
6.3. Gizartean esku hartzeko hirugarren sektorearen EAEko indarguneak eta ahuleziak	100
Azterlanean parte hartu duten pertsonen ekarpenak	103
7. Gizarteratzea Sartu-ren ikuspegitik	109
8. Bibliografia	125
8.1. Aipatutako bibliografia	125
8.2. Beste titulu interesgarri batzuk	130
Eranskina: Galdetegia	133



Sartu Federazioa

Sartu Federazioa jaio zen pertsona eta ingurune gizarteratzaileak sustatzeko, modu aktiboan esku hartuz bazterketa eragiten duten egoeretan. Hogeitau urte baino gehiago daramagu lanean eta, helburu hori lortzeko, pertsonak eta taldeak laguntzen ditugu, hezkuntza- eta prestakuntza-proiektuak egiten ditugu, gizarteratzeko enpresak sortzen ditugu eta gure helburua lortzen laguntzen diguten sareetan eta ekimenetan parte hartzen dugu.

Urte hauetan guztietan, aldaketak izan dira gizartean, ekonomian, politikan, kulturen, lan-munduan... eta zerbitzuek, jardunbideek, ikuspegiek, pertsonak planteatzen dituzten beharrek... haietara egokitu behar izan dute.

Erronka berriei hobeto erantzuteko, Gizarte Aholkularitzako Saila jaio da Sartu Federazioaren barnean, lan-ildo berriak jorratzearen, hala nola ikerketa soziala, berrikuntza, erakundeentzako aholkularitza... Azken urteotan, halako hainbat proiektutan parte hartu dugu, eta, besteak beste, nabarmentzekoak dira gizartearen esku-hartzearen alorreko profesionalentzako prestakuntza-ikastaroak, gogoeta estrategikoa egiten ari ziren erakundeak laguntzea, planak, gizartean esku hartzeko proiektuak diseinatzea eta abian jartzea, esperientziak sistematizatzea, ikerketa soziala... Era berean, ikerketa sozialaren barnean, nabarmentzekoa da dokumentu hau.

Iraganean egin dugun, orain egiten ari garen eta, zergatik ez, etorkizunean egingo dugun bidean ezer azpimarratzekotan, erronka berriei heltzeko gogoia azpimarratuko dugu. Begien bistakoa da hori ikerketa sozialaren esparruan. Alor horretan egindako azken proiektuetako batean (bazterketa- eta gizarteratze-prozesuen behatokia) ikasitakoari erreparatzen badiogu eta ikaskuntza hori lan honekin lotzen badugu, ikusiko dugu ikerlan interesatua dela hau, ordukoa bezalaxe. Izan ere, bazterketa eta gizarteratzea ikertzeko interesa dugu, gizartean egoera okerragoan dauden pertsonak interesatzen zaizkigulako. Gure helburua da haien bizitzak hobetzearekin zerikusia duen oro, eta, horrez gain, badugu beste helburu bat. Litekeena da urrunagoa izatea, baina horrek ez du esan nahi garrantzi txikiagoa duenik: gizarte-arloan lan egiten dugun erakundeok



ikertzeko metodologia berriez jabetzea eta ikertzeko metodologia berriekin esperimentatzea, jakintza sortzeko eta elkarri helarazteko.

Behatokian, prozesu metodologiko berritzaile bat jarri genuen martxan: luzetarako azterlan bat egitea, lan-taldearen teknikaren bidez, lau urtez. Oraingoan, berriz, Delphi metodoa aukeratu dugu. Metodologia horrek behartzen ditu parte-hartzaileak, izena eman gabe, hainbat hipotesiri buruzko jarrera hartzera, gainerako taldekideekiko feedback-prozesuan. Parte-hartzaileek uneoro dakite zer egoeratan dauden taldekideen aldean, eta iritziz alda dezakete edo hura osa dezakete.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Sartu Federazioko Gizarte Aholkularitzako Saileko lan-taldea lagundu duten pertsona guztiei. Jakinik zer egoerari, arazori eta ñabardurari dagozkien pobrezia, bazterketa, ahulezia eta beste termino batzuk, gertatzen ari denari buruzko beren iritzia eman dute eta ausartu dira zehaztera zer gertatuko den edo zer gerta daitekeen beren ustez. Ez dituzte pronostikoak egin, "bereziki" zaila den gizarte-ko testuinguru batean joerak definitzeko ahalegina baizik.

Hauk dira azterlanean parte hartu duten pertsonak:

Amparo Maiztegui (Arabako Foru Aldundia), Elena Lukin (Sargi), Esther Raya Díez (Errioxako Unibertsitatea), Eva de Miguel (Enplegua Sustatzeko Elkartea – Prestakuntza Funtsa), Iñigo Estomba (Donostiako Udala), María José Larrea Jauregi (Donostiako Udala), Jaione Mondragón Ruiz de Lezana (Euskal Herriko Unibertsitatea), Jon Iribar Goenaga (Gipuzkoako Foru Aldundia), Jon Leonardo Aurtenetxe (Deustuko Unibertsitatea), José María Chaves (Bizkaiko Foru Aldundia), José Rica Bilbao (Getxoko Udala), Miguel Ángel Ruiz (Arabako Hiesaren kontrako Batzordea), Mikel de la Fuente (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pablo Ruiz (Bizitegi), Rafa López-Arostegi (Ede Fundazioa).

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu EAPN-Euskadi, pobrezia-aren eta bazterketaren aurkako Euskadiko europar sareari, sareko kide diren hirugarren sektoreko erakunde guztiei helarazi baitzien martxan jartzen ari ginen azterlanean parte hartzeko gonbita.

Azkenik, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa aipatu nahi dugu, haren finantzazioari esker izan baita posible proiektu hau.

Durangon, 2009ko ekainean
SARTU FEDERAZIOA



[0]

Sarrera

Kontuan izan behar dugu behin-behinekoak eta probakoak direla egoera jakin batean gizartearen joerei buruz egiten ditugun aurreikuspenak, besteak beste, oso eraldaketa-prozesu sakonen barnean dauden egoerei buruzkoak direlako eta oraindik ere balantzea egiteko eta ondorioak ateratzeko behar adina urrutiko ikuspegia ez duten gizarteko subjektuek bizi dituztelako (Tezanos, J.F., 2001:355).

Behin-behinekotasun eta probakotasun horren esparruan kokatu dugu gizarteratzeari buruzko gure azterlana, jakinik eraldaketa-prozesu oso sakon batean gaudela eta azalduko ditugun iritziak eman dituztela gizarteko egungo gertaeren korrontean bete-betean murgilduta dauden pertsonak, "gizarteko subjektuek".

Zortzi kapitulutan egituratu dugu azterlana eta, kapitulu batzuetan, lantzen ditugun gaien alderdi teorikoak azaldu ditugu lehenik, eta azterlanean parte hartu duten pertsonen ekarpenak eta gogoetak ondoren.

Lehenengo kapituluan, Delphi metodoa azalduko dugu, azterlanean parte hartu duen lan-taldeko kideen izenak emango ditugu eta argituko dugu zer prozesu metodologiko eraman dugun aurrera. Bigarren kapituluan, berriz, pobrezia, bazterketari eta gizarteratzeari eta ahuleziari buruzko hainbat gai teoriko aztertuko ditugu.

Hirugarren kapituluan, lan-, ekonomia- eta finantza-arloko egungo egoera azalduko dugu, hainbat azterlanen eta inkestaren bidez bildutako datu estatistikoaren bitartez, eta ahuleziaren hainbat alderditan jarriko dugu arreta, hala nola bazterketa-faktoreen area-gotzean edo bazterketa-faktore berrien sorreran, gizarteko hainbat mailaren ezegonkortasunean eta egonkorren ezegonkortzean.

Laugarren kapitulua finantza-arloko bazterketari buruzkoa da oro har, hau da, Europar Batasuneko eta munduko beste leku batzuetako herritar askok finantza-zerbitzuak eskuratu ezinari buruzkoa.

Bosgarren kapituluan, ongizate-estatuari eta EAEko gizarte-politiken bilakaerari buruz arituko gara, hasi pobreziaren aurka borrokatzeko lehenengo planetik eta gizarte-zerbitzuei buruzko lege berrira eta Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Legera arte. Haien helburuak, antolaketa, finantzazioa, erabiltzaileak... analizatuko ditugu.

Bosgarren kapituluan, halaber, Europako Batzordearen proposamenaren berri emango dugu. Hain zuzen ere, Europako Batzordeak proposatu du gizarteratze aktiboa hartzeko lau euskarritan (enplegu-politika aktiboetan, interes orokorreko gizarte-zerbitzuetan, gutxieneko diru-sarreraren egokitasunean eta erabiltzaileen partaidetzan) oinarritutako gizarteratze-estrategiatzat.

Seigarren kapituluan, gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreaz jardungo dugu. Zehazki, hirugarren sektoreari eta gizartean esku hartzeari buruz hausnartuko dugu, EAEn buruzko hainbat datu emango ditugu eta sektoreak EAEn dituen indarguneak eta ahuleziak azalduko ditugu.

Zazpigarren kapituluan, "Gizarteratzea Sartu-ren ikuspuntutik" izenekoan, hemen aurkeztu dugun azterketa eta gogoeta-prozesuak zer iradoki digun jaso dugu.

Zortzigarren eta azken kapituluan, bibliografia emango dugu, bi multzotan banatuta: batetik, berariaz aipatu dugun bibliografia emango dugu, eta, bestetik, kontsultarako eta lan hau egiteko erabili duguna. Biak ala biak kapituluka sailkatuko ditugu.

Azkenik, eranskinean, ikerlanean erabilitako galdetegia emango dugu.

Delphi metodoa

1.1. Alderdi teorikoak

Betidanik, etorkizuna nolakoa izango den jakiten saiatu gara. Gaur, etorkizuna aztertzen ahalegintzen ari gara. Zientziaren eta teknologiaren aurrerapenari esker, gero eta kontrol handiagoa dugu ingurunearen gainean eta, horri esker, egokitu egin gaitezke edo dauzkagun aukerak alda ditzakegu eta, hartara, kontrol handiagoa (ez erabatekoa) izan dezakegu etorkizunaren gainean.

Delphi teknika –antzinako Greziatik sortua da izena¹– funtsezko tresna bihurtu da, besteak beste, proiektio teknologikoen esparruan, gero eta behar handiagoa baitugu informazio subjektiboa erabiltzeko zuzenean gizartearen arazo konplexuen (hala nola ingurunearen, osasunaren, garraioaren, komunikazioaren, ekonomiaren, soziologiaren eta hezkuntzaren) inguruko ereduaren ebaluazioan.

Adituen prospektiben metodo orokorren (Delphi metodoaren) oinarria da **landu nahi dugun gaian ustez oso adituak diren pertsonen kontsulta egitea**. Beren iritzia ematen dute adituek eta, ondoren, txosten bat idazten dute, esateko zer aukera izango ditugun beren ustez etorkizuneari².

(1) Delphos hirian egon zen santutegi panhelenikorik ospetsuena. Apoloren orakulua zen haren muina eta, kondairaren arabera, Zeusen borondatea adierazten zuen orakuluak, emakume apaiz baten (pitonisaren) bitartez; ondoren, emakumearen hitzak interpretatzen zituzten apaizek, anbiguoak baitziren.

(2) GTIC Grupo de Tecnologías de la Información y las Comunicaciones:
www.gtic.ssr.upm.es.

Abantaila hauek dituzte metodook:

- Informazio erabilgarria **kontrastatuago** dago betiere, parte-hartzaileen ikuspegi guztiak biltzen dituelako: “La calidad del juicio subjetivo grupal es generalmente superior al individual por una serie de razones derivadas de la mayor cantidad de información de la que dispone el grupo y a los efectos psicológicos positivos que se dan en su seno” (Landeta, J., 1999:40).
- Taldeak **faktore gehiago** hartzen ditu kontuan pertsona bakarrak kontuan har ditzakeenak baino.

Honela definitzen dugu Delphi metodoa:

- **Prospektiba-metodo orokorra** da Delphi metodoa, eta haren oinarria da adituei kontsulta egitea. Ezaugarri jakin batzuk ditu metodoak.
- Hain zuzen ere, Delphi metodoa da, **hainbat galdetegiren bitartez, hainbat adituri kontsulta egitea**, haien iritziak biltzeko. **Etorkizuneko joeren inguruko ikuspegiak** bateratzeko erabiltzen dugu.
- **Adituek** ez dute elkarren ondoan lan egiten. Aitzitik, **idatzizko iritzia ematen dute, askatasun osoz**, eta beste parte-hartzaileek ez dakite zer iritzi duten. Helburua da, anonimotasun-giroan, hainbat espezialistaren informazioa bilteza, adierazpen-askatasunari bide ematen baitio horrek.
- Gainera, metodoa aurrera eramateko modua bera dela-eta, **parte-hartzaileak iritzi aldaketa daitezke prozesuan** ematen dizkieten datuen arabera, eta aldaketa hori ez da banaka islatzen kanpoan.

Oinarrizko hiru ezaugarri ditu metodo honek³:

- **Anonimotasuna.** Delphi metodoan parte hartzen duen bitartean, aditu batek ere ez daki nor diren eztabaida-taldea osatzen duten beste adituak. Hainbat abantaila ditu horrek:

1. Taldekideen izen onak ezin du izan eraginik beste taldekideengan, ezta gehiengoari aurre egiteko zamak ere.

(3) GTIC Grupo de Tecnologías de la Información y las Comunicaciones:
www.gtic.ssr.upm.es.

2. Taldekideak iritziz alda daitezke eta horrek ez dakar irudi ona galtzea.
3. Adituek lasai egin dezakete beren argudioen alde, jakinik, okerrak badira, beste adituek ez dutela jakingo huts egin dutela.

- **Iterazioa eta feedback (berrelikadura) kontrolatua.** Iterazioa lortzen dugu galdetegi bera hainbat aldiz emanez adituei. Gainera, aurreko galdetegien emaitzak ere ematen ditugu, eta, hartara, beste taldekideen ikuspuntuen berri dute adituek eta, uste badute besteen argudioak bereak baino egokiagoak direla, iritziz alda daitezke.

Feedback kontrolatuaren bitartez eta talde-prozesuko parte-hartzaileen anonimotasuna ziurtatuz, aurrez aurreko eztabaida-taldeetan nahi gabe sortzen diren eragin psikologiko asko saihestu ditzakegu, abantaila nagusiei uko egin beharrik gabe.

- **Taldearen erantzun estatistikoa.** Adituei ez diegu gehiengoaren ikuspuntua bakarrik ematen. Gainera, adituek iritzien inguruan izan duten adostasun-maila ere adierazten dugu.

Hartara, bi lorpen garrantzitsu erdiesten ditugu erantzun estatistikoaren bitartez:

- Ziurtasuna dugu taldekide guztien ekarpen edo iritzia agertzen direla taldearen erantzunean.
- Ados egoteko presioa txikiagotzen du.

Delphi metodoaren terminologia espezifikoak:

1. Delphi metodoa da lan-talde bati **galdetegi** bat bidaltzea.

Galdetegia ez da hipotesien zerrenda huts bat, adituak elkarrekintzan aritzeko dokumentua baizik. Izan ere, aurreko ibilien emaitzak dakartza.

2. **Ibiliala edo txanda-kopurua** da lan-taldeari bata bestearen ondoren ematen diogun galdetegi bakoitza.

Galdetegiak egiteko txanden kopurua ezberdina da, gaiaren arabera. Bigarren txandan, besteen erantzunekin konpara ditzakete adituek aurreko erantzunak.

Informazio guztia izanik, beren iritzia euts diezaiokeete adituek, edo iritziz aldatu. Txanda honetan ere askatasun osoa dute iritzia emateko, eta, batez besteko iritziarekin bat ez badatoz, beren usteen zergatia azaltzeko.

3. **Lan-taldea** da Delphi metodoan parte hartzen duten adituen multzoa.

Delphi metodoan parte hartzen dutenak aukeratzea ere garrantzi bereziko faktorea da, eta oinarrizkoa da lantzen dugun gaian adituak izan daitezen parte-hartzaileak.

4. **Koordinazio-taldea** da galdetegiak prestatzeko, lan-taldearen erantzunak biltzeko eta ondorioak idazteko arduraduna.

5. **Delphi prozesuaren ondorioek** ez dute zertan bakarra edo berdina izan, erantzunen batez besteko balioa adierazten baitute, eta, aldi berean, batez bestekoaren alde batera edo bestera lerratzen diren iritzia.

Haxe da Delphi metodoaren balio handietako bat: ez du iritzi orokorra bakarrik adierazten, harekin zerikusirik ez duten iritzia eta haiei eusteko arrazoiak ere baizik.

Izan ere,

“El Delphi puede ser caracterizado como un método para estructurar el proceso de comunicación grupal, de modo que ésta sea efectiva para permitir a un grupo de individuos, como un todo, tratar con problemas complejos” (Linstone eta Turoff autoren definizioa) (aipua: Konow, I. eta Pérez, G., 1990).

Nahiko esparru metodologiko malgua⁴ eratzen du Delphi metodoak, eta autonomia nabarmenez jardun daitezke ikertzaileak. Metodoaren berezko ezaugarriak (nagusiki, anonimotasuna eta feedback kontrolatua) erreferentetzat hartuz, hainbat gai aztertzeke erabil dezakegu teknika hau, ohiko dinamika ego-kituz kasuan-kasuan lortu nahi ditugun helburuen arabera.

(4) GTIC Grupo de Tecnologías de la Información y las Comunicaciones:
www.gtic.ssr.upm.es.

Delphi metodoa erabiltzen hasi aurretik, hainbat egiteko ditugu:

- Metodologia honen bidez egokiro jorra dezakegun **arazo** edo egoera bat **definitzea**.
- **Testuingurua** eta aztergaiari buruzko aurreikuspenaren denborazko epea **mugatzea**.
- **Lan-taldea aukeratzea** eta laguntzeko konpromisoa har dezaten lortzea.
- Adituei **azaltzea zertan datzan metodoa**. Horren helburua da aurreikuspen fidagarriak lortzea, hartara, adituek uneoro baitakite zein den metodologiak ezartzen duen prozesu bakoitzaren helburua.

Lan-talde egokiak parte hartzen duela ziurtatu ondoren, aztergaia Delphi metodoaren bidez lantzeko moduko galdera bihurtu behar du koordinazio-taldeak, eta galderak adituei bidali, posta elektronikoko bidez.

Ikertzaileak ez dira adosten Delphi metodoa osatu beharko luketen faseen kopuruan, eta, aztergaiaren arabera eta azterketan parte hartzen duen aditu-kopuruaren arabera, biz, hiru edo lau fasek era dezakete prozesua.

1.2. Gure azterlana

Hauek dira helburuak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko **gizarteratzearen egoeraren erradiografia** egitea. Zein da benetako egoera orain eta hemen, EAEn?
- **Gizarteratzearen joerak** identifikatzea. Adituen iritzia bilduz, jakin nahi dugu zer bide egingo dugun, haien ustez gutxienez, datozen urteotan.
- Zer **erronkari** egin beharko diegu aurre lehenik Euskal Autonomia Erkidegoan gizarteratzea lortzeko lanean gabiltzan eragile guztiok datozen urteotan?

Azterlanean parte hartzen duten pertsonak aukeratzeko, Delphi metodologiaren berezko argibide orokorre jarraiki gatzazkie eta, hartara, Euskal Autonomia Erkidegoan esku hartzeko hirugarren sektorean lan egiten duten eragile guztien laguntza lortu nahi izan dugu.

Bai eragile publikoak, profesionalak eta unibertsitateetako ikertzaileak, bai irabazi-asmorik gabeko erakundeak; Ibilbide luzea egin izanari eta esperientzia handia izateari esker, azterlan honetarako iritzia eman dezaketen pertsonak.

Parte hartu duten profesionalak:

Administrazio publikoa	Esparru geografikoa	Profesionalak
Foru-aldundiak	Bizkaia	José María Chaves Rivera (Prestazioen eta Laguntzen Ataleko burua)
	Araba	Amparo Maiztegui Alday (Gizarte Politikako eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria)
	Gipuzkoa	Jon Iribar Goenaga (Gizarte Politikarako Saileko Plangintza Ataleko burua)
Udalak	Bizkaia	José Rica Bilbao (Getxoko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomikoaren Zentroko enplegu- eta gizarteratze-teknikaria)
	Gipuzkoa	Iñigo Estomba Garin (Donostiako Udaleko Gizarteratze Zerbitzuko burua) María José Larrea Jauregi (Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Saileko Gizarte Ekintzako zerbitzuburua)
Unibertsitateak	Esparru geografikoa	Profesionalak
Euskal Herriko Unibertsitatea	Bizkaia	Jaione Mondragón Ruiz de Lezana (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazio Zientzia Saila)
		Mikel de la Fuente Lavin (Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Enpresa Zuzenbidearen Saila)
Deustuko Unibertsitatea	Bizkaia	Jon Leonardo Aурtenetxe (Deustu Fundazioko Ikerkuntza Sozialeko zuzendaria)
Errioxako Unibertsitatea	Errioxako Autonomia Erkidegoa	Esther Raya Díez (Giza eta Gizarte Zientzien Saila)

Hirugarren sektorea	Esparru geografikoa	Profesionalak
EAPN Euskadi	Bizkaia	Eva de Miguel (Enplegua Sustatzeko Elkartea – Prestakuntza Funtza) (proiektuen teknikari eta kudeatzailea eta laneko orientatzailea)
		Rafa López-Arostegi (Ede Fundazioa) (aholkularia)
		Pablo Ruiz Errea (Bizitegi Elkartea) (esku hartzeko koordinatzailea)
Sargi	Gipuzkoa	Elena Lukin (Sargiko koordinatzailea)
Hiesaren kontrako Batzordea	Araba	Miguel Ángel Ruiz (Arabako Hiesaren kontrako Batzordeko lehendakaria)

Hainbat liburu, artikulu eta lege eta askotariko dokumentuak (herritarren plataformen idazkiak eta manifestuak, laburpenak eta hainbat gizarte-sareren ekarpenak, alegia, bigarren mailako iturriak) aztertu, irakurri eta landu eta haiei buruz hausnartu ondoren, **galdetegia prestatu dugu**⁵.

Lantzeko 34 hipotesik eratzen dute, eta EAEko gizarteratzearen inguruko hainbat gai eta esparru adierazten ditu. Hiru multzotan sailkatu ditugu hipotesiak:

- Batetik, **gizartearen joerak**. Hau da, gai orokorrak: gizarteratzea lortzeko elementuak, estrategiak eta jarduerak; lan-merkatuaren ezaugarriak gaur egun; langabezia-tasa handiek harremanen esparruan izan ditzaketen ondorioak; bazterketa finantzarioa...
- Bestetik, **administrazio publikoa**, hala nola gizarte-politiken helburu orokorrak, gizarte-politikek gaur egun EAEn duten eragina, gizarte-zerbitzuen kudeaketa, erabiltzaileen parte-hartzea gizarte-zerbitzuetan, baterako ordainketa, gizarteratze aktiboa...
- Azkenik, **gizartean esku hartzeko hirugarren sektorea**, hala nola hirugarren sektorearen eginkizunak, hirugarren sektorearen kudeaketa eta jarduna,

(5) Eranskinean dator galdetegia.

gizartean esku hartzeko taldeak, administrazioaren eta erakundeen arteko harremanak, gizarte-sareak...


Helburu bera dute hipotesi guztiek: adituen zerbitzurako lan-tresnak izatea, adituek adierazteko zenbateraino dauden ados edo ez dauden ados haiekin eta errazagoa izan dakien iruzkinak egitea eta iritzia ematea.

Ziurgabetasun finantzario orokorreko egoera batean murgilduta gauden honetan, litekeena da are zailagoa izatea joerez, erronkez eta lan-ildo posibleez hitz egitea, baina, ez dugu gogoia galdu nahi, ezta gutxiago ere. Aitzitik, etorkizuna eta ziurgabetasuna ikertzen jarraitu nahi dugu.

Galdetegia bi aldiz helarazi diegu parte-hartzaileei:

Maiatzean lehenengoz eta ekainean bigarrenez.

Grafikoki, honela adieraz dezakegu Delphi metodoa erabiliz egin dugun prozesua:



Pobrezia, bazterketa eta gizarteratzea eta ahulezia

2.1. Pobrezia-kontzeptua

Orain arte, jo izan dugu korrelazioa dagoela gizarte industrialaren eta pobrezia-kontzeptuaren artean eta, oro har, pobreziaz mintzatu garenean, diru-sarrera eskasekin lotu izan dugu eta pertsonen edo familien errentaren bidez neurtu dugu. Hain zuzen ere, jakin nahi izan dugu zein zen biztanleriaren pobrezia-atala-sea, alegia, zer errenta-maila zen inor pobrezian dagoela esateko gutxienekoa.

Ondoren, pobrezia neurtzeko beste modu bat prestatu dugu, haren alderdi guztiak ezagutzeko, eta, hartara, diru-sarrerak ez ezik, pobrezia-indize batzuek gastua, kontsumoa, etab. ere hartzen dute kontuan.

lido horretan, pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta egin dute 1996tik aurrera, Euskal Estatistika Planaren esparruan, eta hiru kontzepturen bitartez definitu dute pobrezia (Eusko Jaurlaritzak, 2008:15 eta 43).

Batetik, **mantentzeko pobrezia** da behar arruntei, hau da, epe motzean erantzun beharreko beharrei (bai gastu arruntei, bai denboran banatutako aplikazio doituko inbertsio-gastuei, hala nola etxebizitza bat erosteagatiko interesak eta amortizazioa ordaintzeari) erantzuteko behar adinako diru-sarrerak edo errenta ez izatearekin zerikusia duen pobrezia-mota bat.

Zehatz-mehatz, eguneroko bizitzan, mantentzeko pobrezian egoteak esan nahi du nork ez dituela baliabide ekonomiko nahikoak epe motzean oinarrizko beharrei (bereziki, elikatzeko, etxebizitza bat izateko, janzteko eta oinetakoak izateko beharrei) erantzuteko.

Bestetik, **metatzeko pobrezia** lotzen dugu biztanleria gai ez izatearekin epe ertainean eta luzean bizi-maila egokia mantentzeko beharrezko kontsumo-ondasun iraunkorrak eskuratzeko, egoera onean eta behar bezala hornituta dauden etxebizitza bat, bizitzeko gutxieneko egokitasun-arauak betetzen dituen izatearen aldetik.

Oro har, metatzeko pobrezia adierazten du noren bizi-baldintzak gure gizartean onargarriak diren gutxienekoen azpitik daudela argi eta garbi, epe luzean gizartean estatus jakin bat izango dugula adierazten duten oinarritzko aldagaien (hala nola etxebizitzaren) aldetik.

Hori dela eta, pobrezia mota hau egiturazkoagoa da mantentzeko pobrezia (funtsean, egoeraren araberakoa) baino.

Azkenik, **ezkutuko pobrezia** dagokio, norik beregaintasuna lortzeko prozesuak oztopatzearen ondorioz, beregaintasuna lortuz gero izango lukeen pobrezia ezkutuan geratzeari; hain zuzen ere, horixe da prozesua oztopatzearen helburua: pertsonak ez bizitzea pobrezia-egoerak edo ongizaterik ez izatekoak (Eustat).

Alde horretatik, pobrezia- eta eskastasun-arazo batzuek lotura dute, baliabide ekonomiko eskasak dituztela-eta, zenbait pertsonak, multzok edo taldek zailtasunak izatearekin bizitza beregaina eskuratzeko.

Bestalde, gaur egun, halako joera orokortu da, *pobrezia* terminoa ez erabiltzeko edo, bestela, beste termino batzuk erabiltzeko haren orde, hala nola *bazterketa* eta *marjinazioa*.

Hartara, baliabide materialik ez izate hutsaz haragoko alderdiak hartzen ditu kontuan Europako Batzordeak berak onartu duen definizioak (Moreno, L., 2000)⁶. 1975ean ere, Pobreziaren aurkako Lehen Programa prestatu zuenean, Batzordeak hartu zituen pobretzat hain baliabide eskasak zituzten herritarrak (bana-koak edo etxe berean bizi zen familiako kideak), bizileku zituzten herrialdeetan bizikidetzeta-maila onargarrietatik kanpo zeudenak.

(6) "Algunas interpretaciones apuntan a que la Comisión favoreció el uso de una expresión distinta a la de pobreza ante la incomodidad de los estados miembros por asumir la persistencia, y en algunos casos el aumento, del número de pobres en sus países. En un principio, el uso de la denominación de 'exclusión' poseía un carácter menos 'incorrecto' políticamente" (Laparra, M., 1999) (aipua: Moreno, L.: *Ciudadanos precarios. La "última red" de protección social*, 2000).

Pobreziaren aurkako Bigarren Programak, berriz, esplizituki aipatu zuen bazterketa, 1988an, baita Gutun Sozialak ere, 1989an. Ondoren, bazterketaren inguruko terminoak eta kontzeptuak erabiltzea orokortu egin zen Europako Batzordearen dokumentuetan, hala nola Europako gizarte-politikari buruzko liburu berdean, 1993an, eta, 1994an, *Europako gizarte-politika: aurrerapauso bat Batasunarentzat* liburu zurian.

Hala ere, ez dugu uste pobrezia kontzeptua bera alde batera utzi nahi dutenik egun, baizik eta haren mugak zabaldu (Subirats, J. (zuz.) eta beste zenbait, 2004:11).

Gaur, pobreziaz aritzea da egoeren mosaiko konplexu batera hurbiltzea. Egoerok, berdintasunik eza ekonomikoaren ingurukoak ez ezik, badira laneko eze-gonkortasunaren, prestakuntza-gabezien, etxebizitza duin bat izateko zailtasunen, osasun-baldintza kaskarren eta gizarteko eta familiarterako sare-eskariaren ingurukoak ere. Azken batean, alde askoko fenomeno da pobrezia.

lido berean, zera dio Kopenhageko Adierazpenak: “Las situaciones de **pobreza absoluta** se caracterizan por una grave privación de elementos de importancia vital para los seres humanos: comida, agua potable, instalaciones de saneamiento, atención de salud, vivienda, enseñanza e información” (**erabateko pobrezia-egoeren** ezaugarria da gizakiarentzat berebiziko garrantzia duten elementuen gabezia larria: janarena, edateko urarena, saneamendu-instalazioena, osasun-laguntzarena, etxebizitzarena, irakaskuntzarena eta informazioarena” (Nazio Batuak, 1995:45).

Izan ere, pobrezia ez da dagozkien pertsonen errentaren ingurukoa bakarrik, oinarrizko bizi-beharrei erantzuteko gizarte-zerbitzuak erabili ahal izatearen ingurukoa ere baizik.

Ikuspegi ekonomikotik bakarrik aztertzen badugu pobrezia, ezinezkoa da kontzeptu hori bazterketa-kontzeptuarekin parekatzea. Haatik, pobreziaren analisi soziologikoagoa egiten badugu, 1990eko hamarkadaz geroztik egin izan dugun bezala, alde anitzeko prozesutzat hartzen dugu pobrezia, elementu psikosozialak, kulturalak eta are politikoak hartzen dituen barnean, eta, analisi horren bidez, gizartearen garapena ezin dugu neurtu hazkunde ekonomikoaren edo diru-sarreraren ikuspegitik soilik; aitzitik, gizarte-baliabideen banaketak ere du garrantzia. Hartara, kontzeptu osagarriak dira *bazterketa* eta *pobrezia*, baina ez berdinak.

Europako Batzordea 1980ko hamarkadatik aurrera hasi zen **bazterketa** terminoa erabiltzen pobrezia terminoaren ordez. Aldaketa hori jazotzeko, halako adostasuna izan zen estatu kideen artean pobrezia terminoaren berezko ikuspegi ekonomizistegia gainditu beharrari buruz.

Halaber, beharrezko iritzi zioten fenomenoaren dinamikotasuna, aldeaniztuntasuna eta heterogeneotasuna kontuan hartzeari, baita bazterketa prozesutzat hartzeari ere.

Gabriel Carmona Orantesen esanetan (2005), “la exclusión social es la situación carencial generalizada y de aislamiento social, que sufren los individuos o grupos sociales, resultante de procesos en los que actúan factores de carácter económico, social, político y cultural que, a su vez, interactúan entre sí reforzándose mutuamente”. Familiaren desegituraketa, gizartean bakartuta egotea, kultura- eta eskola-maila txikia izatea eta herritar gisa bete-betean parte hartzea galarazten duten faktore guztiak.

Imanol Zuberoren esanetan (Sartu Federazioa, 2006:1), berriz, “la exclusión se traduce en quiebra del principio democrático de la ciudadanía”. Horrenbestez, gizarteratzea/bazterketa dikotomiak behartzen gaitu pobrezia- eta marjinazio-kontuak ahalik eta herritar gehienek ikuspegitik lantzerantz.


José Félix Tezanosek (2004:31) azaldu zuen zertan bereizi ohi ditugun pobrezia-kontzeptua eta bazterketa-kontzeptua:

Bereizgarriak	Pobrezia	Bazterketa
Egoera	Egoera	Prozesua
Izaera	Pertsonala	Egiturazkoa
Subjektuak	Banakoak	Taldeak
Aldeak	Funtsean, bakarra (gabezia ekonomikoak)	Asko (lanekoa, ekonomikoa, soziala, kulturala)
Esparru historikoa	Gizarte industrialak (edo tradizionalak)	Industria-ondoko gizarteak edo/eta teknologia-arloan aurreratutak
Analisisa egiteko aplikatutako daitekeen ikuspegia	Desbideratzearen soziologia	Gatazkaren soziologia
Funtsezko aldagaiak	Kulturalak eta ekonomikoak	Lanekoak

Bereizgarriak	Pobrezia	Bazterketa
Kidetutako gizartearen joerak	Pobretzea	Gizartearen dualizazioa
Arrisku gehigarriak	Marjinazioa	Gizarterekiko loturen krisia
Alderdi pertsonalak	Porrota, pasibotasuna	Desafilazioa, erresumina
Bilakaera	Hondarrak	Gero eta handiagoa
Gizarte barneko distantziak	Goitik beherakoa	Barnetik kanporakoa
Eragina duten aldagai ideologiko politikoak	Laguntza ematearen aldekoa ez den liberalismoa	Neoliberalismo desarautzailea

Iturria: Tezanos, J.F. (2004).

Era berean, Tezanos (2004:12) proposatu zuen kontzeptu eta **prozesu duala** dela bazterketaren logika, eta horrek ezinbestean behartzen gaituela **gizarteratzea** kontuan hartzera.




Iturria: Bertan egina.

XX. mendearen azken urteetan, bazterketaz hitz egiten hasi ginen, eta alde txarretik definitu genuen; hau da, gabeziak nabarmentzen genituen. Bazterketa-kontzeptua erabiltzen genuen aritzeko, nolabait, gizarte aurreratueta herritar-tasun betea mugatzen duten bizitzako aukerak ez dituzten pertsona guztiez; kontzeptuen arteko polaritatea eta polaritate erreala zegoen, baztertuta zeudenen eta, aurrez aurre, gizarteratuta zeudenen artean.

Alabaina, gabeziak aipatzen baditugu bazterketa definitzeko, nor zertatik baztertzen duten, galdera bat egin behar diogu gure buruari: zer gabezia ez ditugu izan behar pertsonak eta gizarteko taldeek gizarteratzeko edo gizarteratuta egoten jarraitzeko? Alde horretatik, bazterketaren logika dagokio une jakin ba-

tean gizarteratzea eta bazterketa banatzen dituen marraren alde batean edo bestean jartzen gaituenari.



Iturria: Bertan egina.

2.2. Bazterketaren elementu komunak (Tezanos, 2004:30-31)

- Lehenik eta behin, **egiturazko fenomeno da bazterketa**, ez kausala edo singularra.

“La exclusión social, es un fenómeno de carácter estructural, de alguna manera inherente a la lógica misma de un sistema económico y social que la genera y alimenta casi irremediabilmente” (Subirats, J. (zuz.) eta beste zenbait, 2004:18).

- Bigarrenik, **gora egiten ari den fenomeno** da bazterketa.
- Hirugarrenik, **alde askokoa** da bazterketa, litekeena baita kontrako egoerak elkartzea.

“La exclusión social no se puede explicar con arreglo a una única causa o factor, sino que precisamente se define por una acumulación de factores o déficits que se interrelacionan y retroalimentan entre sí” (Subirats, J. (zuz.) eta beste zenbait, 2004:19).

- Laugarrenik, **prozesu dinamikoa** da bazterketa, eta gero eta pertsona eta pertsona-mota gehiagorengan du eragina.

Gizarteko hainbat prozesurekin (krisialdi ekonomikoekin, diru-laguntzak murriztearekin, laguntza beste sektore eta talde batzuetara bideratzearekin...) lotuta dago bazterketa, eta prozesuon ondorioa da pertsona eta talde jakin batzuk egotea gizarteko eskubide osoko kideztat ez hartzeko moduan.

Azkenik, “como la exclusión social además de un fenómeno es **un problema social**, las mediaciones políticas y la acción institucional y social pueden con-

vertirse también en elementos constituyentes del propio fenómeno” (Subirats, J. (zuz.) eta beste zenbait, 2004:19).

Tezanosek dioenez (2004:39), testuingurua konplexua delako ezaugarri asko dituzte bazterketa-prozesuek eta, gainera, konplexuak dira beren barnean ere. Alde horretatik, bazterketa ez dugu egoera estatiko eta dikotomikotzat hartu behar, ez baita agertzen edo desagertzen egun batetik bestera; aitzitik, errealtatea eta maila askokoa da bazterketa, eta askotariko barne- eta kanpo-faktoreek eragiten dute.

Pertsona edo talde batek baztertuta egoteari uztea eta gizarteratzea ekar dezakete lanarekin, ekonomiarekin, finantzekin, prestakuntzarekin, gizarte- eta osasun-arloarekin, bizilekuarekin, norbanakoarekin, gizartearekin, harremanekin, herritartasunarekin eta parte-hartzearekin zerikusia duten faktoreek, edo alderantziz.

Zer-nolako harremana dagoen faktoreon artean eta zenbaterainoko eragina duten pertsonengan edo/eta taldeengan, hainbat bazterketa- eta gizarteratze-maila ditugu. Hartara, faktore hauek, besteak beste, bazterketa-prozesuak eragiten dituzte argi eta garbi: laneratzeko zailtasunek, lana galtzeak eta langabeziak; diru-sarreren ikuspegi hutsetik, pobreziak; hezkuntza izateko eta gutxieneko hezkuntza-maila jakin bat lortzeko zailtasunek eta etxebizitzarik ez izateak; familiaren desegituraketak; eta teknologia berriak erabiltzeko eta erabiltzen ikasteko zailtasunak.

2.3. Bazterketa- eta gizarteratze-faktoreak eta gizarteko berdintasunik ezaren zeharkako ardatzak

Hauek dira bazterketaren eta gizarteratzearen arteko orekaren faktore nagusiak eta gizarteko berdintasunik ezaren zeharkako lau ardatzak:

Esparrua	Bazterketa-faktoreak	Gizarteratze-faktoreak	Gizartearen berdintasunik ezaren ardatzak			
			GENEROA	ADINA	ETNIA/JATORRIA EDO JAIOLEKUA	EZINTASUNA
Lana	<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia • Nahitaezko langabezia • Behin-behinekotasuna • Lanaren ezegonkortasuna • Lan-esperientziarik ez izatea • Lanerako prestakuntzarik ez izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Lan finko edo egonkorra izatea • Itxurazko enplegarritasuna • Lan-esperientzia • Lanerako prestakuntza • Etengabeko prestakuntza 	GENEROA	ADINA	ETNIA/JATORRIA EDO JAIOLEKUA	EZINTASUNA
Ekonomia	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-sarrera nahikoak ez izatea • Diru-sarrerak irregularrak izatea (ezkutuko ekonomia) • Diru-sarrerarik ez izatea • Gizarte-laguntzarik ez izatea edo/eta haien mende egotea • Kontsumismoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-sarrera onak izatea • Diru-sarrerak erregularrak izatea • Hainbat diru-iturri izatea • Gizarte Segurantzaren estaldura izatea • Kontsumoa 				
Finantzak	<ul style="list-style-type: none"> • Zorpetzea • Gehiegizko zorpetzea • Bazterketa finantzarioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Nolana hiko finantza-produktuak erabili ahal izatea • Finantza-produktuei buruzko informazio egokia izatea 				
Prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Ez eskolatzea edo derrigorrezko hezkuntza izateko aukerarik ez izatea • Analfabetismoa edo prestakuntza-maila eskasa • Analfabetismo teknologikoa • Eskolako porrota • Hezkuntza-sistema behar baino lehenago uztea • Oztopo linguistikoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Derrigorrezko hezkuntza osatzea • Prestakuntza-maila handia • Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak menderatzea • Atzerriko hizkuntzak jakitea eta menderatzea 				

Esparrua	Bazterketa-faktoreak	Gizarteratze-faktoreak	Gizartearen berdintasunik ezaren ardatzak			
			GENEROA	ADINA	ETNIA/JATORRIA EDO JAIOLEKUA	EZINTASUNA
Gizarte-eta osasun-arloa	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko osasun-sistema eta -baliabideak ezin erabiltzea • Zaletasunak eta haien ondoriozko gaixotasunak • Gaixotasun infekziosoak • Buruko nahasteak edo mendekotasuna eragiten duten beste gaixotasun kroniko batzuk 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-zerbitzuen doako estaldura unibertsala • Osasun ona izatea, eta ez izatea gaixotasunik, zaletasunik edo mendekotasunik 				
Etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> • Nork bere etxebizitza ez izatea • Bizitzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituen etxebizitza • Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak izatea • Etxebizitza egoera txarrean egotea • Bizitzeko baldintzak eskasak izatea etxebizitzan / pilaketa • Hiriko espazioa degradatuta egotea eta oinarrizko gabeziak izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Nork bere etxebizitza izatea • Etxebizitzak azpiegitura egokiak izatea • Gora egiten ari diren lekuetan bizitzea 	GENEROA	ADINA	ETNIA/JATORRIA EDO JAIOLEKUA	EZINTASUNA
Pertsona	<ul style="list-style-type: none"> • Motibazio-egitura ahula eta jarrera negatiboa • Pesimismoa, fatalismoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Gaitasun eta ekimen pertsonalak • Gizarteak noren dohainak balioestea • Motibazio handia • Baikortasuna, egiteko borondatea • Tratatzen erraza izatea 				

Esparrua	Bazterketa-faktoreak	Gizarteratze-faktoreak	Gizartearen berdintasunik ezaren ardatzak			
			GENEROA	ADINA	ETNIA/JATORRIA EDO JAIOLEKUA	EZINTASUNA
Gizarte- eta harreman-arloa	<ul style="list-style-type: none"> • Familiarteko sarea hondatzea (familiarteko gatazkak edo indarkeria) • Familiarteko sare gutxi izatea edo sare ahulak izatea (guraso bakarreko familia, bakardadea, etab.) • Laguntza-sare gutxi izatea edo sare ahulak izatea gizartean • Bakartuta egotea • Gizartearen gaitzespena edo laidoztatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Familiaren laguntza izatea • Gizarte-sare eta harreman biziak izatea • Elkarreentako kide izatea 				
Herritartasuna eta parte-hartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Herritartasuna erabiltzeko aukerarik ez izatea • Herritartasuna erabiltzeko aukera mugatuak izatea • Zigor-prozesu bat dela-eta, eskubideak galtzea • Politikan eta gizartean parte ez hartzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Herritartasuna mugarik gabe erabiltzeko aukerak izatea • Eskubiderik ez galtzea • Politikan eta gizartean parte hartzea 				

Iturria: Bertan moldatua eta egina, oinarri hartuta Tezanos (2004:41), Subirats (zuz.) eta beste zenbait (2004:22) eta Jiménez Ramírez (2008:182).

Bazterketa- eta gizarteratze-esparruez eta -faktoreez gain, bazterketa ulertzeko, ezinbestekoa da kontuan hartzea zer-nolako garrantzia duten **zeharkako lau⁷ ardatz nagusi** hauek: adinak, sexuak, jatorriak edo/eta etniak eta **ezinta-**

(7) Joan Subiratsek eta beste zenbait autorek (2004:21) hiru ardatz nagusi aipatzen dituzte: adina, sexua eta jatorria edo/eta etnia. Azterketa honetan, berriz, **gizartean berdintasunik eza sortzen duen ardatzat hartu dugu ezintasuna**, eta ez gizarte- eta osasun-arlotik kanpo gelditzeko faktoretzat bakarrik, *Pobrezia eta bazterketa* azterlanaren autoreek egin duten bezala.

sunak; azken batean, haien inguruan egituratuta dago gizartearen berdintasunik eza.

Askotariko bazterketa-faktoreekin gurutzatzen dira berdintasunik ezaren ardatz horiek, eta askotariko egoerak edo konbinazioak sor daitezke hartara, kasuan-kasuan (Subirats, J. (zuz.) eta beste zenbait, 2004:21). Azterketaren egileek azaldu dutenez, emakumeek, gazteek, adinekoek eta etorkinek edo herrialde pobreetakoek (administrazioarekiko egoera arautu dutenek zein arautu ez dutenek) dute aukera gehien ahulezia-egoeran eta gizarteak baztertuta egoteko, baita **ezintasunen bat duten pertsonak** ere⁸.

2.4. Ahulezia-kontzeptua

Ahulezia-kontzeptuak (Subirats, J. (zuz.) eta beste zenbait, 2004:20) egoera-multzo handia hartzen du barnean. Gizartean oreka ezegonkorrean egotea da egoera horien ezaugarri nagusia, baina oreka ezegonkor hori bazterketa bihur daiteke, bazterketa-faktoreak areagotzeko edo faktore berriak agertzeko prozesuen ondorioz; faktore berriak sortzen direnean, baliteke aurrez zeudenekin lotuta egotea edo, alderantziz, batere zerikusirik ez izatea.

Robert Castel-ek, berriz, hiru eremu bereizten ditu gizartea eratzen duten edo gizarteari kohesioa ematen diotenen artean, eta bi aldagaitan oinarrituta proposatzen ditu eremuok: batetik, lanaren bidezko gizarteratzean eta, bestetik, familiarterako eta jendarterako sareetako harremanetako partaidetza-mailan (aipua: Sartu Federazioa, 2006:11)⁹.

Lehenengo eremua da **gizarteratze-eremua**, eta eremu horretan dauden pertsonen lan egonkorra dute eta harreman sendoak dituzte familiarterean, auzoan eta abarretan (aipua: Tezanos, 2004:45).

Bigarren eremua da **ahulezia-eremua**, eta eremu ezegonkorra da. Lanaren ikuspegitik, ezegonkortasuna, lantxoak, aldizka lan egitea eta langabezia... dira ezaugarri nagusiak, eta, harremanen ikuspegitik, berriz, familiarterako eta gizarterteko euskarriak ere hauskorrak izaten dira sarri eremu honetan (aipua: Tezanos, 2004:45).

(8) Ezintasuna onartu dietenak zein onartu ez dietenak.

(9) I. kapitulua, "La nueva realidad social", Imanol Zuberok egindakoa.

Robert Castelek hemen ere aipatzen du sailkapena: "De la exclusión como estado a la vulnerabilidad como proceso", en Archipiélago, 21, 1995.

Hirugarren eremua da **bazterketa-eremua**, eta lanik ez izatea eta gizartean bakartuta egotea ditu ezaugarri (aipua: Tezanos, 2004:45).

GIZARTERATZE EREMUA	AHULEZIA EREMUA	BAZTERKETA EREMUA
lan egonkorra	lan ezegonkorra	lanetik kanporatuta egotea
harreman sendoak	harreman hauskorrak	gizartean bakartuta egotea

Iturria: Sartu Federazioa (2006:11).

Hiru eremuon banaketa berrikusi egin zuen Castelek, *La metamorfosis de la cuestión social* lan ezagunean (aipua: Sartu Federazioa, 2006:12)¹⁰, eta beste eremu bat sortu zuen, laguntza-eremu izenekoa, ahuleziaren eta bazterketaren artekoa.

GIZARTERATZE EREMUA	AHULEZIA EREMUA	LAGUNTZA EREMUA	BAZTERKETA EREMUA
lan egonkor edo finkoa eta kalitatekoa	lan ezegonkorra	nahitaezko langabezia	enplegaezintasuna
familiarteko eta jendarteko harreman sendoak	harreman hauskorrak individualismoa bakartuta egotea	gabeziak harremanetan, gizarteratzeko laguntza-ekimenek beteak	gizartean bakartuta egotea

Iturria: Tezanos, J. F. (2004:48).

Behatokiaren 2002-2006 aldiko azken txostenak zioenez, hauxe da Castelen ekarpenaren alde garrantzitsua: nabarmentzen du jarraitutasun kezkarria izan daitekeela azkenean gure gizartean gure herritartasunaz bete-betean gozatze-ko gizarteratze-egoeren eta, neurri batean edo bestean, gozamen hori arriskuan dagoen egoeren artean.

(10) I. kapitulua, "La nueva realidad social", Imanol Zuberok egindakoa.

Sailkapen horren Castelen aipamenaren erreferentzia: *La metamorfosis de la cuestión social*, Paidós, Bartzelona 1997 [1. arg. 1995], 418. or.

Castelen ustez, egungo egoerak badu ezaugarri esanguratsu bat, are esanguratsua dena, gure ustez, kontuan izanik **krisi finantzario batean murgilduta gaudela mundu osoan:**

- **Ahulezia gora egiten ari da**, gizarteratzearen eta bazterketaren arteko mugako zerrenda hori zabaldu egiten ari da, lana ezegonkor bihurtzearen ondorioz funtsean.

Bi ondorio dakartza egoera horrek:

- **Gizarteko kategoria jakin batzuk** (hala nola gazteak) **egoera ezegonkorrean egotea.**
- **Egonkor daudenen egoera ezegonkor bihurtzea**, lanaren ikuspegitik ezin gizarteratuago zeudenetako batzuk ezegonkortasun-egoera batean murgiltzearen ondorioz.

Azken hilabeteotan, egoera horren lekuko izaten ari gara etengabe.

Egungo egoera lan-, ekonomia- eta finantza-arloan

Kontuan izanik Robert Castelek ahuleziari buruz emandako definizioa eta gizar-tea eratzen duten edo gizar-teari kohesioa ematen dioten lau eremuen (gizar-te- ratze-, ahulezia-, laguntza- eta bazterketa-eremuen) proposamena, zera esan dezakegu egungo krisi finantzarioaz:

1. Bazterketa-faktoreak areagotzeko edo **bazterketa-faktore berriak** azaltzeko prozesu edo faktorea da.
2. Egoeraren araberako egoera da, eta **ahuleziak gora egitea** dakar.
3. Faktore erabakigarria da **gizarteko kategoria jakin batzuk egoera egonko- rean ez egoteko** eta **egonkor daudenen egoera ezegonkor bihurtzeko**.
4. Esparru batzuetako **laguntza-eremua txikiagotzeko** faktorea da.

3.1. Bazterketa-faktoreak areagotzea edo berriak agertzea:

Esparrua	Bazterketa-faktoreak	Bazterketa-faktoreen areagotzea egungo egoeran
Lana	<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia • Nahitaezko langabezia • Behin-behinekotasuna • Lanaren ezegonkortasuna • Lan-esperientziarik ez izatea • Lanerako prestakuntzarik ez izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia-tasek gora egitea • Behin-behinekoen eta lan ezegonkorra dutenen kopurua haztea • Langabezian dauden eta lan-esperientzia gutxi dutenen kopurua haztea • Lanerako prestakuntza eskasa dutenen kopurua haztea • Langabezian dauden eta lan-esperientzia dutenen kopurua haztea • Erdi- eta goi-mailako prestakuntza dutenen kopurua haztea

Esparrua	Bazterketa-faktoreak	Bazterketa-faktoreen areagotzea egungo egoeran
Ekonomia	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-sarrera nahikoak ez izatea • Diru-sarrerak irregularrak izatea (ezkutuko ekonomia) • Diru-sarrerarik ez izatea • Gizarte-laguntzarik ez izatea edo/eta haien mendeen egotea • Kontsumismoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-sarrera irregularrak edo/eta eskasak dituztenen kopurua haztea • Diru-sarrerarik ez duten pertsona gehiago izatea • Gizarte-laguntzen mendeen dauden pertsona gehiago izatea • Inolako laguntzarik eskuratzen ez duten pertsona gehiago izatea • Kontsumoaren beherakada
Finantzak	<ul style="list-style-type: none"> • Zorpetzea • Gehiegizko zorpetzea • Bazterketa finantzarioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Zorpetzea areagotzea • Gehiegizko zorpetzea areagotzea • Bazterketa finantzarioa areagotzea

Iturria: Bertan egina.

Europar, Espainiar eta Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen dituzten inkesten azken emaitzen arabera, bazterketa-faktoreak areagotu ditu egungo krisiak, eta nabarmenki handitu dira langabezian daudenen kopurua, langabezia-tasak, kide aktibo guztiak langabezian dituzten etxeen kopurua... Horren ondorioz, ahulezia gora egiten ari da.

27 kideko Europar Batasunari dagokionez, zera diote EUROSTAT Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoak 2009ko martxoari buruz emandako datuek:

- **27 kideko Europar Batasuneko batez besteko langabezia-tasa** %8,3koa zen. Espainian, %17,4koa zen, eta tasarik handiena zuen estatu kidea zen; Lituaniak zuen handienetan bigarrena: %15,5koa.

Iturria: EUROSTAT (2009).

- 27 kideko EBn, 2008ko martxotik 2009ko martxora, **gizonezkoen** langabezia-tasa %6,2tik %8,3ra igo zen; **emakumezkoena**, berriz, %7,3tik %8,3ra.
- 2009ko martxoan, **gazteen** (25 urtetik beherakoen) langabezia-tasa %18,3koa zen 27 kideko EBn. **Espainian zen handiena: %35,4koa.**

Iturria: EUROSTAT (2009).

Espainiari dagokionez:

- **4.010.700 lagunekoa zen langabeen kopurua.**
- **Gizonezko langabeen** kopurua 2.195.800 lagunekoa zen guztira, eta **emakumezkoena**, 1.814.900 lagunekoa.
- Langabezia-tasa igo egin zen eta %17,36koa ere zen.
- Langabeen kopurua 1.836.500 lagunetan hazi zen aurreko hamabi hilabeteetan.
- **Jarduera-tasa** %60,15ekoa (23.101.500 lagunekoa) zen.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2009-a).

- **Kontratu mugagabea** zuten soldatapeko langileen kopurua 11.817.300 lagunekoa zen, aurreko hiruhilekoan baino 63.400 lagun handiagoa.
- **Behin-behineko kontratua** zuten soldatapeko langileen kopurua 4.025.700 lagunekoa zen, aurreko hiruhilekoan baino 528.500 lagun txikiagoa.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2009-a).

- Milioi bat **etxek** baino gehiagok (1.068.400 etxek) langabezia zitzuten kide aktibo guztiak.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2009-a).

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez:

- 108.600 lagunekoa zen langabeen kopurua.
- Gizonezko langabeen kopurua 56.900 lagunekoa zen guztira, eta emakumezkoena, 51.700 lagunekoa.
- Langabezia-tasa %10,33koa zen.
- Jarduera-tasa %57,50ekoa zen.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2009-a).

Espanian,

- Euskal Autonomia Erkidegokoa (%10,33koa), Nafarroako Foru Erkidegokoa (%10,41ekoa) eta Errioxako Autonomia Erkidegokoa (%11,49koa) ziren langabezia-tasarik txikienak 2009ko lehen hiruhilekoan.
- Emakumezkoen langabezia-tasarik txikienak ere Euskal Autonomia Erkidegokoa (%11,01ekoa), Errioxako Autonomia Erkidegokoa (%11,29koa) eta Nafarroako Foru Erkidegokoa (%11,33koa) ziren.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2009-a).

- Euskal Autonomia Erkidegoan, etxe guztien %2,6k (21.500 etxek) langabezian zituen kide aktibo guztiak, aurreko hiruhilekoan baino 8.400 etxe gehiagok.

Iturria: EUSTAT (2009).

3.2. Gizarteko maila jakin batzuen ezegonkortasuna

Gazteak, emakumeak eta atzerritarrak:

Zera nabarmentzen dute Espainiako Gazteriaren Kontseiluak gazteen enplegu-eta lan-baldintzei buruz egindako azterlaneko **2008ko hirugarren hiruhilekoari buruzko datuek** (Espainiako Enpleguaren Behatoki Gaztea, 2008):

- Aldi baterako lana zen oraindik ere Espainiako gazteen lan-merkatuaren ezaugarrietako bat.
- Zehazki, Espainiako gazteen %50,8k aldi baterako kontratua sinatu zuen.
- Nabarmentzeko moduko beste datu bat da gazteek zenbateraino zuten lanaldi partziala; izan ere, haien %15,4k eta, bereziki, emakume gazteen %22,5ek zuten.
- Lan-orduak nahikoak ez direla-eta, azpienplegu bat izateari dagokionez, nabarmentzekoa da sexuaren arabera desberdintasunak bere horretan segitzen zuela: emakumeen %13,2 zegoen egoera horretan, eta gizonezkoen %9,7.

Iturria: Espainiako Enpleguaren Behatoki Gaztea (2008).

Halaber, zera azpimarratzen dute datuok: "... Los datos correspondientes al tercer trimestre de 2008 son el claro reflejo de una situación económica que afecta de forma muy importante a las personas menores de 30 años en España. De hecho la tasa de paro de este colectivo se ha situado en el 18,7%, más de un punto porcentual por encima de la tasa de paro del primer trimestre del año (15,6%). Este incremento ha afectado en mayor medida a las personas jóvenes con nacionalidad extranjera, para ellas la tasa de paro se ha situado en el 21,7%."

Euskal Autonomia Erkidegoan ere antzekoa da egoera.

- **4.320 gaztek enplegu anitz zituzten**, jardunean zeudenen %2,6k, eta horietako 3.010 emakumezkoak ziren, eta 1.310, gizonezkoak.

Iturria: Espainiako Enpleguaren Behatoki Gaztea (2008).

Haurrak eta adinekoak:

- “Uno de cada cuatro niños vive en España en familias con rentas por debajo del umbral de la pobreza” (El Correo Digital, 2009/03/16).

Zera dio FOESSA Fundazioaren VI. txostenak (2008koak):

“Una de las notas más sobresalientes del nuevo análisis de la pobreza en España es el **redescubrimiento de la pobreza infantil**. La tasa de pobreza infantil en España no sólo es mayor que la de la media de la población –uno de cada cuatro niños vive con rentas por debajo del umbral- sino que es una de las tasas más altas de la UE-25”.

Esta realidad es especialmente visible en el caso de los hogares monoparentales o de las familias numerosas. Entre los factores que explican esta situación destaca, en primer lugar, que el bienestar económico de los niños se ha hecho cada vez más dependiente de las rentas del trabajo, aumentando su riesgo de pobreza cuando los sustentadores carecen de estabilidad laboral...” (FOESSA, 2008:7).

Bestalde, zera dio Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (Eusko Jaurlaritza, 2008:87) **Euskal Autonomia Erkidegoari** buruz:

“El superior impacto de la pobreza y la precariedad en hogares con menores de 14 años determina una mayor situación de riesgo en el conjunto de menores de esa edad. Frente a un 20,1% de personas en la población de 14 o más años con dificultades de acceso al bienestar, en 2008 la proporción asciende al 27,5% entre los y las menores de 14 años. En la misma línea, la tasa de pobreza real de los y las menores de 14 años es prácticamente el doble de la que corresponde al resto de la población: 5,4% frente a 2,8%”.

Helduei dagokienez, berriz, zera zehazten du FOESSA Fundazioaren VI. txostenak (2008koak):

“Algunos grupos de población son hoy considerablemente más vulnerables socialmente que al principio de los años noventa. Concretamente, algunas de las “viejas” formas de pobreza, que se consideraban superadas, vuelven a manifestarse con notable crudeza: es el caso de las personas mayores, que han invertido su posición ventajosa respecto a otros grupos (...) **Las tasas de pobreza de las personas mayores en España superan la media de la población y son crecientes, además, en el tiempo** (...) Es un grupo que

se ha visto afectado por la incapacidad del sistema de prestaciones para acercar el crecimiento de sus rentas al de la media de la población española. Persiste, además, una notable diferenciación por sexos, al presentar **las mujeres mayores de 65 años tasas significativamente superiores a las de los varones**" (FOESSA, 2008:6-7).

Ezintasunen bat duten pertsonak:

Datu hauek biltzen ditu Espainiako Estatistika Institutuak 2008an ezintasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruz argitaratutako inkestak:

- 3,8 milioi **pertsonak zuten ezintasunen bat**, hau da, biztanleriaren %8,9k.
- Ezintasunen bat zuten 608.000 pertsona bakarrik bizi ziren.
- Ezintasunen bat duten pertsonak **sexuaren** arabera banatzen baditugu, 2,30 milioi emakumezko eta 1,55 milioi gizonezko genituen. 45 urtetik gorakoen artean, emakumezkoen ezintasun-tasak handiagoak ziren gizonezkoenak baino; 44 urtetik beherakoen artean, berriz, gizonezkoenak ziren handiagoak.
- **Euskal Autonomia Erkidegoan**, 169.400 lagunek zuten ezintasunen bat, alegia, biztanleriaren %8,5ek.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2008).

Datu hauek ditugu ezintasunen bat duten pertsonen **enplegu- eta langabezia-tasei** buruz:

- **Ezintasunen bat duten 16 eta 64 urte arteko pertsonen enplegu-tasa %26koa** da, eta ezintasunik ez dutenena, berriz, %55ekoa.
- Ezintasunen bat duten gizonezkoen enplegu-tasa %33koa da, eta ezintasunen bat duten emakumeena, berriz, %19koa.
- Enplegu-tasarik handiena 25 eta 44 urte arteko **gizonezkoena** da, %39koa baita; txikiena, berriz, 45 eta 64 urte arteko **emakumeena da**, %14koa baita.
- Ezintasunen bat duten gizonezkoen langabezia-tasa ezintasunik ez duten emakumeenaren parekoa da, eta %24 ingurukoa da horien guztien langabezia-tasa orokorra.
- Ezintasunen bat duten emakumeak langabezian egoteko aukera ezintasunik ez duten emakumeena baino %59 handiagoa da.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2003).

Begira diezaiegun orain **enplegu eta kontratu bila dabiltzan eta ezintasunen bat duten pertsonen ezaugarri espezifiko**ei:

- 2007aren amaieran, ezintasunen bat zuten 84.893 pertsona zebiltzan enplegu bila, enplegu bila zebiltzan guztien %2,76. Kopuru horrek gora egin zuen etengabe 2003tik 2007ra bitartean, urteko %10,93 batez beste.
- 2007an, 164.281 kontratu erregistratu zituzten, eta horietako 90.308 ezintasunak zituzten pertsonen izenean erregistratu zituzten. Horrek esan nahi du erregistratutako kontratuen %0,88 sinatu zutela ezintasunen bat zuten pertsonen, eta ezintasunen bat zutela kontratua sinatu zuten pertsonen %1,12k. Hartara, balantzea ona izan zen aurreko urteetakoaren aldean.

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko Lanbide Behatokia (2008).

Alabaina, ezintasunen bat zuten pertsonen egindako kontratu kopuruaren joera on hori aldatu egin da 2008tik aurrera, Eusko Jaurlaritzak egindako azterlan batekin bat, El Diario vasco egunkariaren idatzaldi digitalak dioenez:

“...Según un informe elaborado por el Gobierno Vasco, el número de discapacitados que firmaron durante el 2008 un contrato laboral descendió más del 16% en Euskadi en relación con el ejercicio anterior (...). El informe pone de relieve además que los trabajadores discapacitados están sufriendo el frenazo económico en mayor medida que la población general. Y es que la caída de la contratación en este colectivo fue doce puntos superior al descenso de la contratación en la población general: -16,1% frente a -4,1%” (Diariovasco.com, 09-04-10).

3.3. Egonkorren ezegonkortzea

Espainiako Estatistika Institutuak Biztanleria Aktiboaren Inkestaren bidez emandako azken datuek adierazten edo iradokitzen dute gizartean egoera egonkorrean zeudela jotzen genuen hainbat multzok edo pertsonak ezegonkor bihurtzen hasiak diren zantzuak dituztela. Bestek beste, hauek dira nabarmentzekoak:

Gizonezko langabeak

Espanian:

- Hiruhileko honetan, gizonezkoen langabezia gehiago hazi da emakumezkoena baino, gizonezko 507.000 langabe gehiago baitaude, eta emakumezko 295.900 langabe gehiago. Guztira, **gizonezko langabeen** kopurua **2.195.800** lagunekoa da, eta emakumezkoena, 1.814.900ekoa.
- Gizonezkoen langabezia-tasa %16,86koa da, 2008ko laugarren hiruhilekoena baino 3,89 puntu handiagoa, eta emakumeena, berriz, %18,01ekoa, aurreko hiruhilekoena baino %2,88 handiagoa. **Azken hilabeteotan, pixkana-pixkana, gero eta gehiago parekatu dira bi tasa horiek.**

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua,(2009-a).

Euskal Autonomia Erkidegoko datuek egoera bera adierazten dute:

- **Gizonezko 56.900 langabe** daude, eta emakumezko 51.700.
- Gizonezkoen langabezia-tasa %9,79koa da, eta emakumezkoena, %11,01ekoa.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2009-a).

27 kideko Europar Batasunari dagokionez, zera diote EUROSTAT Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoak 2009ko martxoari buruz emandako datuek:

- 2008ko martxotik 2009ko martxora bitartean, gizonezkoen langabezia-tasa %6,2tik %8,3ra igo zen; emakumezkoena, berriz, %7,3tik %8,3ra igo zen.

Iturria: EUROSTAT (2009).

Orain arte, ez da gertatu izan gizonezko langabeen kopurua handiagoa izatea emakumezko langabeena baino. Are gehiago, bestek beste, FOESSA Fundazioak azpimarratzen zuen pobrezia-tasak handiagoak zirela oraindik ere emakumeen artean gizonezkoen artean baino. Fenomeno hori ez zegoen lotuta familien tipologia jakin batzuekin (emakumeek sostengatzen zituzten guraso bakarreko familiekin edo bakarrik bizi ziren 65 urtetik gorako emakumeekin) bakarrik, lan-merkatuaren oso ezaugarri jakinekin ere baizik, hala nola soldaten eta jarduera- eta langabezia-tasen arteko alde handiekin, oso handiak baitziren (FOESSA, 2008).

Erdi-mailako klaseak

“Ayer Cáritas desveló precisamente que la pobreza está ampliando sus tentáculos y afecta también a niños y **familias medias** (...). [Respecto a las familias medias] éstas se han visto **afectadas por la crisis debido a la situación del mercado inmobiliario que ha llevado a la gente a endeudarse como no lo hacía en medio siglo, además de la situación laboral que está destruyendo EREs, cierres y no renovaciones**. ‘Cuando una familia donde hay dos contratos precarios se quedan sin trabajo, se llega a esta situación. A esto hay que unir la gente que tiene una hipoteca y sólo tiene una posesión, una hipoteca, ni siquiera una casa’, recordó el secretario general de Cáritas Diocesana de Vitoria, Ramón Ibeas. Tampoco olvidó la especial dificultad a la que se enfrentan estas personas si, además de perder su empleo, son inmigrantes, lo que les lleva a una falta de regularidad” (Diario de Noticias de Álava, 09/04/01:11).

Ondoko taulan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak azken urteotan enplegua erregulatzeko baimendutako espedienteen kopurua dugu:

	ESPEDIENTEAK*	KALTETUTAKO LANGILEAK			
		Guztira	Murrizketak	Etenaldiak	Deuseztatzeak
2003	292	12.035	155	8.624	3.256
2004	261	5.614	25	3.478	2.111
2005	328	6.158	41	4.714	1.403
2006	173	3.338	4	1.704	1.630
2007	282	4.815	17	3.856	942
2008	496	12.795	108	11.217	1.470
2009	613	21.687	579	20.418	690

*Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak baimendutako espedienteak.

Iturria: Lan eta Gizarte Gaien Ministerioa eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila¹¹.

(11) 2003tik 2008ra arteko aldiari buruzko datuak, Lan Harremanen Kontseilua (2008); 2009ari (tartean, 2009ko martxoari) buruzko datuak, Lan Harremanen Kontseilua (2009).

Cáritasek adierazitakoa berresten dute 2008an eta 2009an enplegua erregulatzeko aurkeztutako espedientei buruzko datu xeheek:

- 2008an, **guztira, enplegua erregulatzeko 496 espediente** onartu zituzten EAEn, eta horien %69 urteko azken hiruhilekoan onartu zuten.
- Espediente horiek guztiek **12.794 langileri egin zieten kalte**.
- Neurri nagusia **lan-harremanaren aldi baterako etenaldia** izan zen, horrek egin baitzuen kalte 11.216 langileri, baina 1.470 kontratu deuseztatu eta 57 enpresa itxi ere egin zuten.
- Bai arrazoi finantzarioek eragindako espedienteen kopurua (76 espediente, 1.235 langileri kalte egin dietenak), bai eskariaren beherakadak eragindako espedienteena (175 espediente, 5.058 langileri kalte egin dietenak) nabarmenki handitu ziren aurreko ekitaldikoan aldean: espediente-kopuruak %49 eta %775 handitu ziren, hurrenez hurren, eta espedienteek kaltetutako langileen kopurua, %50,2 eta %561, hurrenez hurren; hain zuzen ere, eskariaren beherakadak eragindako espedienteek dute erlazio gehien krisialdi ekonomikoarekin.
- **Industria** izan da **sektorerik kaltetuena**, sektore horretan onartu baitzuten espedienteen %69 eta sektore horretan baitziharduen espedienteek kaltetutako langileen %85.
- Espedienteek **kalte handiagoa** egin zieten **gizonezkoei** emakumezkoei baino; zehazki, espedienteek kaltetutakoen %81 zen gizonezkoa, eta %19 emakumezkoa.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua (2008).

Bestalde, **konkurtsoko zordunen** (familien eta enpresen) **kopuruaren etengabeko gorakadaren** berri ematen du 2009ko lehenengo hiruhilekoari buruzko lehiaketa-prozeduraren estatistikak, eta krisialdiaren eragina adierazten du horrek ere:

- 2009ko lehenengo hiruhilekoan, 1.558koa izan zen **konkurtsatutako zordunen kopurua**; hau da, haien kopurua **%266,6 handitu** zen aurreko urteko hiruhileko berekoaren aldean.
- **Konkurtsatutako enpresen** %35,0ren jarduera nagusia **eraikuntza eta higiezinaren sustapena** zen; %23,9rena, industria; eta %17,8rena, merkataritza.
- Kataluniako Autonomia Erkidegokoa, Valentziako Erkidegokoa, Madrilgo Erkidegokoa eta Andaluziako Autonomia Erkidegokoa zen 2009ko lehenengo hiruhilekoan konkurtsatutako zordun guztien %59,2.

- **Euskal Autonomia Erkidegoan** konkurtsatutako zordunen kopurua igo egin zen 2009ko lehenengo hiruhilekoan, eta 93koa izan zen; hartara, **%158,3 handitu** zen 2008ko aldi berekoaren aldean, konkurtsatutako zordunen kopurua 36koa izan baitzen orduan.
- EAEn **konkurtsatutako 93 zordunetan** bost enpresa-arloko jarduerarik ez zuten pertsona fisikoak ziren.
- Sektore ekonomikoen artean, industria- eta energia-sektorean eta erai-kuntzaren eta higiezinak sustatzearen sektorean **konkurtsatu zituzten zordun gehien**: hurrenez hurren, 42 eta 19 enpresa.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua, (2009-b).

Azkenik, aipatzekoa da, langabezian daudela, inongo laguntzarik kobratzen ez dutela, etab. dela-eta, beren ordainketei aurre egin ezin dieten familien eta pertsonen berankortasun-egoera:

“El impacto de la peor coyuntura económica también se deja sentir en **la morosidad del crédito a personas físicas**, que ha pasado del 1% en diciembre de 2007 al 2,8% en diciembre de 2008 (...). El **crédito al consumo**, tanto por su naturaleza como por el fuerte aumento del desempleo, refleja un nivel (ratio del 4,5% en diciembre de 2008) y un ritmo de avance de la morosidad (2,42 pp desde diciembre de 2007) más intenso que el del **crédito para adquisición de vivienda** (2,33% en diciembre de 2008, 1,64 pp más que en diciembre de 2007)” (Espainiako Bankua, 2009:25).

Azterlanean parte hartu duten pertsonen ekarpenak

1. Egungo **krisialdi finantzario eta ekonomikoa gizartearen kohesioaren hauskortasuna larriagotzen eta sendotzen** ari da. Hau da, bazterketa-faktore berriak areagotzeko prozesua izaten ari da krisialdia.

Edonola ere, **gizarte- eta ekonomia-arloan dugun ereduaren** emaitza da gizartearen kohesioaren haustura, eredu horrek baitakar egiturazkoa izan dadin bi herritartasun-maila (gizarteratutakoak eta baztertutakoak) izatea. Are gehiago, ia-ia enplegu betea izan denean ere teknikoki, badira orduan ere bazterketa-egoera kronikoan egon izan diren pertsonak.

Krisialdia, berriz, egoeraren araberako egoera da, ahulezia-eremua zabaltzea eragiten ari da eta erdi-mailako klaseko pertsonengan ere izaten ari da eragina azkenerako.

2. **Bazterketa gainditzeko**, beharrezkoa da onartzea **gizarteak erantzukizuna** duela haren gainean, eredu ekonomikoaren ondorio baita bazterketa –haren muina da onura pribatuak baldintzatzen duela hazkundera–, eta gizartearen dinamiken fruitua. Hori dela eta, gizarteak berak jakin behar du zein diren bazterketaren arrazoiak, eta onartu behar du erantzukizuna duela.
3. Testuinguru horretan, **elkartasun-sare informalak funtsezkoak** dira bazterketa-egoera jakin batzuk arintzeko edo konpontzeko, baina kontuan izan beharra dago benetako elkartasunak behartzen duela justizia eta erantzukizun publikoa erabiltzera berdintasunik ezari eta bazterketari erantzuteko, baita garapen-eredua aldatzera eta konpromisoa hartzera horretarako beharrezko balioekin (zorrotasunarekin, elkarri laguntzarekin eta abarrekin).

Alde horretatik, askoz ere protagonismo handiagoa izan beharko luke Estatuak, eta, modu eraginkorrean, ongizate-helburuak lortu beharko genituzke. Hartara, administrazio publikoak “erantzukizuna bere gainetik kentzeko” arriskua galaraziko genuke.

Euskal gizartean, funtsezko elementuak dira elkartasun-sareok, gizarte-mugimenduek prestigio handia baitute gure artean eta konpromiso-maila handia baitugu haiekin. Hala ere, kontuan izan behar dugu betiere estrategia bat dela hori, ez dela helburua bera. Hau da, erantzuteko beste modu bat dira elkartasun-sareak, baina mugak dituzte bazterketari erantzuteko.

Elkartasun-sare informalak dira gutxiago dugula bizitzea beste pertsona batzuk gehiago dutela bizi ahal izan daitezen, trukatzea, ezberdinak direnak

harremanetan egotea... eta garrantzitsuak dira, hain zuzen ere, bazterketa-egoeran dauden pertsonengandik hurbil daudelako; lanpostu bat edo etxebizitza lortzea ez ezik, gizarteratzea badelako harreman-sareetan sartu ahal izatea ere.

Ezinbestean Estatuaren esku-hartzearekin konbinatutako laguntza-eremu informal batez ere hitz egin genezake.

4. Bazterketari erantzuteko sistemaren antolamendu orokorraren esparruan, **estrategia baliagarritzat** har dezakegu **ekonomia soziala, Estatuaren erantzunarekin bateragarria** dena, baina bide luzea dugu egiteko horretarako. Zehazki, aurrera egin behar dugu legezko esparruaren (klausula sozialen eta abarren) aldetik, sustapen-neurrien aldetik, kontsumitzaileen jokaeraren aldetik...

Dena dela, ekonomia sozialak ez digu ematen bide haren barnean parte hartzen duten pertsonak gizarteratzeari benetan erantzuteko bakarrik, baizik eta gizartean lan egiteko, ekoizteko, merkataritzan aritzeko, kontsumitzeko... zer aukera ditugun agerrarazteko ere.

lido horretan, ondasunak birbanatzeko sistematzat hartu beharko genuke ekonomia soziala ekoizteko estrategiatzat baino gehiago.

5. Gizarterako kategoria jakin batzuk egoera ezegonkorrean dauden eta egonkorren egoera ezegonkor bihurtzen ari den honetan, litekeena da hainbat gai zalantzan jarri behar izatea edo, areago, berriz aztertu behar izatea: **enplegua** izatea gizarteratzearen ardatz nagusia, **lana** izatea herritar-mailara heltzeko ate nagusia, **lan-merkatuaren** inguruko hainbat gai, **prestakuntza**...

6. Azterlanean parte hartu duten pertsonen ustez, krisialdian gauden honetan ere, **enplegua da oraindik ere gizarteratzeko bide nagusietako bat**. Gizarteratzeko, ez dugu lanpostu bat bakarrik behar, baina lanpostu bat ere behar dugu halabeharrez, betiere, lan egiteko adina badugu, lan egiteko ezintasunik ez badugu eta langabezia ez bada beste jarduera-mota batzuetan (prestakuntzan, beste pertsona batzuk zaintzen eta abarretan) aritzea hautatu izanaren ondorio.

Zailtasunak zailtasun, inolaz ere ezin diogu egin uko enplegua gizarteratzearen gakotzat hartzeari.

Nor bere ingurunean gizarteratzeko, enplegua da betiere harreman egokiak lortzeko funtsezko bideetako bat. Alegia, enplegua gizartean parte hartzeko modu bat izateak gizarteratzea lortzeko helburuari erantzuten dio. Izan ere,

lan egiteko aukerarik edo ordain duinpeko lanik ez badugu eta, hori dela eta, gizartean eginkizun bat betetzerik ez badugu, ordainik ez badugu hartzen lanaren trukean... hitz egin al dezakegu gizarteratze beteaz?

Halere, krisialdian gauden honetan batez ere, okerra da edo okerra izan daiteke enplegua hartzea bazterketaren "konponbidetzat". Azken batean, gizarteratzeko prozesuaren helburu bat da enplegua, enpleguaren bidez gizarteratzea, baina ez da ardatz nagusia.

7. Bestalde, **lana** da **diru-sarrerak** lortzeko bide nagusia, eta horixe da oraindik ere **herritar-mailara heltzeko ate nagusia**, beste diru-iturri erregularrik ez dutenen ikuspegitik batik bat. Gainera, lana bada gizarte-harremanak sortzeko bitarteko bat ere.

Gaur egun, baina, zenbait pertsonaren ikuspegitik, herritar-mailara heltzea ez dago lotuta ezinbestean ordainpeko lanarekin. Aitzitik, iraganekoaren aldean, ikuspuntu ezberdin batetik planteatzen dugu lanarekiko harremana, eta beranduago sartzen gara lan-munduan, sartu-irtenean ibiltzen gara hainbat arrazoi (beste batzuk zaindu beharra, prestakuntza, etab.) direla medio, erretiroa goiz hartzen dugu... Gainera, bada multzo bat gero eta handiagoa, erretiroa hartu duten pertsona autonomoek osatutakoa, aisialdiko jarduera aktiboak, gizartean parte hartzeko aukerak, etab. nahi dituen: haren ikuspegitik, herritartasun aktiboa erabiltzeko, ez da beharrezkoa lanpostu bat izatea (ordainpeko lana egitea).

8. **Lan-merkatuari** dagokionez, lanpostuak zer azkar suntsitzen ari diren ez da krisialdiaren indarraren adierazgarri bakarrik, aurrez **sortutako enpleguaren kalitate eskasaren** adierazgarri ere baizik. Hain zuzen ere, horixe izan da lan-merkatua malgutzearen ondorioa, neoliberalak ekonomiaren hazkunderako babestutako eskakizunaren ondorioa.

Halaber, harrigarria da, BPG eta biltzen dugun dirua etengabeki hazten ari diren honetan, teknikoki enplegu bete dugun honetan, ahulezia-eremua handiagotu egin dela azken hamarkadetan, bizi-baldintzak (nagusiki, adinekoenak, gazteenak, emakumeenak eta etorkinenak) ezegonkortzearekin batera.

9. **Gure lan-merkatuaren** ezaugarria da, batetik, **gizarteko berdintasunik eza betikotzea**, lanaren ezegonkortasunaren ondorioz. Hazten ari ginenean, bazirudien denok dena egin genezakeela (etxea, autoa, etab. eros genezakeela), desberdintasunak desagertu egiten ari zirela, baina begien bistan dago ez zela gertatu halakorik.

Bestetik, gure lan-merkatuaren ezaugarria da **pobrezia-egoerak kroniko bihurtzea, soldatak txikiak direlako**; langile pobreak daudela azaleratu da.

Azkenik, egungo lan-merkatuaren ezaugarria da **baztertuta dauden pertsonak lan-munduan sartzea eragozten** duela. Hala ere, aipatzekoa da zailtasun hori ezartzea dela ekonomia kapitalisten esparruko lan-merkatuaren bereizgarria; ezaugarri hori ez dela “egungoa”, baizik eta betidanik existitu izan dela; talderik kaltetueneak dutela lan egiteko aukera gutxien.

Enpleguaren egoera arrunta denean ere, ez da ohikoa baztertuta dauden pertsonak lan-munduan sartzea, enpresek ez dituzte betetzen araudiak xedatzen dituen kuotak, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak ez dira nabarmentzen baztertuta dauden pertsonak, ezintasunen bat dutenak, etorkinak... modu esanguratsuan sartzeagatik lan-taldean.

10. Egungo langabezia-egoera aldaketak eragiten ari da harremanen esparruan. Lehenik, **gazteek gero eta zailtasun handiagoak dituzte beregintasuna lortzeko**. Egoera larria da berez –batez beste, Europa osoan beranduen emantzipatzen direnetako bat da Euskadiko gazteria–, eta areago larrituko da, kulturarekin ere lotuta baitago: gaztaroa luzatzen dugu estatus “onargaria” izango dugula ziurtatu arte.

Bigarrenik, **gizarteko bizikidetzaren** esparruan, **herritarren arteko tentsioa gora egiten ari da**, atzeritarrekiko harremanetan bereziki: jabetzaren aurkako delituak gora egiten ari dira, tirabirak daude baztertuta dauden pertsonen (atzeritarren eta abarren) eta, baztertuta egonda ere, haiekin bat egiten ez duten pertsonen artean, etab.

Hala ere, paradoxikoa izan arren, baliteke pertsonen arteko elkartasun-balioak berreskuratzea ere.

Hirugarrenik, alde batetik, **kide guztiak diru-sarrerarik gabe dituzten familien kopurua gora egiten ari da** –Cáritasek eta antzeko beste zerbitzu batzuek salatu izan dute gero eta handiagoa dela pobrezia, eta, ia egunero, administrazio publikoak iragartzen ari dira neurriren bat (herri-lanak egiteko planak, langabeentzako ezohiko laguntzak, etab.) hartu dutela edo hartu behar dutela egoera horri aurrea hartzeko–, eta, beste alde batetik, **gero eta pertsona gehiago daude gizarte-laguntzen mende**an, krisialdi orokorrean murgilduta gauden honetan (laguntza-eremua txikitu egiten ari den honetan) pentsatzekoa denez.

Azkenik, krisialdia aldaketak eragiten ari da harremanen esparruan, hala nola familiartean, litekeena baita **diru-sarrerak eskuratzeari uzten dioten pertsonak familiartera itzuli beharra**. Izan ere, EAEn, ongizate-estatu mediterraneo ezegonkorraren euskarri baten modukoa da familia.

Alde horretatik, kredituak ordaintzen atzeratzeko formulek ekar dezakete, bizirik iraungo badute, gurasoekin berriz bizitzera edo beste pertsona batzuekin elkartzera behartuta dauden pertsonen kopurua txikiagotzea, kalean bizitzera behartuta daudenena, etxebizitza mantendu behar dutenena oinarriko beharrekin (janarekin, jantziekin, oinetakoekin, hezkuntzarekin, prestakuntzarekin...) zerikusia duten gastuen kontura...

- 11. Lan-munduan sartzeko beste tresna bat da prestakuntza** oraindik ere, langabezia dauden pertsona guztiei balio diena, baina zerbait zehaztu beharra dago: beharrezko bidea da prestakuntza, baina, askotan, ez da ez nahikoa, ez konponbide bat.

Betiere, beharrezkoa da ahalegintzea egokitasuna izan dadin **prestakuntza-ren eta, pertsona bakoitzaren neurria, lan-munduan sartzeko diseinatzen dugun ibilbide osoaren artean**.

Esaterako, badira “premiatzeko ekonomiaren” esparruan bizi diren pertsonak: nolana (ezkutuko lanaren, txatar-salerosketaren, eskearen... bidez) lortu behar dituzte diru-sarrerak, eta ez dute denborarik prestakuntzarako. Halaber, badira arlo jakin batean prestakuntza nahikoa duten baina beste arlo batzuetan trebatzeko zailtasun ikaragarriak izango lituzketen pertsonak. Azkenik, badira prestakuntza-maila bikaina duten pertsonak ere.

- 12. Garrantzi handikoa da prestakuntza-moduluak pertsonen arabera egokitztea**, kontuan izan behar baitugu langabezia dauden pertsonen prestakuntza- eta trebakuntza-mailak oso ezberdinak direla:

- Lehenik, badira **prestakuntza- eta trebakuntza-maila handia** duten langabeak. Horrelako asko izan ditugu eta horrelako asko ditugu, hala nola lan-merkatuak barneratu ezin dituen lizentziadun asko eta asko, baina haien kopurua txikiagoa da prestakuntza-maila eskasa dutenena edo batere prestakuntzarik ez dutenena baino. Gainera, prestakuntza- eta trebakuntza-maila handia duten pertsonak aukera gehiago dituzte birgaitzeko eta teknologia berrietarantz bideratzeko.
- Bigarrenik, badira **lan-esperientzia luzea** duten langabeak. Aurrekoe-na baino talde txikiagoa osatzen dute, baina haien kopurua ere esan-

guratsua da, jarduera-sektorearen eta adinaren (helduxea izatearen) arabera.

- Hirugarrenik, badira **beren lanpostuan oso espezializatuta** dauden langabeak. Krisialdian dauden sektoreetan dihardute batez ere halakoek, hala nola automobilgintzan, eta litekeena da haien espezializazioa eguneratuta ez egotea eta aldaketei aurre egiteko malgutasun eskasa izatea. Hori dela eta, funtsezkoa da pertsona horiek beste espezializazio-arlo batzuetan trebatzea, lan-munduan egoteko aukera gehiago izan ditzaten.
- Azkenik, badira **batere prestakuntzarik** ez duten pertsonak. Betidanik, langabeziaren oinarrian egon izan da prestakuntzarik eza, eta bai egungo egoera ekonomikoan, bai aurrekoetan gertatu izan da hori. Egungo egoeran, ordea, ilarako azkenak dira eta izango dira prestakuntzarik ez duten pertsonak; haiek dituzte zailtasun gehien, eta halakoek osatzen dute multzorik handiena langabeen artean.

13. Egungo egoeran, ezin ditugu alde batera utzi jazotzen ari diren edo jazo daitezkeen **beste egoera batzuk**. Batetik, baliteke **prestakuntza-prozesuak gehiegi luzatzea**, egoerari eusteko bakarrik, eta inolako ahaleginik ez egitea lana aurkitzeko edo nork bere lana sortzeko benetako aukerak sortzeko.

Bestetik, litekeena da lan-munduan berehala sartzea izatea helburu, eta oinarrizko **prestakuntzari ez begiratzea**, ez lanean hasi aurretik, ez ondoren. Esate baterako, hori gertatuko litzateke mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen edo Haur Hezkuntzako lehen zikloan hasten diren emakumeekin, beste batzuk zaintzeko gaitasun informalak bakarrik dituztela egiaztatzen badute betiere.

Azkenik, beharrezkoa da aztertzea **zer sektore ekonomikotara** bideratu behar dugun langabezia dauden pertsonen prestakuntza; adibidez, orain arte, eraikuntza izan da hondar-sektoreetako bat, baina ez dirudi gaur egun oso errentagarria denik.

Bazterketa finantzarioa

Ez dago oro har onartzen dugun **bazterketa finantzarioaren definiziorik**, baina, hala ere, esan dezakegu, oro har, bazterketa finantzarioa prozesu bat dela eta, haren ondorioz, gizartearen zati batek ez duela finantza-sisteman parte hartzerik, dela erakundeek diseinatzen dituzten finantza-zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak dituelako, dela zerbitzuok erabiltzeko zailtasunak dituelako, dela bere burua sistematik kanpo uzten duelako, hainbat arrazoi direla medio.

Askoz ere bazterketa-mota zabalago bat osatzen du bazterketa finantzarioak, eta bazterketa-mota horri aurre egiten dioten taldeek ez dute kalitateko oinarritzko zerbitzuak eskuratzetik, hala nola lana, etxebizitza, hezkuntza eta osasun-laguntza.

Bazterketa finantzarioaren garrantzia askoz ere handiagoa da hasiera batean pentsatzen duguna baino, egoerarik okerreanean dauden taldeei jotzen baitie, eta horrek laguntzen baitu bazterketa eta pobrezia sortzen eta larriagotzen.

4.1. Finantza-arloan baztertuta gelditzeko hainbat modu

Finantza-arloan baztertuta gelditzeko hainbat modu daude (Zubeldia, A.; Mitxeo, J.; Olasolo, A.; Zubia, M.; 2008:209-218):

1. Lurralde hurbilean finantza-erakunderik ez izatearen ondoriozko bazterketa finantzarioari **bazterketa geografiko** esaten diogu.
2. Finantza-arloan baztertuta gelditzeko beste modu bat **redlining-a** da, eta kokaleku geografikoan oinarritzen da. 1930ean sortu zen kontzeptu hori, Bostonen, marra gorriak ageri zituzten mapak aurkitu baitzituzten orduan,

bankuetako kudeatzaileek eremu jakin batzuk kanpo uzteko egindakoak, eremuotako pobrezia edo gatazkak handiagoak zirela eta.

3. **Finantza-zerbitzuak eskuratzeko bazterketa.** Bankuek pertsona jakin batzuk baztertzen dituzte, arriskua eta errentagarritasuna kudeatzeko prozesuan ditzuten mugen ondorioz. Izan ere, inbertsioak seguruak izan daitezen lortu nahian, bezero-zerrenda osa dezakeen biztanleriaren murrizketa erlatiboa egiten dute bankuek.
4. **Baldintzen ondoriozko bazterketa** gertatzen da, beren baldintzak direla medio, finantza-produktuak ez direnean egokiak pertsona jakin batzuen beharretarako.
5. Egoera jakin batzuetan, praktikan, salmenta- eta marketing-estrategietatik kanpo uzten dituzte pertsona batzuk, eta **merkataritzako bazterketa** esaten diogu egoera horri.
6. **Estatus administratiborik ez izatearen ondoriozko bazterketa** dagokio, estatutatu administratiboa (“paperik” ez izatea edo erregularizatu gabe egotea) dela medio, pertsona batzuek finantza-produktuak eta -zerbitzuak ezin eskuratzeari,
7. Azkenik, **nork bere burua baztertzea** dugu. Hainbat arrazoi izan daitezke nork bere burua bere borondatez baztertzeko: arrazoi moral edo erlijiosoak; bankuak baztertu egingo gaituela pentsatzea; bankuetako zerbitzuen konplexutasuna; lexiko teknikoa; teknologia berrien ondorioz, finantza-produktu jakin batzuk materiagabe bihurtu izana; iraganean esperientzia txarrak izatea...

“Reflexiones sobre el origen y las implicaciones de la exclusión financiera” artikuluaren autoreek berek iradokitzen dutenez, nabarmentzekoa da bazterketa-mota horiek eragina dutela elkarrengan eta, gainera, **bezeroaren eta bankuaren arteko harremanak** baldintzatzen dituela.

Harreman horren arabera, **hainbat mailatakoa** izan daiteke **bazterketa finantzarioa**:

- **Erabateko bazterketa finantzarioa.** Pertsonak ez du inongo harremanik finantza-erakundeekin.
- **Oinarrizko finantza-produktuak** eskuratzeko bazterketa finantzarioa.
- **Kreditu-bazterketa** eta finantza-produktu sofistikuagoak eskuratzeko bazterketa finantzarioa.

Europako Batzordearen arabera, **diru-sarrera txikiak dituzten pertsonak** dituzte **bazterketa finantzarioa pairatzeko aukera gehien**, hau da, langabeek, seme-alabak zaintzeaz arduratzen diren eta bikotekiderik ez duten gurasoek eta, gaixotasun edo ezintasunen bat dutela-eta, lan egin ezin duten pertsonak, baita atzeritarrek ere.

Egoera txarrean dagoen eremu batean biziz gero, handiagoa da bazterketa finantzarioa sufritzeko aukera, baita estatu kide berrietako landako eremu batean biziz gero ere. Horrek adierazten du finantza-zerbitzuen hornikuntza eskasa dela komunitate horietan.

Hainbat arrazoi daude bazterketa finantzarioa jazotzeko. Europako Batzordearen ustez (2008), badira **arrazoi sozial** batzuk (hala nola zahartzea), desoreka teknologikoarekin batera, bazterketa finantzarioa areagotzen dutenak. Hala eta guztiz ere, **eskaintzaren eta eskariaren** mendekoak dira bazterketa sortzen edo larriagotzen laguntzen duten faktore asko. Esaterako, bankuek uko egiten diote talde batzuei kontuak irekitzeari eta transakzio-zerbitzu osoak emateari; produktuak eta zerbitzuak ez dira eskuragarriak; produktuen diseinua desagokoa da; zerbitzuen hornikuntza txarra da; eta transakzioetarako bankuko kontuen gastuak handiak dira. Horrek guztiak zerbitzuok eskuratzeko edo/eta erabiltzeko asmoa kentzen die pertsona batzuei, baita bankuko kontuak pobreentzat ez direla sinesteak, kostuei buruzko kezkek eta kontrol finantzarioa galtzeko beldurrak ere.

4.2. Bazterketa finantzarioaren ondorioak

Bazterketa finantzarioaren hainbat ondorio aipatzen ditu Bayoten azterlanak (aipua: Zubeldia, A.; Mitxeo, J.; Olasolo, A.; Zubia, M.; 2008:215):

1. Finantza-arazoak izatea. Bankuetako oinarrizko zerbitzuak ez izatearen (hala nola kontuak, kontsumorako kredituak, aurrezki-kontuak edo aseguruak ezin eskuratzearen) ondorio da hori zuzenean. Izan ere, nola biziko gara herrialde batean bankuko konturik gabe, ezinbestekoa bada soldata edo gizarte-laguntzak kobratzeko?

Era berean, hainbat arazo ekar ditzake berekin oinarrizko finantza-produktuak ezin eskuratzek:

- Bankuetako zerbitzuak ez erabiltzea bereziki arazotsua da ordainketen ehuneko handi bat bankuko kontuen bidez egiten dituztenean.

- Kreditu-linea nagusiak eskuratu ezin dituztenek zailtasun larriak izan ditzakete eta, horregatik, estatusik gabeko mailegu-emaileengana jo behar dute, oso prezio handiaren kontura.
- Pertsona gehienek duten segurtasuna eta malgutasuna galtzea eragiten du aurrezkiak ez izateak.

2. Eguneroko bizitzan arazoak izatea. Bankuetako zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko aukerarik ez izateak zuzeneko ondorio praktikoak ditu eguneroko bizitzan, eta pobrezia larriagotzen laguntzen du, aurrekontu berez mugatuak are gehiago mugatzen baititu. Autoestimuan eragina du horrek eta, horrenbestez, baita gizartearekiko harremanetan ere.

Hiru multzotan bana ditzakegu mota honetako ondorioak:

- Zailtasunen ondorioz, **pixka bat aurrezte**a lortzen duten pertsonak aurrezkiak erabili behar dituzte eta, hartara, ustekabekoei aurre egiteko segurtasuna galtzen dute.
- **Errealitatea ikusteko modua aldatzeko** joera dute kaltetutakoek. Zehatz-mehatz, premiazkotzat ez dituzten hainbat gasturi (hala nola aseguruari eta osasun-arloko gastuei) uko egiten diete, lehentasuna emateko beste gastu batzuei (ordaintzen ez badituzte, berehalako ondorioak dituztenei).
- **Autoestimua eta osasun fisikoak eta psikikoak** okerrera egiten dute, aurrekontuaren orekari eusteko eta eguneroko gastuei aurre egiteko zailtasunak direla eta.

3. Arazoak izatea gizartean, gizarteratzeko arazoak izatea. Bazterketa-, gutxiespen-, mesfidantza-sentipena jasangaitza da. Azken batean, bi aldetatik gara gizarteko kide: gizarte-eskubideak ditugun neurrian eta ekonomian parte hartzen dugun neurrian.

Azkenik, aipatzekoa da bazterketa finantzarioa pairatu behar duten pertsonak baztertu egiten dituztela edo beren kabuz baztertzen direla. Batetik, bazterketa finantzarioa sorrarazten duen ingurunearen ezaugarria da bankuek menperatzen duten erlazio hierarkikoa izatea eta, hori dela eta, zailtasun ekonomikoak dituztenean, egoera konpontzeko estrategiak bilatzera behartuta egotea babes gutxien duten bezeroak.

Bestetik, dela lotsagatik, dela laguntza ematen digutenean zor morala ez sentitzeagatik, pertsona batzuek nahiago izaten dute ingurukoei laguntzarik ez eskatzea. Are gehiago, harreman horiek babesteko, bada bankuarekiko arazoak ezkutatu eta bere aurrekontuak jasan ezin duen bizi-maila izaten jarraitzen duenik; hartara, ordea, bere egoera okertu besterik ez du egiten.

4.3. Espainia

Santiago Carbó Valverdek koordinatutako Granadako Unibertsitateko ikertzai-le-talde batek egindako azterlanak (2006-2008) berresten duenez, Espainian, landako eremuetan eta gutxiengoak eratzen dituzten etorkin-taldeetan daude bazterketa finantzarioa sortzeko ahulezia-poltsa nagusiak.

Taldearen ustez, landako eremuetako egoerak lotura handiagoa du baldintza-tzaile geografikoekin, eta halako eremuetan eragiketa ekonomiko gutxiago izatearen eta finantza-sistemak berak arreta txikiagoa jartzearen ondorio da nagusi; izan ere, finantza-sistema presenteko dago kalean.

Atzerritarren egoera, berriz, kulturarekin lotuago dago, eta Espainiak azken hamarkadetan hartu duen etorkin-jario handiaren ondorio da. Izan ere, etorritako pertsona asko eta asko beste kultura oso ezberdin batekoak dira, eta, dela erlijioagatik, dela ohituragatik, kultura batzuek ez dute uzten etorkinek gure finantza-sisteman parte har dezaten.

Ikertzaile-taldearen emaitzetako bat izan da ikustea bazterketa finantzarioa kontrolatuta dagoela, hau da, Espainiako bankuen eta aurrezki-kutxen sistema egokitu dutela gizarteratze finantzarioa lortzeko. Santiago Carbó Valverderen ustez, "en España, el papel de determinadas instituciones ha ayudado bastante a que la exclusión sea más baja de lo que se pudiera haber esperado. Otros países desarrollados tienen unos niveles del 10% de exclusión, mientras que en el nuestro, la exclusión hemos comprobado que se sitúa en torno al 3,8%".

Hartara, txikiagotu egin dira landako eremuetan eta atzerritarren artean bazterketa finantzarioa sortzeko ahulezia-poltsak, landako eremuetan pentsatu baitute aurrezki-kutxek bereziki. Hain zuzen ere, eremuotara eraman dituzte beren produktuak, eskuragarriago jarri dituzte zerbitzu ekonomikoak eta aukera eman diote hango biztanleriaren zati bati kontu korronteak izateko, transakzioak egiteko edo, baldintzen araberako babes ekonomikoa izanik, proiektuak aurrera eramateko.

Etorkinei dagokienez, berriz, erakundeak ohartu dira etorkinek zailtasun gehiago dituztela finantza-zerbitzuak eskuratzeko eta zailagoa dela haiekin elkarrekintzan aritzea. Arazo hori konpontzeko, produktu-mota berriak (hala nola mikrokredituak) sortu dituzte, eta zerbitzu espezifikoak ematen dituzte, hala nola dirua igortzea jaioterrira.

Ikertzaile-taldeak horretatik guztitik ondorioztatu duenez, Espainian, bazterketa finantzarioa ez da espero izatekoa den bezain nabarmena, baina existitu existitzen da hala ere, eta saiatu behar dugu aurrerantzean ere arazoa kontuan hartzen eta konpontzen. Alde horretatik, taldeko kide Miguel Ángel Pérezen esanetan (2009), teoriarik, arau eta lege bidez jarri beharko genuke arreta bazterketa finantzarioan, baina finantza-egiturak berak asmatu du hura murrizten, bere mesedetan jakina.

Azkenik, ikertzaile-taldeak iradoki duenez, **egoera ekonomiko berri batean (atzeraldik ekonomikoan)** gauden honetan, unean unekoak dira emaitza guztiak, eta, hortaz, fenomeno berak ebaluatzen jarraitu beharko dugu, zuhurtasun finantzario handiagoko esparruan baina.

Europako Batzordeko Enplegurako, Gizarte Gaietarako eta Aukera Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak (2007-2008)¹² **gomendio** hauek egin zituen **bazterketa finantzarioari buruz**:

- Gobernuek adierazle garbiak sortu beharko lituzkete, jakiteko norainokoa den bazterketa finantzarioa eta ebaluatzeko zenbateraino diren eraginkorrak hartzen dituzten neurriak eta zenbaterainoko eragina duten horiek bazterketa finantzarioan.
- Bankuen ahalmen finantzarioa, kontsumitzaileen babesa eta finantza-zerbitzuen hornitzaileen eta bezeroen arteko harremanen gardentasuna ziurtatzeko politikak kontuan izan behar dituzte oso talde ahulen egoerak eta beharrak.

(12) *Financial Services Provisión and Prevention of Financial Exclusion* azterlana egin zuen 2007 eta 2008 artean Réseau Financement Alternatif sareak zuzendutako Europako partzuergo batek. Transakzioetarako kontuak, aurrezkiak eta kreditu-eraztasunak jorratzen ditu azterlanak, eta azken txostena oinarritzen da eurobarometroko datuetan, hamalau herrialdetako (Alemaniako, Austriako, Belgikako, Bulgariako, Erresuma Batuko, Eslovakiako, Espainiako, Frantziako, Herbehereetako, Irlandako, Italiako, Lituaniako, Norvegiako eta Poloniako) egoera xeheki aztertzen duten hainbat txostenetan eta gaikako hamar dokumentutan. Dokumentu guztiak eskuragarri daude, helbide hauetan: http://ec.europa.eu/employment_social/spsi/financial_exclusion_en.htm. www.fininc.eu.

- Gehiegi zorpetutako pertsonen bankuetako oinarrizko zerbitzuak erabiltzeko aukera dutela ziurtatu behar da. Finantza-gaiei buruzko aholkularitza eta hezkuntza landu beharra dago¹³.
- **Finantza-erakundeek gizartearekiko erantzukizuna izan dezaten bultzatu behar da**, eta ikuskatu behar da zer-nolako erantzukizuna hartzen duten gizartearekin.

(13) Nabarmentzekoa da Dolceta programa, finantza-gaietan hezteko eta kontsumitzaileei finantza-merkatua hobeto ulertzen laguntzeko tresna bat. Helbide honetan dago eskuragarri: <http://www.dolceta.eu>.

Azterlanean parte hartu duten pertsonen ekarpenak

- 14. Bazterketa finantzarioak eta bazterketak** eragina dute elkarrengan, baina haien arteko harremanak ez du zertan izan zuzeneko. Hala ere, argi eta garbi dago baztertuta dagoen pertsona batek ezin duela eman behar adina bermerik proiekturen baterako (etxebizitza eskuratzeko, negozio bat sortzeko eta abarretarako) finantzazio nahikoa lortzeko.

Finantzazioa lortzeko, kapitala izan behar da, abal-emaileak izan behar dira edo errentak (gizarte-sareak, etab.) izan behar dira; Besteak beste, horrek adierazten du bazterketa, eta, askotan, bazterketa eragiten du kreditutik baztertuta gelditzeak.

Gaur egun, finantza-zerbitzuak erabili ahal izateak garrantzi handia du ekonomian eta gizartean parte hartzeko, ondasunak eta zerbitzuak gozatzeko eta horiek epe luzean ordaintzeko bide ematen baitu horrek.

Bestalde, baliabide ekonomiko eskasak izanik ere (elkarteen, boluntario-lanaren eta abarren bidez) parte har daiteke gizartean, baina neurri txikia goan.

- 15.** Baztertuta dauden edo baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak ez ezik, herritar guztiek behar dute **finantza-gaiei buruzko aholkularitza eta hezkuntza**, baina baliteke egiteko horrek garrantzi handiagoa izatea diru-sarrerak kudeatzeko zailtasunak dituzten edo/eta dezaketenaren gainetik bizi diren pertsonen eta familien artean, halakoak baztertuta edo baztertuta gelditzeko arriskuan baitaude maiz. Nolanahi ere, moldatzen jakitea eta atzeraldietan gastua murriztea da kontua neurri handi batean.

- 16. Finantza-erakundeek gizartearekiko erantzukizuna** izan dezaten bultzatu behar da, eta ikuskatu eta zehaztu behar da zer-nolako erantzukizuna hartzen duten gizartearekin. Ildo horretan, garrantzizkoa da kreditu-eragiketen esparruko abusuzko jardunbideak kontrolatzea, batetik, ezin ordaindua galarazteko eta, bestetik, pertsonak gehiegi ez zorpetzeko eta, gehiegi zorpetzearen ondorioz, pobrezian ez sartzeko.

Kontua ez da mozkin-marjinak nolanahi lortzea eta gizarte-ekintzaren, korporazioen boluntario-lanaren eta abarren esparruko programak sustatzea gero. Hala ere, gogoan izan beharra dago finantza-erakundeak ekonomia kapitalistaren funtsezko oinarrietako bat direla eta, berez, kapitalari ematen diotela balioa, eta ez pertsoneri. Ekonomia kapitalistaren esparruan, azken finean, ahalik eta aberastasun handienaz jabetzea beste etikarik ez dago.

Gizarte-politikak EAEn

Erabakien eta aldaketen *continuum* baten barnean koka ditzakegu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen gizarte-politikak, guztiz zehaztutako produktu bat eratzen ez duten adierazgarri; aitzitik, etengabe aldatzen ari diren programen multzo bat osatzen dute.

Era berean, berritzaileak eta are aitzindariak izan dira politika horiek neurri batean urteetan. Alde batetik, EAEn bertan, hutsetik abiatu ziren ia pobrezia- eta bazterketaren aurka borrokatzeko programak. Beste alde batetik, Espainia-ko beste autonomia-erkidego batzuetako gizarte-babeserako sistemen aldean, berritzaileak izan ziren Eusko Jaurlaritzaren ekimenak, eta horren lekuko da Euskadiko gobernuak familien gutxieneko diru-sarrerak onartu izana, 1989an.

Hala ere, zenbait azterlanek, hala nola Esther Rayarenak, (Raya, E., 2002) diotenez, laguntza-neurriak izan dira pobrezia- eta bazterketaren aurka borrokatzeko neurriak eta horiek herritarrengan izan dituzten ondorioak, egiturazko arazoak konpontzeko ahaleginak baino.

5.1. Ongizate-estatua¹⁴

Herrialde garatueta gobernu gehienek hainbat neurri hartu dituzte bazterketari, ahuleziari eta beste arazo batzuei aurre egiteko.

(14) Ongizate-estatuari buruzko atala egiteko, besteak beste, EHUko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako kide Gorka Morenoren artikulua (MORENO MÁRQUEZ, G., 2008:143-154) erabili dugu.

Esaterako, herrialde anglosaxoietan, laneratzea sustatu dute, *workfare*aren bidez; hain zuzen ere, zigorrak ezarri dituzte eta gizarte-laguntzen iraupena laburtu dute. Europako herrialdeetan ere laneratzea sustatu dute, enplegu-politika aktiboen bidez, gutxieneko errentaren bidez edo bi neurri-motok erabiliz, baina gizarte-estaldura handiagoa eta oparoagoa da, eta ez hain zigortzailea.

Neurri batean edo bestean, premisa bat onartzen dute erantzun horiek guztiek: **pertsona baten herritartasuna onartuko badugu**, ezinbestekoa da gutxieneko errenta izan dezan bermatzea eta berme hori Estatuak edo administrazio publikoren batek ematea.

Gaingiroki, hiru eredu bereiz ditzakegu ongizate-estatuaren esparruan, hainbat autorek (hala nola, Titmusek, Esping-Andersenek eta Ferrerak) sailkatutako tipologia kontuan hartuz (Moreno, G.: 2008)¹⁵:

1. Lehenengoa **Eskandinaviako herrialdeetakoa** da. Han, gizarte-laguntzen estaldura handia (unibertsaltasuna) nabarmentzen da, zergen bidetik.
2. Bigarrena liberala da, eta gizarte-laguntza du muintzat (**eredu anglosaxoia**). Hari jarraiki, behar gehien duten pertsoneri ematen dizkiete laguntza gehien. Hondarrak besterik ez da gelditzen.
3. Hirugarrena, **Erdialdeko Europako eredua**, langileek gizarte-segurantzari egiten dizkioten ekarpenetan (kotizazioan) oinarritzen da.

Sailkapen hori kontuan hartuz, gaur egun, hiru erantzun-mota nagusi ematen ari dira bazterketari aurre egiteko. Litekeena da hainbaten **helburu nagusia** berdina izatea, **laneratzea**, baina helburu hori lortzeko estrategiak eta programak ezberdinak dira, eta, maiz, are kontrakoak.

Hauek dira erantzunok:

(15) Xehetasun gehiago, autoreon lanetan:

Titmuss, R.: *Política social*, Ariel, Bartzelona, 1981.

Esping-Andersen, G.: *Los tres mundos del Estado de Bienestar*, Alfons el Mangnànim, Valentzia, 1993.

Ferrera, M.: "The four Social Europes: Between Universalism and Selectivity", 1998,

RODEES, M.; MENY, Y. (argit.): *The Future of European Welfare. A New Social Contract?*, Mac Millan Press, Londres.

■ Eredu anglosaxoia (*workfare*)

1990eko hamarkadan, *workfare* edo *welfare to work* delakoa (ongizateetik lanera aldatzea) taxutzen duten gizarte-politikek garrantzi handia izan zuten herrialderik garatuenetan eta, batez ere, AEBetan eta Erresuma Batuan.

Politika horien ezaugarri nagusia da **nahitaezkoa** dela **lanpostu bat izatea** gizarte-laguntzak eskuratzeko, ordainpeko lana (enplegua) hartzen baitute gizarteratzea lortzeko eta, hartara, pobrezian ez egoteko biderik onentzat (eta, agian, bakartzat).

Lehentasuna laneratzeari emate horrek kalte egiten die beste politika batzuei, hala nola diru-sarrerak bermatzeko edo prestakuntza emateko politikei, hitzaren alderik liberal eta gordinenetik egiten baitute hori.

■ Politika aktiboen eredua (Eskandinaviakoa): aktibazioa eta enplegu-politika aktiboak

Hainbat esanahi izan ditzake *aktibazio* terminoak, baina bi dira nagusiak:

- Batetik, laneratzetzat har dezakegu aktibazioa, **enplegu-politika aktiboan** bidetik. Definizio hori nagusitu eta gailendu da esparru honetan diharduten erakunde nagusien barnean.
- Bestetik, **esparru askotan sartzeko prozesu konplexutzat** har dezakegu aktibazioa, ez laneratze hustzat: “El objetivo de la activación es la inclusión social y la movilidad profesional, permitiendo a los y las subsidiadas mejorar sus competencias y sus capacidades, su salud física y mental, de establecer contactos sociales, de mejorar su sentimiento de pertenencia a la sociedad, y su ciudadanía (ayuda a la autonomía)” (EAPN, 2005).

Enplegu-politika aktiboak jaio ziren enplegu-politika pasibo tradizionalak (langabezia-sariak eta erretiro aurreratua) gainditzeko eta hobetzeko. Eskaintzaren eta eskariaren artean egokitasuna izatea dute helburu, enplegu bete ziurtatzeko, eta hori lortzea izan da eta da Eskandinaviako ongizate-eredua zuzentzeko ideia nagusietako bat.

Alor honetan **Europako politika komuna garatzeko erreferentea izan da Eskandinaviako eredua**, eta, horregatik, Europako politikaren ardatz bilakatu dira enplegu-politika aktiboak, lan-merkatua hobetzeko asmoz betiere.

■ Erdialdeko Europako eredia

Gutxieneren eredia da, eta abiapuntuko ikuspegia da gizarte-elkartasunak oso eginkizun esanguratsua duela eta gizarteratzea funtsezkoa dela.

Uste sendo bat da gizarteratzearen inguruko ikuspegiaren abiapuntua: gero eta pertsona gehiago gizarteratzetik kanpo gelditzen direlako eta **gizarte osoak gai horren gaineko erantzukizuna / elkartasun-betebeharra** duelako ustea.

Gizarte-estaldura publikoaren azken mailan (**azken segurtasun-sarean** edo **gizarte-babeserako azken sarean**), **gutxieneren alde** egiten du ereduak. Laguntzeko babesaren esparrukoak dira programak, eta haien helburua da gutxieneren ekonomikoak ziurtatzea eta lan egiteko adina duten pertsona guztiei gizarteratzeko aukera ematea. Hartara, **ongizate-estatua berregituratzeko** ardatz nagusi bilakatu dira gutxieneren alde.

Estatuan, 1990eko hamarkadaren hasiera aldean jarri zituzten martxan gutxieneren alde, autonomia-erkidegoen ekimenez, eta Euskadiko familieren gutxieneren diru-sarrerak osatu zuten lehenengo programa, 1989an.

5.2. EAEko gizarte-politikaren bilakabideko hainbat une¹⁶

EAEren esparruan, pobrezia eta bazterketaren aurka eta gizarteratzearen alde borrokatzeko prozesua bilakatu da laguntza ekonomikoak (azken sarea) eta funtsezko helburutzat laneratzea lortzea duten politika aktiboak konbinatzeko ereduari jarraiki, eta 1980ko hamarkadaren amaiera aldean sortu zen hura.

Alde horretatik, Erkidegoko herrialdeen joera orokorraren barnean dago EAEko gizarte-politika: eredu bakoitzaren berezitasunak eta kulturak kontuan hartuz, ereduak parekatzeko eta guztien artean elkarrekintza handiagoa izatea bultzatzeko joeraren barnean. Hartara, badirudi gutxieneren alde eta enplegu-politika aktiboak konbinatzearen alde egin dugula eta, funtsean, gizarteratzea lan-merkatuan sartzetzat hartzearen alde.

(16) Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko atala egiteko, besteak beste, Jaione Mondragónen argitalpena erabili dugu: *Análisis de políticas contra la pobreza y la exclusión social en la Comunidad Autónoma del País Vasco (1986-2003)*, HAAE, Oñati.

Pobreziaren eta bazterketaren aurkako **politikak eta programak** bilakatu egin dira, eta hainbat etapatan bana dezakegu bilakaera:

1. Lehenik, **laguntza ekonomikoak bakarrik** izan ziren nagusi.
2. Bigarrenik, **gizarteratze-neurriak** hartu zituzten, **lan-arloan** batez ere.
3. Hirugarrenik, **EAEko Gizarteratze Plana (2003-2005)** jarri zuten abian. **Integraltzat** hartu zuten pobreziaren eta bazterketaren aurkako borroka, beste sektore batzuetako neurrien bidez (Mondragón, 2006).
4. Gaur egun, plan eta lege berriak onartzen ari dira, hala nola **Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana (2007-2009)**, **Gizarte-zerbitzuei** buruzko abenduaren 5eko 12/2008 **Legea** eta **Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko** abenduaren 23ko 18/2008 **Legea**.

Bestalde, Jaione Mondragónen esanetan (2006), EAEko gizarte-politika ulertzeko, bada nabarmendu beharreko gai bat: **EAEn onartutako erabakien eta EAEko pobrezia-egoerei buruzko azterlanen eta analisisien arteko korrelazioa**¹⁷.

1980ko hamarkadaren erdialdean, 1996tik aurrera Euskadin pobrezia aztertze-ko eta haren jarraipena egiteko ildo original bihurtu den azterlan baten oinarriak finkatu zituen Eusko Jaurlaritzak: pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkestarenak (PGDI). 1996an bertan, 2000n, 2004an eta 2008an egin du inkesta, baina aipatzekoa da 1986an sortutako azterlan bat ere: *Euskadiko gizarte-arloko egoera txarrei buruzko azterlana*.

1970eko hamarkadaren amaiera aldeko eta 1980ko hamarkadaren hasiera aldeko krisiak taxutu zuen Euskadin pobrezia ofizialki aztertze-ko lehenengo ahalleginaren testuingurua. Izan ere, krisialdiarekin batera, hainbat fenomeno (hala nola langabezia eta pobrezia) birsortu ziren, herrialde garatuetan alde batera gelditu zirenak neurri batean hazkunde ekonomikoko urteetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, langabezia-maila ezdeusa zen ia 1973an, eta, 1984an, berriz, %22,5ekoa zen langabezia-tasa. Langabezia-tasaren gorakadaz gain, bizkortasun ekonomikoaren beherakada jazo zen, eta horren adierazgarri garbiak dira adierazle makroekonomiko orokorrak, hala nola BPGren hazkundea –1975 eta 1985 artean, negatiboa izan zen: -%0,3koa– eta per capita errenta –1973tik 1981era bitartean, jaitsi egin zen–. Laburbilduz, 1970eko eta

(17) “La finalidad de todo trabajo técnico, basado en una investigación en la que grandes sectores de la población se ven afectados, requiere como consecuencia prioritaria, el poder llegar a tomar decisiones que puedan solventar los resultados, sobre todo si son negativos” (Mondragón, 2006:122).

1980ko hamarkadetako krisialdiak egoera berri eta zaila ekarri zuen Euskadira (Eusko Jaurlaritza, 2008-a).

1987an egin eta argitaratu zuten pobrezia buruzko lehenbiziko azterlana, baina ordurako bazen arau-esparru bat. **1979ko** urtarrilaren 15eko **Autonomia Estatutuak** biltzen du EAEk gizarte-zerbitzuen gainean duen eskumena, **1978ko Espainiako Konstituzioaren** babespean. Hain zuzen ere, 1978ko Konstituzioak Euskal Autonomia Erkidegoari egokitzen dio gizarte-laguntzaren gaineko eskumen osoa; adingabeak babesteko eta zaintzeko erakundeentzako antolamenduaren, araubidearen eta funtzionamenduaren gainekoa; eta gizarte-garapenaren, emakumetasunaren eta haurrentzako, gazteentzako eta adinekoentzako politikaren gainekoa.

1982an, **Gizarte-zerbitzuei buruzko** maiatzaren 20ko **6/1982 Legea** onartu zuen. Esku hartzeko esparru hori antolatzeko koherentzia ekarri zuen Legeak, ordura arte ez baitzen halakorik, eta ikuspegi modernoa ezarri zuen zerbitzuon kudeaketa publikoan eta ordura arte berezkoa zuen ongintzako izaera gainditu zuen.

1983an, **Autonomia Elkarte osorako erakundeentzako bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeentzako arteko harremanei buruzko** azaroaren 25eko **27/1983 Legeak** (bestela esanda, Lurralde historikoei buruzko Legeak) izan zuen eraginik arau-esparru horretan, lurralde historiko bakoitzeko foru-erakundeentzako zegoen betebeharra xedatu baitzuen: erakunde komunek gizarte-gaiei buruz ematen zituzten legeak betearaztea (Sotelo, 2005:74).

1980ko hamarkadan, aldaketa esanguratsuak izan ziren gizartean (langabeziak gora egin zuen, hazkunde begetatiboaren tasa ezdeusa izan zen eta gero eta emakume gehiago sartu ziren lan-merkatuan), eta horrek ekarri zuen gizarte-zerbitzuei buruzko lehenengo legea erreformatu eta EAEko gizarte-politikaren ibilbideko lehen urteak aldatu beharra.

1. 1987: Euskadiko gizarte-arloko egoera txarrei buruzko azterlana

Azterlana kontuan izanik hartu zituzten **neurriak**:

- **1988-1992** aldian, POBREZIAREN AURKAKO OSOKO PLANA abian jarritzea. Hauen bidez garatu zuten hasiera batean:

- Familiaren gutxieneko diru-sarrerari buruzko otsailaren 28ko 39/1989 Dekretua, *Euskadi 93ko Europar esparru-hitzarmenaren barnekoa*¹⁸.
- Gizarte-larrialdiko egoerak diruz laguntzea araupetzeari buruzko martxoaren 21eko 64/1989 Dekretua.
- **1990ean**, Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerei buruzko maiatzaren 3ko 2/1990 Legea onartzea.
- **1993an**, POBREZIAREN AURKAKO OSOKO PLANA urtebetez luzatzea.
- **1996an**, Gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea onartzea.
- **2001ean**, Gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehazteko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua onartzea.

Iturria: Bertan egina.

2. 1996: Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta

1996an, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko II. Azterlanaren txostenarekin batera¹⁹, agerian gelditu zen hauek zirela pobrezia-egoerek gehien jotzen zituzten gizarteko taldeak: emakumeak, 25 urtetik beherako pertsonak –pobrezia larrian erortzeko arriskuan zeuden horiek–, bakarrik zeuden pertsonak eta guraso bakarreko familiak.

1998an, **Gizarte-bazterkeriaren aurkako** maiatzaren 22ko **12/1998 Legea** onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, aurreko araudia bateratzeko eta eguneratzeko zuen, Pobreziaren aurkako Osoko Planaren hamar urteetan izandako esperientzia kontuan izanik.

Gizarte-bazterkeriaren aurkako Legeari esker, ekintza-esparru arrunt baten barnean kokatu zituzten bazterketaren aurka borrokatzeko neurri espezifikoak, eta Pobreziaren aurkako Osoko Planaren berezitasuna alde batera utzi zuten.

1990eko Legearen (Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerei buruzko 2/1990 Legearen) aldean, hainbat aldaketa ezarri zituen lege berriak, eta, pentsatzekoa denez, zegozkien eragile batzuk ez ziren bat etorri:

(18) Erakunde artekoa zen EUSKADI 93ko EUROPAN plan berezia: Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, administrazio zentralak eta autonomia-erkidegoez gaindiko beste administrazio batzuek parte hartu zuten. Lau urterako zehaztu zuten, eta bi ekintza-ildotan banatuta zegoen: azpiegiturak eta pobreziaren ondoriozko arazoak aritzeko ekintzak.

(19) Nabarmentzekoak dira, lehen azterlanaren aldean, terminologian izan ziren aldaketak, hainbat pobrezia-maila finkatu baitzituzten: pobrezia larria, ongizaterik ez izateko arriskua eta metatzeko pobrezia.

LEGE BERRIAK EKARRITAKO ALDAKETAK	KONTRAKO IRITZIAK
Aurreko araudiaren aldean, balio esanguratsua eman zieten gizarteratzeko hitzarmenei ²⁰ .	Zalantzan jarri zituzten gizarteratzeko hitzarmenak; batez ere, haien oinarrian egon zedin gizarteratzea gizarte-eskubidetzat hartzea eta hitzarmenak kontrol burokratiko huts bihur ez zitezen azkenerako.
Legearen helburua: azken sarea ziurtatzea, gutxieneko oinarri ekonomikoa bermatzeko.	Kontrakoez salatu zuten Eusko Jaurlaritzak pobrezia-aren ondoriozko arazoak arintzeko politikei ematen zuela lehentasuna, bazterketaren arrazoiei aurrea hartzeko neurririk hartu gabe (Raya, 2002:269).
Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldatarena baino txikiagoa izatea ezarri zuten.	Kontra manifestatu ziren pertsonak uste zuten maila horretako aldaketak egiteko une aproposa zela.
<p style="text-align: center;">Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerei dagokienez, hainbat aldaketa ezarri zituen Legeak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Etorkinek aukera dute gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera eskatzeko, eta nahikoa da EAEn urtebetez erroldatuta egon direla egiazta dezaten –lehen, hiru urte egiaztatu behar zituzten–. • Legeak onartu zuen gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerarako eskubideak iraungo zuela laguntza hori emateko arrazoiek irauten zuten bitartean eta titularrek xedatutako betebeharrak betetzen zituzten bitartean –hasieran, urtebetez iraun zezakeen gehienez ere laguntzak, eta berritzeko aukera zegoen–. 	

Iturria: Bertan egina.

3. 2000: Pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta

Hartutako **neurriak:**

- **Gizarte-bazterkeriaren aurkako Legea garatzea**
 - Azaroaren 10eko 8/2000 Legea.
 - Azaroaren 10eko 9/2000 Legea.
 - Ekainaren 25eko 4/2003 Legea.

(20) "Gizarteratzeko hitzarmenak programa-dokumentuak dira, eta horietan, parte hartzen duten aldeek (onuradunek eta administrazioak), ados jarrita, berariazko gizarte-ekintza batzuk zehazten dituzte, hain zuzen ere, elkarbizitzako unitate ekonomiko independentean bizi diren kideak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko edo horiek baztertuak izateko duten arriskuari aurrea hartzeko".

- **2000n**, Gizarte Eskubideen Agiria onartzea.
- **2003an**, EAeko Gizarteratze Plana 2003-2005 onartzea.

Iturria: Bertan egina.

2000tik aurrera, 2000ko bertako Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan oinarrituta hartu dituzte neurriak. Behin eta berriz, 1996ko txostenak aipatzen zituenak edo haien oso antzekoak izan dira pobreziak eta bazterketak gehien kaltetutako taldeak (tartean, bi hauek bereziki): emakumeak (batez ere, 65 urtetik gorakoak) eta gazteak.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzak aldatu egin zuen Gizarte-bazterkeriari buruzko 12/1998 Legea, eta 65 urtetik gorakoek eta 23 urtetik gorako gazteek laguntzak eskuratzeko aukera izatea xedatu zuen lehenik.

Nolabait, **gizarteratze-politika aktiboen hazkundera** izan zen urte haietako ezaugarria eta, horretarako, **laneratzearen** ildoko neurriak hartu zituzten, hala nola enplegua babesteko neurriak, enplegurako pizgarriak, Auzolan programa eta laneratze-enpresak.

Gizarte Eskubideen Agiria (2000):

1996an sortutako legegintzako herri-ekimen bat izan zen abiapuntua, eta Gogoia plataformak (200 herritar-elkartek osatutako sare batek) bultzatuta sortu zen ekimena. Hartara, **lehen aldiz**, gizarte-arloa arautzeko helburua zuen **herri-ekimen bat sortu zen**.

Bi proposamen egin zituen Gizarte Eskubideen Agiriak, **enpleguari** buruzkoa bata eta **oinarrizko errentari** buruzkoa bestea, eta funtsezkotzat hartu zuen lana, eta lagungarritzat oinarrizko errenta (Mondragón, 2006:145).

Azkenean onartu egin zuten arren, Gizarte Eskubideen Agiriak polemika sortu zuen, enplegua sortzeko eta lana eta aberastasuna banatzeko gizarte-politika aktiboen bidez, Eusko Jaurlaritzaren gizarte-politika errotik aldatu nahi izan zutenen eta gizarte-politika kontinuitate proposatu zutenen artean; lege-proposamenak bazekarren aipatutako gizarte-politika ezartzeko proposamena, baina, azkenean, ordura arteko gizarte-politikaren ildotik etorri zen lege berria.

Bi testuak (Gizarte Eskubideen Agiria prestatzeko lege-proposamena eta 10/2000 Legea) erkatzen baditugu, hainbat gauza interesgarri ikusiko ditugu:

Lege-proposamena	10/2000 Legea
EAEko langabezia- eta pobrezia-egoera azaltzen zuen, zenbakitan.	“Milaka lagunek jarraitzen dute oraindik ere baztertuta, eta izan den hazkunde ekonomiko izanda ere, gehiegizkoa da oraindik ere gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa”.
Helburua: Euskadiko herritar guztiek lana eta oinarrizko errenta izateko aukera izan dezaten ziurtatzea .	Lan-merkatuan sartzea ahalbidetzea eta oinarrizko errenta bat ziurtatzea aipatzen du Legeak helburutzat.
Lana banatzeko politika baten beharra adierazten zuen, ezin eztabaidatuzko moduan.	Enplegua sustatu beharra aipatzen du Legeak eta, horretarako, ekintza positiboko neurriak proposatzen ditu funtsean, laneratzeari bide emateko.
Ez zuen xedatzen behar-egoera egiaztatzeko inolako agiririk aurkeztu beharrik. Oinarrizko errentaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa parekatzen zituen.	Oinarrizko errentaren onuradunak mugatzen ditu eta, oinarrizko errenta eskuratuko badute, eskatzaileek premia-egoera halabeharrez egiaztatu beharra xedatzen du. Oinarrizko errentaren zenbatekoa da lanbide arteko gutxieneko soldatarenaren %75ekoa.
Nahitaezkoa?	Gizarteratzeko eta laneratze eskubidea biltzen du eta, hura erabiltzeko, Euskadiko administrazio publikoek sustatzen dituzten gizarteratzeko hitzarmenetan nahitaez parte hartzera behartzen du.
Oinarrizko errenta unibertuala	Oinarrizko errentaren esanahia gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerarekin lotzen du.

Iturria: Bertan egina, EHAA (2000, 249).

EAEko Gizarteratze Plana 2003-2005²¹

Planaren helburua izan zen nolabaiteko koherentzia ezartzea aurreko neurri guztien artean, eta gizarteratzeko neurri aktiboagoak jartzea martxan, zeharkako politiken (besteak beste, gizarte-zerbitzuen, prestakuntzaren eta enpleguaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta osasunaren alorreko politiken) bitartez.

(21) Arauzko eskakizuna izan zen Plana prestatu beharra. Hain zuzen ere, Gizarte-bazterkeriaren aurkako 1998ko legeak xedatu zuen hiru urtean behin EAEko gizarteratze-plan bat ezarri beharra, baztertuta dauden pertsonak gizarteratzea lortzeko eskumena duten administrazioen esku-hartzea eta jarduera bideratuko zuten ildoak biltzeko, modu koordinatu eta orokorrean (15.1. art.).

Esku hartzeko bi ardatzek egituratu zuten Plana: batetik, baztertuta gelditzeko arriskuan zeuden pertsonentzat eta haientzat baino ez ziren neurri espezifiko guztiek eta, bestetik, gure babes-sistema unibertsalistak, gizarte-zerbitzuak, prestakuntza eta enplegua, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza sendotzeko eta birbideratzeko eta, hartara, egoerarik okerreanean zeuden taldeen artean zuten eraginkortasuna hobetzeko proposamen eta neurri guztiek.

Hainbat baliabide zituzten Plana aurrera eramateko: batetik, **laguntza ekonomikoak** (oinarrizko errenta, gizarte-larrialdietarako laguntzak eta enplegurako pizgarriak) eta, bestetik, beste alor batzuetan (hala nola gizarte-zerbitzuen, prestakuntzaren eta enpleguaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta osasunaren alorrean) landu beharreko **ekintza-programak** (Mondragón, 2006:151).

4. 2004: Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta

Hartutako **neurriak**:

- **2004an**, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzeko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua onartzea.
- **2007an**, Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana onartzea.
- **2008an**, Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzea.
- **2008an**, Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea onartzea.

Iturria: Bertan egina.

Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko 2004ko inkestako datuek adierazten zuten pobrezia-tasek hobera egin zutela epe luzean, egonkor bihurtzeko joeraren barnean baina. Zehatz-mehatz, adierazten zuten, 2000 eta 2004 artean, **pobreziaren halako geldialdia** izan zela, immigrazioaren, etxebizitza garestitzearen eta, neurri batean, pertsonak beregaintasuna lortzeko prozesua desblokeatzearen esparruan. Hala ere, etxe beregainen kopurua handitzea ekarri zuen horrek, eta horietako askoren baliabide propioak ezegonkorrak ziren.

Orduan ere, ama buru zuten guraso bakarreko familiek, etorkinek eta, lanpostu egonkorrik izan gabe, etxebizitza bat zuten gazteek osatzen zituzten talderik kaltetuenak.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea** mota horretako lehenengoak izan ziren Estatuan, eta herritarren gutunen Europako tradizioaren esparruan sortu ziren.

Gutunak ekarri zuen hainbat eskubide formalki onartzea, gizarte-zerbitzuek laguntzen zituzten pertsonen bizitzan oinarritzkoak zirenak: duintasuna, pribatutasuna, isilekotasuna, autonomia, informazioa, beharren ebaluazioa, norberaren neurrirako laguntza-plana, zerbitzuaren kalitatea, parte-hartzea eta eskubideen ezagutza eta babesa.

- **EAEko II. Gizarteratze Plana (2007-2009)**, aurrekoa bezala, sortu zen bazterketak arrazoi anitz dituen ikuspegitik eta Plana erakunde eta sail arteko-tzat hartzetik (Eusko Jaurlaritza, 2007), eta bi ardatz nagusik egituratu zuten. Bereizita zeuden ardatzok baina, aldi berean, elkarren osagarri ziren: batetik, **hausnarketa estrategikoa** eta, bestetik, **ekintza estrategikoak eta estrategiaren eta esku-hartzearen helburuak**.

Bederatzi **printzipiok** oinarritu, zehaztu eta egituratu zuten Erakunde arteko Plana²²:

1. EAEko administrazio publikoek azken urteetan bazterketaren aurka borrokatzeko ezarri zituzten politiken (bereziki, haien edukiaren eta filosofien) **jarraitutasunak**.
2. **Enplegua gizarteratzeko bitarteko nagusitzat hartzeak**.
3. EAEko herritar guztiek **bi eskubide** izateak: babes ekonomikoa eta gizarteratzea eta laneratzea.
4. Ezaugarri pertsonalak (hala nola sexua, adina, jatorria edo pertsonak bizileku zuen udalerria edo lurralde historikoa) alde batera utzita, **zerbitzuak eta laguntzak eskuratzeko aukera berdinak** izateak.
5. **Unibertsaltasunak eta egoerarik okerreanean zeuden sektoreei lehen-tasunez laguntzeak**.
6. Prozeduren kalitate jarraituaren (jarraipenaren, kontrolaren eta emaitzen ebaluazioaren) bidez eta jardunbide egokiak zehaztuz, **kalitateak eta baliabideen optimizazioak**.

(22) Gainera, Gizarte-bazterkeriaren aurkako Legearen eta Gizarte Eskubideen Agiriaren funtsean zeuden ildo orokorretan oinarritu zen.

7. Legezketasun-printzipioak.

8. Bereziki erabiltzaile-elkarteek, batzordeek, elkarteek... gizarteratzeko eta laneratzeko esku-hartze eta prozesu guztietan **parte hartzea bultzatzeak**.

9. **Genero-ikuspegia kontuan hartzeak**, berdintasunik eza deuseztatzeko eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko oro har.

Pobreziaren eta bazterketaren aurkako borrokaren ikuspegitik, II. Gizarteratze Planaren **azken helburua** zen EAEko indizeak biztanleriaren %3tik beherakoak izan zitezten eta, hartara, Europar Batasunaren buruan jar gintezten.

- 2008ko abenduaren 5ean, **Gizarte-zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea** onartu zuen Eusko Legebiltzarrak.

Gizarte-zerbitzuei buruzko lege berria prestatzeko, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak prozesu bat jarri zuen abian. Prozesuaren helburu orokorra zen gizarte-zerbitzuen Euskadiko sarea berriz zehaztea, berregituratzea eta hobetzea, baina bazuen helburu espezifiko bat ere: gizarte-zerbitzuei buruzko EAEko lege berriaren oinarriak finkatzea.

Gizarteak eztabaidatzeko eta parte hartzeko prozesua gauzatzeko, funtsezko bi tresna erabili zituen Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak. Batetik, **www.eraiki.info** web orria sortu zuen, interesa zuten pertsona guztiek aukera izan zezaten prozesuari buruzko berrietan eta agiritan kontsulta egiteko eta gizarte-zerbitzuen Euskadiko orduko egoerari buruzko eztabaida-gunean parte hartzeko.

Bestetik, prozesuari buruz hausnartzeko oinarria izateko, dossier bat prestatzeko agindu zion alor honetako **lan-talde** bati (Eusko Jaurlaritza, 2005), gizarte-zerbitzuen definizioari, eredia gidatu behar zuten irizpideei eta printzipio filosofikoei, eredia antolatzeke egiturari eta hura finantzatzeko moduei buruzkoa.

Aldi berean, **herritarrek parte hartzeko prozesu** bat jarri zuten abian Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saileko Herritarren Partaide-tzarako Zuzendaritzak eta Gizarte Gaietarako Sailburuordetzak, eta, haren esparruan, hausnarketa egiteko eta erabakitzeko bilerak egin zituzten EAEko hainbat udalerritan.

Legeak aipatzen dituen zenbait gai:

	Gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea	Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea
Esparru-ideologia	<ul style="list-style-type: none"> • 1990ekoa, arrazoibide neokontserbadorea 	<ul style="list-style-type: none"> • Estaldura unibertsala, herritar guztientzakoa
Ezaugarriak:	<ul style="list-style-type: none"> • Selektibitatea, eskatzai-learen eta haren familiaren egoera ekonomikoaren arabera • Gizarte laguntza vs eskubide subjektiboa • Gizarte-gasturako aurrekontuaren murrizketa • Ekimen pribatua gizarte-zerbitzuen hornikuntzan sartzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa, herritarren (herritar guztien) eskubide
Helburu nagusia	<ul style="list-style-type: none"> • Lege-esparrua gizartearen egoera berrira egokitzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-zerbitzuetarako eskubidea sustatzea eta bermatzea, gizarte-zerbitzuen Euskadiko sistema sortuz
Kudeaketa/erantzukizuna	<p>Aurreko legean aurkeztutako eredu deszentralizatzailearen egokitzapenak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erantzukizun publikoko sistema, ez duena zertan administrazio publikoak kudeatu 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskumena duten administrazio hiru mailen arteko koordinazioan oinarritutako eredu, laguntzen eta zerbitzuen sare antolatuen baten euskarri • Erantzukizun publikoko sistema, modernoa, aurreratua eta estaldura unibertsala bermatzen duena, herritar guztientzakoa

<p>Justifikazioa</p>	<p>Testuinguru berria gizartean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Langabeziaren hazkundera, industriaren birmoldaketaren emaitza • Biztanleriaren hazkunde begetatiboaren tasa ezdeusazitatea • Gero eta emakume gehiago sartzea lan-merkatua 	<p>Testuinguru berria gizartean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako eta haien senideentzako laguntza • Ahulezia-egoerak eta bazterketa-, marjinazio- eta pobrezia-egoerak (gazteen, emakumeen eta etorkinen artean, etxebizitza-arazoak eta lanaren ezegonkortasuna; eta, adinekoen artean, bakartuta eta bakarrik egotea) kroniko bihurtzea eta adingabeen gatazka-egoerek gora egitea • Gero eta berdintasun handiagoa gizon-emakumeen artean, emakumeak bazterketa-egoeretan (babesgabetasunean, tratu txarretan, indarkerian...) laguntzeko neurriak eta zerbitzuak sustatuz, gizarte- eta familia-arloko laguntza-sarea arinduz eta sendotuz...
<p>Ekimen pribatuaren parte-hartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema irekiago bat sortzea, gizarte-zerbitzuak ematen parte hartu ahal izan dezan ekimen pribatuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekimen pribatuaren gizarte-zerbitzuen esparruko parte-hartzea arautzea: bai parte hartzeko esparrua, bai kontratuak egiteko formulak
<p>Finantzazioa²³</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde publikoak eta erabiltzaileen ekarpenak (erabiltzaileen diru-sarreak eta ondarea, eta are familiarenak) edo beste edozein finantzabide 	<p>Gizarte-zerbitzuen Euskadiko sistemaren finantzazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Administrazioen laguntza finantzarioa • Erabiltzaileek doakoak ez diren zerbitzuak finantzatzen parte hartzea (baterako ordainketa)

Iturria: Bertan egina. EHAA (1996, 218) eta EHAA (2008, 246).

(23) Sektore pribatuak gizarte-zerbitzuetan parte hartzeari dagokionez, Legea proposatzeko prozesuak iraun zuen bitartean, esku hartzeko hirugarren sektoreko hainbat gizarte-eragilek osatutako zenbait gizarte-sarek nabarmendu zuten ekimen pribatuaren barnean bi sektore daudela zehaztu beharra dagoela, eta bi sektoreok argi eta garbi berezita daudela: irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena eta irabazi-asmodun merkataritzako sektore pribatua (EAPN, Gizardatz eta Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Euskadiko Sarea, 2008ko otsaila).

Halaber, administrazio publikoen eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenaren arteko harremanetarako eredu bat aldarrikatu zuten, itunen arabide berezi batean oinarritutakoa.

- Aurrekoena bezala, **Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen** helburua da azken urteotan gizartean izan diren aldaketei erantzutea.

Are gehiago, eredia berriz antolatu beharra planteatzen du Legeak, bi helburu orokor lortze aldera: “Batetik, **bitartekorik egokienak** jarri behar dira, sortu diren premia berriei erantzun egokiagoa emateko modua izateko; bestetik, dagoeneko badiren tresnetako batzuk ezartzean hautemandako **okerrak konpondu** beharko dira” (Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeko zioen azalpeneko II. atala).

Illo berean, Legeko zioen azalpeneko III. atalak dioenez, “itun sozial bat lortu nahi da, **errenten birbanaketa** berma dadin, **prestazio batzuk eta besteak koherenteak** izan daitezen eta herrian herriko edo lurraldeetako egoera jakinen arabera ezberdintasuna sortuko duen urratsik **egin ez** dadin”.

Zehazki, hauek dira Legearen helburuak:

1. “**Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema** indarrean jartzea, sistema autonomo gisa.
2. Ereduaren **oinarriak jartzea**, kontzeptuen, egituraren eta antolaketaren ikuspegitik”.
3. Irtenbide zehatzen bidez erantzutea onuradunen egoera jakinei, **laguntza emateko hainbat modu antolatuz**. Biztanleria bilakatu egin dela ikusten dugu²⁴, eta hiru faktoreren ondorio izan da hori nagusiki:
 - “Lan-merkatuaren prekarizazioarena eta soldata apaleko lanpostuen kopuru gero eta handiagoarena.
 - Prestazioa eskuratu ahal izateko muga ekonomikoa gorago jarri eta, hori dela-eta, familia-unitate batzuek hura eskuratzeko aukera edukitzearena diru-sarrera batzuk izan arren.
 - Prestazioa eskuratzeko gehieneko adina ezabatu eta, horri esker, pentsiodun izan arren bizimodu duina izateko behar den diru-sarre-

(24) Baditugu arazo ekonomiko hutsak dituzten eta, beraz, gizarteratzeko laguntza espezializaturik behar ez duten hartzaileak eta laguntza ekonomikoa zein gizarteratzeko laguntza behar dutenak.

ra eta baldintzarik ez duten pertsonak ere prestazioaz baliatu ahal izatearena.

4. Beharrezko baliabideak jartzea **herritar guztiek tratu bera** jasotzen dutela bermatzeko.
5. Prestazio ekonomiko osagarrien sistema egonkor bat antolatzea, hain zuzen ere diru-sarrerak bermatzeko errenten onuradunek etxebizitzaren **egiturazko gastuekin zerikusia duten gastuei aurre egiteko** modua izan dezaten.
6. **Lan-merkatuan sartzea** erakargarri bihurtuko duen eredu bat ezartzea, nahiz eta soldata apaleko lanpostu baten bidez sartu merkatu horretan.
7. **Zerbitzu espezializatuen** garapena sustatzea, eta eragile guztien lana koordinatzea”.

Gainera, **oinarrizko bi berrikuntza** dakartza Legearen egiturak:

- Batetik, **diru-sarrerak bermatzeko errenta** bi modutan antolatzea.

	HARTZAILEAK	EZAUGARRIAK
Gizarteratze-ko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta	<ul style="list-style-type: none"> • Lan-errentetatik datorren baliabide ekonomiko propiorik ez duten pertsona eta bizikidetzak-unitateak, baldin eta hilerok dituzten diru-sarrerak nahikoak ez badira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Prestazioarekin batera, laguntza espezifikoko batzuk ematen dituzte, gizarteratzen laguntzeko. • Lanbide arteko gutxieneko soldataren mailakoa izan behar du, bizikidetzak-unitatea pentsiodunek osatzen badute; maila horretara ez iristeagatik, haien diru-sarrerak eta egoerak bizimodu duina izateko biderik ematen ez badute; eta, gainera, une horretan lan-merkatuan sartzeko moduan ez badaude pentsiodunak.
Laneko diru-sarrerak osatzeko errenta	<ul style="list-style-type: none"> • Laneko errentarik izan arren, hileroko irabaziaz gizarteratze-ko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren azpitik geratzen zaizkien pertsonak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Prestazioarekin batera, enplegu-zerbitzuen bidez, pertsona horien lan-egoera hobetzen laguntzeko laguntza espezifikoko batzuk ematen dituzte, baita gizarteratzen laguntzeko bestelako laguntza batzuk ere, gizarte-zerbitzuak egoki edo beharrezko irizten badio.

Iturria: Bertan egina. EHAA (2008, 250).

- Bestetik, **etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria**, premiarik handiena dutenei, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenei etxebizitza eskuratzen laguntzeko²⁵.

Azkenik, "testuak **printzipio berriak** jasotzen ditu, ereduak izango dituen ezau-garrientzat oso erabakigarriak:

1. **Eskubide bikoitzaren printzipioa** finkatzea: baliabide ekonomikoak izateko eskubidea eta laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, gizarteratzeko hitzarmen batean derrigorrez parte hartuz (**elkarrekikotasunaren printzipioa**).
2. **Enpleguaren nagusitasuna** gizarteratzeko tresna gisa.
3. Gizarte-arloko politikak aktibatzea eta enplegua errentagarri egitea. Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu izan diren gizarte-arloko politikek –bereziki gizarte-bazterkeriaren aurkakoek– hasiera-hasieratik bere gain hartu duten **erronketako bat**, hain zuzen, **aktibatzea** bera izan da.

Aholku-ematea eta parte-hartzea bideratzeko, **Gizarteratzeko Euskal Kontseilua eratzten da**. Bertan ordezkatuta egongo dira Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak; orobat sindikatuak, enpresaburuak elkarrekin eta erabiltzaileenak, gizarte-ekintzako hirugarren sektorekoak, baldin eta gizarteratze-gaietan esku hartzen badute, eta gizarteratze-arloan lan egiten duten profesionalenak".

5.3. Gizarteratze aktiboa

Lan-merkatuaren bazterretan dauden pertsonak gizarteratzeko estrategia bat da gizarteratze aktiboa, eta Europako Batzordeak sustatu izan du, 2006tik, tes-tuinguru ekonomiko eta sozial jakin batean.

Zera adierazi zuen Batzordeak berak gai honi buruz: "La lucha contra la pobreza y la exclusión social es uno de los grandes empeños de la Unión Europea y sus Estados miembros. Con ocasión de la presentación de la estrategia de Lisboa, en marzo de 2000, el Consejo pidió a los Estados miembros y a la Co-

(25) Hartara, orain arte gizarte-larrialdietarako laguntzen bidez erantzundako behar askori erantzuten die laguntza horrek, **baina bada funtsezko desberdintasun bat: eskubidea da**.

misión Europea que hicieran todo lo posible para erradicar la pobreza y puso una fecha para alcanzar este objetivo: 2010 (...). Sin embargo, **la lucha contra la pobreza y la integración de las personas excluidas del mercado laboral** siguen siendo **un verdadero reto** para la Unión Europea ampliada” (COM (2006) 44 amaiera, 2006/02/08).

Kezka- eta analisi-testuinguru horretan, harago joan zen Batzordea, eta zera baieztatu zuen: **“Subsiste un importante ‘núcleo duro’ de personas** que tienen pocas perspectivas de encontrar un trabajo y que, por esta razón, siguen corriendo un alto riesgo de quedar reducidas a la pobreza y a la exclusión social (...). Se trata, sobre todo, de velar por que las políticas de protección social contribuyan efectivamente a la movilización de las personas capaces de trabajar sin dejar de lado en ningún momento un objetivo más amplio: el de garantizar unos niveles de vida dignos a las personas que se encuentran fuera del mercado laboral y cuya situación no tiene visos de cambiar” (COM (2006) 44 amaiera, 2006/02/08).

Batzordeak berak proposatutako estrategia holistikoa da **gizarteratze aktiboa**, eta hau du helburu: “ayudar a los Estados miembros a movilizar a las personas aptas para trabajar y brindar una ayuda adecuada a las que no lo son. Esta estrategia combina apoyos a la renta a un nivel suficiente para que los afectados puedan llevar una vida digna con vinculaciones con el mercado laboral en forma de oportunidades de empleo o formación profesional y con un mejor acceso a los servicios sociales de capacitación. (COM (2007) 620 amaiera, 2007/10/17).

“... prosigue en este sentido, **la inclusión activa es plenamente complementaria del denominado enfoque de ‘flexiguridad’²⁶**, si bien está orientada a las personas situadas en los márgenes del mercado de trabajo. Constituye lo que podríamos llamar una ‘asistencia social activa’, en la medida en que ofrece itinerarios personalizados hacia el empleo y vela por que las personas imposibilitadas para trabajar puedan llevar una vida digna y contribuir en la medida de sus posibilidades a la sociedad” (COM(2007) 620 amaiera, 2007/10/17).

(26) La flexiguridad puede ser definida como una política estratégica que facilita por un lado, la flexibilidad del mercado de trabajo, organización del trabajo y relaciones laborales y por otro, seguridad- seguridad en el empleo y seguridad en los ingresos. La flexiguridad es un intento de unificar estas dos necesidades fundamentales. La flexiguridad promueve la combinación de mercados de trabajo flexibles, un alto nivel de empleo y seguridad de ingresos. (<http://ec.europa.eu/social/main>)

Hasiera batean, **hiru ardatz nagusi** zeuden gizarteratze aktiboaren gaineko ikuspegiaren muinean, eta **helburua zen lan-merkatutik kanpo gelditutako pertsonen gizarteratze aktiboa sustatzea**:

- **Errentari babes egoki eta nahikoa ematea**, hau da, giza duintasunez bizitzeko baliabide nahikoak izateko eskubidea, kontuan izanik kaltetutako pertsona lanerako edo lanerako prestakuntzarako prest dagoen.
- **Gizarteratze aktiboa**; lan-merkatuan sartzeko aukera ematea, errazago gizarteratzeko; norberaren neurrirako orientazio profesionala eskuratzeko laguntzak eta enplegu-eskatzaileen eta enpresaburuen aldeko pizgarri finantzarioak sustatzea (enplegu-politika aktiboak).
- **Kalitate handiko eta interes orokorreko gizarte-zerbitzuak**; pertsonentzako laguntzak, berriz gizarteratzeko eta laneratzeko jarduerak.

2008ko ekainean, zera adierazi zuen ESKUALDEETAKO BATZORDEAK: “Para que la política de inclusión activa sea óptima se precisa de un **cuarto pilar de carácter transversal: la participación social**” (2008/C 257/01).

Dokumentu horretan bertan Eskualdeetako Lantaldeak baieztatu zuen bat zetorrela Batzordearekin: “**Estos cuatro pilares conforman un enfoque integrado y global**. Así pues, las autoridades deberían buscar el equilibrio entre bienestar social, servicios sociales, servicios comunitarios, así como incentivos económicos y extraeconómicos para trabajar” (2008/C 257/01).


lido berean, zera erantsi zuen: “La integración activa (segundo pilar) es el elemento más importante de la inclusión activa. La inclusión activa se basa en el principio ‘trabajo para poder trabajar’: todo ciudadano sin empleo debe tener la posibilidad de trabajar o de formarse. El primer pilar (apoyo a la renta adecuado y suficiente) y el tercero (servicios sociales de alta calidad) son elementos de apoyo. El cuarto pilar (participación social) es el último recurso de la política de inclusión activa. Los ciudadanos que no puedan trabajar deberían ser asistidos con ayudas económicas y otras medidas para participar en la sociedad” (2008/C 257/01).

Hartara, hauek dira gizarteratze aktiboaren oinarriak:

- Lan egiteko lana, lanik ez duen pertsona orok lan egiteko edo prestatzeko aukera izan dezan.

- Lan egin ezin dutenei laguntza ekonomikoak ematea eta gizartean parte hartzeko beste neurri batzuen bidez laguntzea.
- Gizarte-ekintzak eta gizarte-zerbitzuek lan-merkatuan sartzen laguntzea herritarrei, diru-sarrerak eskuratzeko haien gaitasuna sendotzeko eta gizarte-laguntzekiko mendekotasuna eta pobrezia belaunaldi batetik bestera transmititzeko arriskua murrizteko.
- Lana bilatzeko norberaren neurrirako ibilbideak eskaintzea eta lanerako egoiak ez diren pertsonak bizitza duina izan dezaten eta ahal duten neurrian gizarteari ekarpenak egin diezazkioten zaintzea.

5.4. Grafiko kronologikoa: gizarte-politikak EAEn



Gizarte-bazterketa arrazoi anitzeko kontzeptua eta erakundeartekoa eta sailartekoa da

2000ko hamarkada:

Testuinguru sozioekonomikoa

Bi aldi:

2007-2008 arterakoa (enplegu bete ia)

- 2004an, EAeko langabezia-tasa, Europar Batasunekoaren batez bestekoaren parekoa.

2008 (krisialdi finantzario eta ekonomikoa mundu osoan).

Aldaketak gizartean

- Langabezia-tasak egonkor bihurtzeko joera.
- Halako aurrerapena gizon-emakumeen berdintasunean.
- Erkidegotik kanpoko etorkin-kopuruaren hazkundea.

Gizarte-politikaren ezaugarriak

⇒ Zeharkako gizarteratze-politika aktiboak.

⇒ Laneratzea nagusi: enplegua babesteko neurriak, enplegurako pizgarriak, Auzolan programa, laneratze-enpresak.

⇒ Enpresak laguntzeko ohiz kanpoko neurriak (babes finantzarioa) onartzea eta lanpostu berriak sortzea.

2000: Gizarte Eskubideen Agiria

- Jatorria: legegintzako herri-ekimena.
- Bi proposamen: enplegua eta oinarritzko errenta.

2008: Gizarte-zerbitzuei buruzko Legea

- Gizarteak eztabaidatzeko eta parte hartzeko prozesua.
- Baterako ordainketa.

2007: Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana

- Bazterketa arrazoi ugariaren ondorio dela jotzea.
- Erakunde eta sail arteko plana
- Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako Euskadiko sistema.
- Enplegua, gizarteratzeko tresna nagusi.

2008: Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Legea

- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema.
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta
 - Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errenta.
 - Laneko diru-sarrerak osatzeko errenta.
- Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria.

Grafikoaren iturria: Bertan egina.

Datu estatistikoaren iturria: Eustat, Euskal AEko Txosten Sozioekonomikoa, 2006.

***LGS:** Lanbidearteko gutxieneko soldata; **GGD:** Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerei.

Azterlanean parte hartu duten pertsonen ekarpenak

Gizarte-politikak

- 17. Gizarte-politiken helburu nagusia** da berdintasunik ezaren kontra borrokatzea, eta berdintasunik eza hartu behar dugu eskubideen eta nork bere bizi-proiektua gauzatzeko aukeren artean berdintasunik ez izatetzat. Herritarrek gizartean dituzten beharren arabera izan behar dute gizarte-politikek, eta erantzun egin behar diete.

Gizarte-politikek beste helburu batzuk ere izan behar dituzte kontuan, hala nola baliabideak sortzea, herritarrek haiek eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea eta pertsona guztien gizarteratzea eta autonomia sustatzea.

- 18. Talde bakoitzaren beharren arabera diseinatu** behar ditugu gizarte-politikak, kontuan izanik pertsonak osatzen dituztela taldeak eta hartzen ditugun neurri guztiek pertsonari egin behar dietela mesede.

Estrategien eta ekintzen eraginkortasunaren ikuspegitik, ezinezkoa da banaka-banaka, banako bakoitzaren beharren arabera hartzea neurriak; izan ere, gizarte-politiken helburua da biztanleria osoaren beharrei erantzutea. Hala ere, gogoan izan beharra dago arriskua dagoela pertsonak aurrez finkatutako taldeetan sailkatzeko.

Gizarteratzearen ikuspegitik planteatu behar dugu berdintasunik ezaren aurkako borroka, eta beste laguntza-sistema batzuek ere izan behar dute helburu hori, hala nola gizarte-zerbitzuek eta hezkuntza-, osasun-, prestakuntza- eta enplegu-, eta etxebizitza-sistemak.

- 19.** Gizarte-politiken bidez, **Euskadiko administrazio publikoa** modu eraginkoragoan **erantzuten ari zaio egoera ekonomiko eta sozial berriari** beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino. Alabaina, EAEn bakarrik begiratzen badiogu, esan beharra dago gizarte-politikak ez direla ematen ari erantzun eraginkorra.

Gizarte-politikekarako gastua oso mugatua da; gizarte-zerbitzuen alorrean eratutako sistema garestia eta eraginkortasunik gabea da, eta traketsa aldatetari aurre egiten; gizarte- eta osasun-arloa alde batera gelditu da; osasun-laguntzak okerrera egin du; eta gutxi aurreratu dugu etxebizitzarako eskubidea ziurtatzen, edo batera ez.

Koordinazio falta sumatzen da hezkuntza-, enplegu- eta gizarte-zerbitzuen artean; koordinazio-gabezia handiak eta oso esperientzia gutxi ditugu sistemen arteko elkarlanean; administrazioaren barne-egitura zentzugabea eta eraginkortasunik gabea da erabat, eta zailtasun handiak dakartza horrek gizarte-politikak egoera berrietara egokitzeko.

Gaur egun, benetako distantzia dago gizarte-babeserako eskubidearen eza-gutzaren eta haren estalduraren artean, eta, neurri handi batean, horrek baliorik gabe uzten du eskubide horren erabilera.

Administrazio publikoak sustatu izan ditu neurriak genero-ikuspegiaren, kulturartekotasunaren, belaunaldiartekotasunaren, norberaren bizitza eta lana uztartzearen, zahartze aktiboaren... alorrean, baina ez dirudi nahikoa direnik; ez dago proportziorik jazotzen ari den aldaketaren eta administrazioa ematen ari den erantzunen artean. Sortzen diren beharren oso atzetik doa administrazioa.

20. Pobreziaren eta bazterketaren aurka hartutako neurriek apenas eraldatu dituzte egitura baztertzailak. **Laguntzaren alorrekoak** dira gehienak. Funtsen ekonomikoak diren erantzunak ematea da joera, errazagoa baita arazoari heltzea haren ondorioak arinduz haren jatorriaren edo arrazoien aurka borrokatuz baino.

21. Lau euskarrien (enplegu-politika aktiboen, interes orokorreko gizarte-zerbitzuen, gutxieneko diru-sarreraren egokitasunaren eta erabiltzaileen partaidetzaren) arteko koordinazioan oinarritutako **gizarteratze aktiboa** bideragarriagoa da teoriaran praktikan baino, politika aktiboak diseinatzen ditugulako prestakuntza-maila txikiko lanak onartzera behartzeko eta laguntzak murrizteko.

Beharrezkoa da zeharka esku hartzea bazterketari aurre egiteko, baina ez dakigu ez koordinatuta, ez zeharka lan egiten.

Gizarte-zerbitzuak

22. Gizarte-zerbitzuetarako eskubidea eskubide **galdagarria** da, eta auzitegien aurrean galda daitekeen eskubide **subjektibotzat** taxutu behar dugu, Gizarte-zerbitzuei buruzko Legeak xedatzen duenez hain zuzen ere. Gainera, aurrekontu erabilgarriak ezin du baldintzatu, eta betebeharra ezarri behar die erabiltzaileei, nori bere mailan.

Gizarte-politiken “senide pobrea” izateari utzi behar dio gizarte-zerbitzuetarako eskubideak. Izan ere, ez da kasualitatea, osasunerako edo hezkuntzarako eskubideaz aritzen garen ildo beretik –ez dugu esaten *osasun-* edo *hezkuntza-zerbitzuetarako eskubide*–, gizarte-ongizaterako eskubideaz ez, baizik eta gizarte-zerbitzuetarako eskubideaz aritzea.

Gizarte-ongizatea zer den zehaztu behar dugu, zer beharri erantzuten dien, eta kontraprestaziorik dakarren. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako laguntzen eta zerbitzuen katalogoa zehaztu behar dugu, herritarrek jakin dezaten zer eskubide dituzten.

- 23. Gizarte-zerbitzuak egokiro ezartzeko, beharrezkoa da konpromiso politiko argia hartzea**, politikarien erantzukizuna baita hori. Askotan, gizarte-zerbitzuak oker ezartzea da erakundeek borondaterik ez izatearen ondorio. Alde horretatik, beharrezkoa da, baina ez ezinbestekoa, gizarteak gizarte-zerbitzuak ezartzeko beharrari buruzko adostasun nahikoa lortzea, eta politikariek lehenago hartu behar dute konpromisoa.

Gizarte-zerbitzuak egokiro ezartzea beste faktore baten mendean dago: besteak beste, administrazio publikoko mailen, zerbitzuak ematen dituzten erakundeen (bereziki, hirugarren sektorearen) eta sindikatuen artean **koordinazio hobea** izatearen mendean.

- 24. Gizarte-zerbitzuek gizartean betetzen duten eginkizuna da, hurbiletik, pertsona guztiak baztertuta gelditzeko arriskua txikiagotzen eta gainditzen eta hari aurea hartzen laguntzea.** Are gehiago, hiru funtzio bereiz ditzakegu hiru alorretan: prebentzioa, autonomiaren eta mendekotasunaren alorrean; sustapena, gizarteratzearen eta bazterketaren alorrean; eta arintzea, babesgabetasunaren alorrean.

Funtzio horiek beteko badituzte, beharrezkoa da gizarte-zerbitzuak kudeatzeko gaitasuna duten **langile prestatuak** aritzea gizarte-zerbitzuetan. Komenigarria da gizarte-zerbitzuetako langileek ere har dezaten parte gizarte-politikaren helburuetan, gizarte-lana bera sustatzeko, gehiegizko administrazio-lanaren gainetik.

Gizarte-zerbitzuak tresna burokratikoztat hartzeak zailtasunak dakartza funtzio horiek praktikan betetzeko.

- 25. Diziplina askotakoak** izan behar dute **gizartean esku hartzeko lan-taldeek**, eta hauek eratu behar dituzte, besteak beste: gizarte-langileek, hezitzaileek, pedagogoez, psikologoez, abokatuek, antropologoez, medikuek eta sozio-

logoek. Gizarte-lanean jardutea funtsezkoa da gizartean esku hartzeko lan-taldeetan.

Ikuspegi korporatibistatik bainoago, profesionalen funtzioak eta erantzukizunak zehaztu behar dira profesional bakoitzak esku-hartzearen hartzaileari egiten dion ekarpen espezifikoa ikuspegitik.

Kontuan izanik arlo askotakoa dela bazterketaren jatorria, beharrezkoa da **diziplinartekotasuna**. Garrantzitsua da koordinatuta lan egitea. Ez da nahikoa profesionalak aldi berean pertsona berarekin lan egitea, besterik gabe; aitzitik, koordinatuta esku hartu behar dute, eta lehentasunak ezarri behar dituzte esku hartzeko, erabiltzaileen beharren eta aukeren araberrako irizpide malguzei jarraiki betiere.

26. Osasun- edo hezkuntza-sistema bezala eratu beharko genuke **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema**; hau da, **hezkuntza- eta osasun-arloko laguntzak eta zerbitzuak bezala** planteatu beharko genituzke Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Kartera osatzen duten laguntza eta zerbitzu guztiak, gizarte-eskubideak eskubide subjektibotzat hartzearen muinari eta laguntzen unibertsaltasunari eutsiz betiere.

Alegia, baliteke komenigarria izatea baterako ordainketa edo are beste mota bateko kontraprestazioa ezartzea hainbat baliabideren edo/eta zerbitzuren esparruan, osasun- eta hezkuntza-arloan bezala –hezkuntzaren alorrean, derrigorrezko hezkuntzako etapetan, mantenua, garraioa, etab. ordaindu behar dute erabiltzaileek, eta, osasun-arloan, berriz, sendagaiak–.

Garrantzizkoa da sistema erabiltzeko aukera bermatzea pertsonari, eta, zer laguntzatarako eskubidea duten, haiek eskuratzeko aukera izan dezaten bermatzea.

27. **Erabiltzaileek** gizarte-zerbitzuen sistemako zerbitzuen kostuak **ordaintzen parte hartzeak ez du esan nahi** gizarte-eskubideen **unibertsaltasun-printzipioan atzera egitea**.

Unibertsaltasun-printzipioa eta erabiltzaileek zerbitzuak ordaintzen parte hartzea ez dira bateraezinak, baina, **baterako ordainketa** planteatzeko, kontuan izan behar ditugu zerbitzuak eta zerbitzuak emateko baldintzak, batetik, eta erabiltzaileek ordaindu beharrekoaren zenbatekoa, bestetik. Alde horretatik, aukera bat da laguntza osagarriak bakarrik ordaintzen parte hartzea erabiltzaileek.

Edonola ere, ebaluatu beharra dago ea baterako ordainketak asmoa kenderuko liekeen pertsona jakin batzuei zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko, hala nola adinekoei, eta are presio egingo lukeen gizarte-zerbitzu publikoak ez erabiltzeko; izan ere, baliteke erabiltzaileek ordaindu beharreko zenbatekoa handiagoa izatea dena delako zerbitzuak ezkutuko ekonomiaren esparruan kostatzen dena baino.

- 28. Nagusiki, zergen bidez** finantzatu behar ditugu gizarte-zerbitzuak, baina baterako ordainketa ere planteatu dezakegu. Alde horretatik, erabiltzaileek ordaintzen duten zenbatekoa ezin da izan zerbitzuen kostuaren erdiaren baliokidea, eta, hortaz, kontuan izanik erabiltzaileen ekarpenaren ehunekoia ez litzatekeela izango esanguratsua finantzazio osoaren aldean, ezin dugu esan *sistema misto* batez ari garenik. Are gehiago, baterako *ordainketa* aipatzeak berekin dakar hainbat finantzazio-iturri adieraztea.

Zerbitzu edo baliabide jakin batzuk edo zerbitzuen edo baliabideen zati bat finantzatzeko bakarrik da baterako ordainketa aukera baliagarria, hala nola laguntza osagarriak (ostatua, mantenua, garbiketa...) finantzatzeko, eta gehieneko mugak ezarri behar dira zerbitzuen kostuan. Bestalde, zerbitzu jakin batzuk batera ordaindu beharra ezartzeak ekarriko luke ongizate-estatu arintzea eta prozesuak bizkortzea.

- 29.** Gizarteak iritzi ona izan dezan gizarte-zerbitzuetarako **gastu publikoaren hazkundeari** buruz, beharrezkoa da **herritarrei kontzientzia harrarazteko estrategia** bat antolatzea, pertsonak ikus dezaten gastu publikoak berei ere egiten diela onura, zuzenean edo zeharka. Alde horretatik, zenbat eta onuradun gehiago izan, orduan eta kontzientzia handiagoa izango dute herritarrek.

Gainera, herritarrek hobeto jakingo balute zertan dautzan programak eta zer emaitza eta ondorio dituzten, kontzientziatuago egongo lirateke. Ilde horretan, garrantzizkoa da erantzun argi eta eraginkorrak ematea herritarrei. Are gehiago, gizarte-zerbitzuetarako inbertsioak aritu gintezke, gizarte-zerbitzuen gastuak aritu beharrean.

- 30.** Zerbitzu publikoak azpikontratatu edo/eta kanpora atereaz kudeatzeak **ez du esan nahi Estatua bere erantzukizun publikoa erakunde pribatuen esku uzten ari denik**. Aitzitik, hori egiten duenean, administrazio publikoak baliabideen kudeaketa bakarrik uzten du erakunde pribatuen esku, ez haien gaineko erantzukizuna.

Gizarte-zerbitzuen kudeaketa **azpikontratatzeko** edo/eta kanpora ateratzeko joera oso nabarmen bihurtu da, sektore jakin batzuetan batez ere, baina, administrazioak zerbitzuak zehazten ez baditu, haiek erabiltzeko aukera arautzen ez badu, finantzatzen ez baditu, kontrolatzen ez baditu, etab., litekeena da Estatuaren erantzukizun publikoa argi ez gelditzea, eta are kudeatzaile pribatuen esku geratzea.

Administrazio publikoak gizarte-politikak kontrolatzeko hartu behar dituen neurrien helburuek izan behar dute lan eraginkorra egiten ari dela ziurtatzea, erabiltzaileentzako laguntzaren kalitatea kontrolatzea eta erabiltzaileen prozesu pertsonalak ebaluatzea, luzetarako jarraipen eraginkorrak eginez.

Gaur egun, ordea, kontrol administratibo eta ekonomiko hutsarekin lotuta daude kontrol-neurriak: zenbat pertsona laguntzen dituzten gizarte-zerbitzuetan, zer pertsona-mota laguntzen dituzten, zer baliabide erabiltzen dituzten.

Sektorerik errentagarrienen esparruan ateratzen ari da administrazioa zerbitzuak kanpora gehiegi, eta sektore horietan dago irabazi-asmodun ekimen pribatua gero eta presenteago, hala nola mendekotasun-egoeran dauden pertsonak eta adinekoak laguntzearen alorrean, baina ez bazterketaren aurkako borrokaren alorrean.

Gizartean esku hartzeko hirugarren sektorea

6.1. Terminoak mugatuz: hirugarren sektorea eta gizartean esku-hartzea

Autore asko ahalegindu dira bai hirugarren sektorea, bai gizartean esku hartzea definitzen. Bada, atal honetan, lehenengo zatian, gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreari buruzko hainbat definizio eta ñabardura bilduko ditugu, jakinik, batetik, askotariko erakundeek eratzen dutela eta, bestetik, erakundeok hainbat esparrutako neurri asko hartzen dituztela.

■ Hirugarren sektorea

Hirugarren sektoreko erakundeak definitzen ditugunean, baliteke Johns Hopkins Unibertsitateko kideek “La sociedad civil global” lanean (Lester M. Salamon eta beste zenbait, 2001) egindako ekarpena izatea aipatuenetako bat.

Hain zuzen ere, zera diote azterlan horren egileek:

“Los últimos años han sido testigos del enorme interés suscitado en todo el mundo en torno al amplio abanico de instituciones sociales que actúan fuera de los límites del mercado y del Estado. Conocido de diversas formas: sector no lucrativo, sector del voluntariado, sociedad civil, tercer sector o sector independiente, en este conjunto de instituciones se incluye un gran grupo heterogéneo de organizaciones. No obstante, a pesar de su diversidad, estas organizaciones también comparten algunos rasgos comunes. En particular son:

- **organizaciones;** es decir, poseen una presencia y una estructura institucionales”.


Barne-egitura dute erakuondeok, erakunde bihurtu dira eta helburuak argitu dituzte. Hau da, irizpide honetatik kanpo daude elkartasun- eta laguntza-talde informalak.

- “**Privadas:** tienen existencia institucionalmente separada del Estado”. Erakundeok ez dute osatzen sektore publikoa, eta ez ditu hark kontrolatzen.
- “**No reparten beneficios:** no generan beneficios para sus gestores o el conjunto de titulares de las mismas”. Erakundeon eginkizun nagusia ez da etekinak ematea, eta haien jarduerak ez dituzte gidatu behar merkataritzako helburuek. Etekinik badago, erakundean bertan berrinbertitu behar dituzte.
- “**Autónomas:** controlan esencialmente sus propias actividades”. Erakundeok beren tresnak dituzte, autogobernua eta autonomia-maila esanguratsua ziurtatzeko.
- “**Con participación de voluntarios:** la pertenencia a ellas no está legalmente impuesta y atraen un cierto nivel de aportaciones voluntarias de tiempo o de dinero”²⁷.

Fernando Fantovaren “Tercer sector y política social” artikulua aipatu dugu lehen. Victor Pestoff-ek landutako irudia biltzen du artikulua, hirugarren sektorearen adierazpen grafikoa²⁸, haren eta beste sektore batzuen (hala nola Estatuaren eta merkatuaren) arteko harremanak kontuan izanik:

(27) Ezaugarri horri dagokionez, bat gatoz Fernando Fantovak “Tercer sector y política social” artikuluan adierazitakoarekin (2007:3): “Para evitar confusiones, diremos que, para que denominemos voluntarias a unas organizaciones, **no es necesario que todas o la mayoría de las personas que trabajan en ellas sean voluntarias**. Dicho de otro modo, asumimos que (aquí parafrasea a Rodríguez Cabrero) “el hecho de que muchas entidades sociales no tengan voluntariado no implica que no puedan ser denominadas como organizaciones voluntarias ya que tal denominación se justifica en la libre voluntad organizativa de la sociedad civil”.

(28) Herrera, M. (1998): El tercer sector en los sistemas de bienestar, Valentzia, Tirant lo Blanch, 109. or.



Iturria: Herrera (1998:109), Fantova (2007).

Hauek adierazten ditu irudiak:

- **Estatua**, irabazi-asmorik gabeko esparru formal publikoan.
- **Merkatua**, irabazi-asmodun esparru formal pribatuan.
- **Hirugarren sektorea**, irabazi-asmorik gabeko esparru formal pribatuan.

Autoreak gogorarazten duenez, grafiko horrek adierazten ditu Demetrio Casadok (2003) *Imagen y realidad de la acción voluntaria* lanean aipatzen dituen **lau sektoreak**. *Hirugarren sektore* esaerari buruz hausnartzen du Casadok lan horretan, eta nabarmentzen du gogoan izan behar dugula familiarteko eta komunitateko sareen sektorea eta, hortaz, ez ditugula hiru sektore hartu behar kontuan, lau baizik.

- **Komunitatea**, irabazi-asmorik gabeko esparru informal pribatuan.

José Antonio Rubio Garcíaren hitzetan (2007: 275-287), zera esan beharra dago:

“Si bien las entidades englobadas en el Tercer Sector comparten con las empresas la condición de organizaciones privadas y con el Esta-

do el interés por cuestiones públicas relacionadas con el bienestar social, su característica de organizaciones no lucrativas les distancia de las empresas y su condición no gubernamentales les separa del Estado”.

Hala eta guztiz ere, batzuetan ez da erraza hirugarren sektorearen jarduna merkatuarenetik eta Estatuarenetik banantzea, alor bereizi bat balitz bezala, hirugarren sektoreak enpresekin lehiatu behar baitu hainbatetan gizartea ondasunez eta zerbitzuz hornitzeko eta, askotan, funtsezko eragilea baita Estatuak gizarte-politikak sustatzeko. Gainera, finantzazio publikoarekiko mendekotasun handiegia du. Aurrerago arituko gara horretaz, hirugarren sektorearen indargunez eta ahuleziez mintzatzerakoan.

García Rocak dioenez (aipua: Rubio García, J.A, 2007:280), **lau** jarrera edo **eredu** ditugu **hirugarren sektoreak** Estatuan eta egungo gizartean gertatzen ari diren aldaketa sakonetan **bete behar duen eginkizunaren inguruan**:

- Lehenengo jarrera **kontserbadorea** da. Harekin bat, batez ere, familia da ongizate-iturri nagusia, eta, betidanik, gizartearen beraren egitekoa izan da, ez Estatuarena, egoerarik okerrenean dauden pertsonak laguntzeko erakundeak sortzea.
- Bigarren eredia **neoliberal** da. Ez da fidatzen Estatuarengan, eta gizarte-babeserako sistema desegitearen aldekoa da, eta gizarte-zerbitzuak emateko lana merkatuaren eta gizarte-erakundeen esku uztekoa.
- Hirugarren diskurtsoa **sozialdemokrata** da. Hari jarraiki, Estatuaren ordezkioak dira hirugarren sektoreko erakundeak, administrazio publikoek gizartearen beharrei erantzuten ez badiete betiere; hau da, Estatuak esku hartu ezin duen eremuetan esku hartu behar du hirugarren sektoreak.
- Azken eredia gizarte zibileko sektore jakin batzuen (**ezker berri** delakoa osatzen dutenen) jarreratik sortua da. Haien ustez, beharrezkoa da eragile askok eman ditzaten ongizate-zerbitzuak, Estatuak mugak dituelako, gizartearen eskariak eta beharrak gero eta konplexuagoak eta askotarikoagoak direlako eta, ustez, gizarte zibilak protagonismo handiagoa izan behar duelako gai publikoen kudeaketan.

■ Gizartean esku hartzea

Gizartean esku hartzea zer den definitzeko lehenengo ahaleginean, zera esan dezakegu: talde baten edo lurralde jakin bateko biztanleriaren testuingurua hobetzeko nahitako ekintzen multzoa da.

Xehekiago, kontzeptuan gehiago sakonduz, zera esan dezakegu (Folia Consultores, 2007:117):

1. **Ekintzen multzoa** da gizartean esku hartzea; alegia, pentsatzekoa da koherentzia dagoela ekintzen artean eta ekintzak antolatuta daudela.
2. Gainera, **nahitakoak** dira ekintzak. Hau da, norbaitek (pertsonek, talde batek edo multzo batek) ekitea erabakitzearen ondorio dira.
3. **Testuingurua hobetzea** da helburua. Hots, esan gabe doa aldatzeko proposamena izan dela lehenik, eta hobetzeko proposamenak oinarritu behar du egungo egoeraren analisisan eta zer helmugatara iritsi nahi dugun erabakitzean.

Bestalde, kontua ez da pertsonekin banaka-banaka lan egitea bakarrik, haien testuinguruan esku hartzea ere baizik, eta lurralde edo talde jakin bateko populazioak osatzen du testuinguru hori, edozein taldek eta edozein populaziok. Hartara, laguntzan oinarritutako ikuspegiak (baztertuta edo baztertuta gelditze-ko arriskuan dagoen populazioarekin bakarrik esku hartzeaz) harago dago gizartean esku hartzea.

Norberaren eta taldearen aurrerapenaren gaineko ikuspegi itxaropentsu eta baikor baten barnean dago **gizartean esku hartzea** (Folia Consultores, 2007:119). Folia aholkularien hitzetan, zera esan dezakegu:

- Gizartean esku hartzeko abiapuntua da uste izatea pertsonak (banakoek eta taldeek) beren egoera hobetu dezaketela.
- Gizartean esku hartzeak aurrera egiteko aldaketei bide ematen die; hau da, bai esku hartzen dutenek, bai esku-hartzearen hartzailerek ontzat dituzten gizartearen aldaketei (aldaketa desiragarriei).
- Gizartean esku hartzearen helburua da aldaketak eragitea berehalako epean eta epe ertainean eta luzean, eta, horretarako, helburu praktikoak eta estrategikoak finkatzen ditugu. Hau da, gizartean esku hartze-

ko prozesuen plangintza egiten dugu eta bitarteko helburuak finkatzen ditugu, epe luzeagoko helburuekin koherentzia dutenak.

- Gizartean esku hartzearen helburua da gertatzen diren aldaketen gaineko erantzukizuna baterakoa izatea eta gizartea haien inguruan egituratzea. Alde horretatik, oinarrizko estrategia da **gizarteak parte hartzea**, haren bidez, komunitateak (eta komunitatea osatzen duen banako bakoitzak) bere gain har baititzake aldaketaranzko bidea eta bere bilakaera.

Errealitatea agerraraztea da nola hobetuko dugun erabakitzeko lehenengo urratsa. Alegia, gizartean esku hartzea gauzatzen da gai gatazkatsuei buruzko erabaki kontziente, esplizitu, arrazoizko eta publikoak hartzen ditugunean. Hartara, gizarteak parte hartzea da gizartean esku hartzeko beste bide bat.

■ Gizartean esku hartzeko hirugarren sektorearen bilakaera

Azken urteotan, asko bilakatu da gizartean esku hartzeko hirugarren sektorea, eta, Rodríguez Cabrerok egindako ekarpenei jarraiki (aipua: Arartekoa, 2008:167), honela laburtu ditzakegu sektoreak azken 30 urteotan Espainian egin duen bidearen faseak:

- 1960ko hamarkadan, **gora egiteko fasea** hasi zen. Hazkunde ekonomikoak, kaleko erdi-mailako klaseen gorakadak eta **langile-mugimenduen** indar berriak ekarri zuten mobilizatzeko eta erreibindikatzeko gizarte zibilaren ahalmena indarberritzea.
- 1980ko hamarkada gizartean esku hartzea **sendotzeko fasea** izan zen. Alderdietan oinarritutako sistema berpiztearen ondorioz neurri handi batean, gizartea desmobilizatu egin zen, eta behar berrien kontzientzia harrarazi zuen horrek. Hori dela-eta, antolatze modu egonkorren barnean finkatu zituzten erreibindikazioaren helburuak, hala nola **elkarteen** barnean. Gizarte-zerbitzuei buruzko lehen legeek ez zuten onartu sektorearen garrantzia.
- 1990eko hamarkada gizartean esku hartzea **zabaltzeko fasea** izan zen. Orduan, sektoreko erakunde asko **zerbitzuak emateko enpresa** bihurtu ziren, diru-laguntzen edo itunen bidez. Pixkanaka-pixkanaka, ongizatea ekoizteko bitariko eredia sendotu zen: gizarte-erakundeek gero eta garrantzi handiagoa zuten zerbitzu publikoak ematen, baina kudeaketa ekonomiko profesionala behar zen.

- Egun, gizartean esku hartzea **instituzionalizatzeko fasean** gaude. **Gi-zarte-zerbitzu publikoen kudeaketa pribatua** gero eta sendoagoa da, baita gobernuz kanpoko erakundeen eginkizuna ere, eta lehia sortzen ari da gobernuz kanpoko erakundeen eta enpresa pribatuaren artean. Halaber, badirudi hirugarren sektorea juridikoki arautzen ari direla eta boluntario-lana arautzen ari direla.

EAEko testuinguruan, aldaketa esanguratsuak gertatzen ari dira, eta instituzionalizazio-prozesua harago doala iradokitzen dute aldaketok:

- 2005an, **Gizardatz** eratu zen, Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkartea, baztertuta edo baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonen laguntza-zerbitzu profesionalak ematen dizkieten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak biltzeko, eta, 2006an, esku hartzeko Bizkaiko sektorearen hitzarmen kolektiboa (2006ko martxoaren 24ko BAO-n argitaratutakoa) sustatu zuen.
- Gizartean esku hartzeko **aurrekontuak hazi** egin dira.
- **Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea** onartu dute.
- Erakundeek **eztabaida** sustatu dute **gizartean** Gizarte-zerbitzuei buruzko Legea erreformatzeari eta aldatzeari buruz, eta 2008ko abenduan gizarte-zerbitzuei buruzko lege berria onartzea izan da eztabaida horren emaitza.

6.2. Gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreari buruzko EAEko hainbat datu²⁹

EAE-n, irabazi-asmorik gabeko 898 erakunde ditugu guztira gizartean esku hartzeko hirugarren sektorean, eta, 2006an, 278 milioi euro kudeatu zituzten gutxienez eta 7.879 pertsonarentzako lanpostuak sortu zituzten gutxienez³⁰.

(29) Datuen iturria: Arartekoaren Gizarte Ekintza Sektoreko lan baldintzak txosten berezia (2008:165-181).

(30) Arartekoak azaldu zuenez (2008:167), gutxienez hartu behar ditugu datuok. Izan ere, arartekoaren helburua ez zen sektoreari buruzko datu absolutuak batzea, sektorean dihardutenean lan-baldintzen erradiografia egitea baizik, eta, hortaz, ez zuen unibertso osoarekin lan egin, lagin batekin bakarrik baizik; hau da, arartekoaren azterlanaren helburua ez zen

Desberdintasun handiak daude gizartean esku hartzeko hirugarren sektorearen **barnean** eta, funtsean, hiru faktore dituzte oinarri:

1. Zer **azpisektoretan** lan egiten duten pertsonak, lan-baldintzak baldintzatzen ditu hark; esaterako, desberdintasun handiak daude ezintasunen sektorearen eta gizartean esku hartzeko sektorearen artean –oro har, ezintasunen sektorean dira lan-baldintzak onenak–.
2. **Erakundeen neurria**. Oro har, langile asko dituzten erakundeek hitzarmen propioa izaten dute, eta haietako lan-baldintzak hobeak dira erakunde txikia-goetakoak baino.
3. **Administrazioarekiko harreman-mota**. Faktore hau oso garrantzitsua da. Diru-laguntzen bidez funtzionatzen duten erakundeetan, langileen ezegonkortasuna handiagoa da; administrazioarekin hitzarmena edo ituna egin duten erakundeetan, berriz, oro har, hobeak dira lan-baldintzak.

Gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreari buruzko EAEko hainbat datuk adierazten dute sektorea askotarikoa dela oso, **askotariko erakundeek eratzen dutela eta erakundeok askotariko jarduerak antolatzen dituztela**.

- Euskadiko hiriburuetan eta haien metropoli-inguruan dute egoitza gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreko erakunde gehientsuenek.
- Gehienbat, nork bere probintziaren eta udalerrriaren esparruan esku hartzen dute erakundeek eta, nortasun juridikoaren aldetik, irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira gehienak. Bestalde, goitik beherako ordenan, hauek dira erakunderik profesionalizatuenak: gizarte-ekimeneko kooperatibak, fundazioak eta federazioak.
- Nagusiki, gizarte-zerbitzuen alorrean jarduten dira gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreko erakundeak, horretan jarduten baita haien %44,4; %21,5 lege-, zuzenbide- eta politika-arloan jarduten da; eta %17,1, osasu-

sektorearen neurria finkatzea, hura analizatzea baizik. SIDECek 2002an egindako azterlaneko datuen aldean, bada desberdintasunik, datu hauek eman baitzituen SIDECek: 1.569 erakunde, urteko 520 bat milioiko aurrekontua (gutxi gorabehera, EAEn sortutako BPGren %1,4koa) eta ordainpeko 15.450 lanpostu inguru (EAEko enplegu osoaren % 1,9). Besteak beste, hauek dira desberdintasunen arrazoiak: batetik, gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreari buruzkoa besterik ez zen SIDECen azterlana, eta, bestetik, erakundeen aukeraketa oso murriztailea izan zen eta ez zituzten kontuan hartu ez azpikontrataturako erakundeak, ez nortasun juridiko bikoitza zuten erakundeak.

naren alorrean. Erakundeen %47,1ek helduekin lan egiten du batez ere; %19,1ek, adinekoekin; eta %16,5ek, gazteekin. Azkenik, ezintasun-egoeran ere dauden pertsonekin lan egiten du erakundeen %43,7k, eta baztertuta ere daudenekin %37,6k.

Sektorearen alderdi ekonomikoa

- Administrazio publikoa da erakundeak funtsez hornitzen dituen iturri nagusia eta, hainbatetan, bakarra; hain zuzen ere, funtsen %71,6 ematen du administrazioak, diru-laguntzen bidez –horrela ematen du funtsen %57,3– edo hitzarmenen eta itunen bidez –horrela ematen du %14,3–.
- 2006an, aurreko urtean baino %12,3 diru gehiago kudeatu zuten gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreko erakundeek³¹; zehazki, 278.421.262 euroko zenbatekoa kudeatu zuten.
- Hitzarmen propioa duten erakundeek kudeatzen dute diru gehien, handienak direla-eta, eta diru guztiaren %60,3 kudeatzen dute. Gizartean esku hartzen eta adinekoekin lan egiten dutenak ere garrantzitsuak dira diru gehien kudeatzen dutenen zerrendan, hurrenez hurren, %17,2 eta %8,3 kudeatzen baitute.
- Eraitza guztiek adierazten dutenez, irabazi-asmorik gabeko egituraren zati txiki batek kudeatzen du sektorearen aurrekontu osoaren oso ehuneko handi bat: langile eta erabiltzaile asko dituzten oso erakunde profesionalizatuek.

Gizartean esku hartzeko hirugarren sektorearen lan-arloko ezaugarriak

- Beste ekoizpen-sektore batzuetan baino askoz ere emakume gehiagok dihardute sektore honetan, eta emakumezkoak dira soldatapean edo boluntario aritzen diren langile gehienak. Arartekoaren azterlanerako erabilitako lagina, adibidez, 7.879 lagunekoa zen, eta horietako 5.389 (% 68,4) emakumezkoak ziren, eta 2.490 (% 31,6), gizonetzkoak; bestela esanda, ia hamar langiletan zazpi emakumezkoak dira sektore honetan.

(31) Ararteko (2008:85): “Datu hori adierazle modura hartu behar da, laginaren datuak bakarrik biltzen dituelako (guztiaren %32, nahiz eta profesionalizatutako erakunde gehienak eta erakunde handiak bildu dituen). Ondorioz, gutxieneko bat bezala hartu behar da, sektoreak gutxienez kudeatzen duen bolumen modura”.

- Langileen prestakuntza txikia da, eta erakunderik handienetan eta ezintasunen eta adinekoen azpisektoreetan aritzen direnek egin dituzte prestakuntza-prozesurik estandarizatuenak.

6.3. Gizartean esku hartzeko hirugarren sektorearen EAEko indarguneak eta ahuleziak

Gizartean esku hartzeko hirugarren sektorea eratzen duten erakundeen **indarguneen** artean, hauek dira nabarmentzekoak:

- Gizarte zibilaren baitan sortzen den gizarte-ekintza bideratzeko eginkizuna betetzen dute gizartean eta, horrexegatik, “antenen” modukoak dira, gizartearen behar eta arazo berriak **hautematen** eta haietaz **ohartarazten** dutenak, gizartearen errealitatetik eta egoerarik okerreanean dauden taldeengandik hurbil daudela eta.
- **Askotariko** taldeak daude gizartean, eta zeinek bere ezaugarriak eta egoerak ditu.
- Erakunde askok **esperientzia luzea** izan dute, eta horrek esan nahi du jardunbide egokiak ikasi eta metatu dituztela eta jakintza berenganatu dutela.
- Gizartean sortzen diren behar berrietara **egokitzeko** eta haiei azkar erantzuteko **gaitasuna** dute erakundeek, bertatik bertara berenganatutako jakintzan oinarrituz bereziki, eta malgutasun eta sormen handia dute.
- Kanalen modukoak dira, gizartean egoerarik okerreanean dauden taldeek haien bidez hitz egin dezaten. Ildo horretan, taldeon eta Estatuko eta esparru politikoko administrazio-egituren arteko **bitartekariak** dira.
- Egitura ezin aproposagoak dira **herritartasun aktibo**, demokratiko, pluralista eta barneratzailea eratzeko.
- **Gizarte-sareak** eratzen dituzte.
- Erakundeetan parte hartzen duten pertsonak **gero eta profesionalizazio-maila handiagoa dute**.
- **Sindikatuak** ere hasi dira sektoreko lan-baldintzak hobetzeko lanean.

Gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreko erakundeen **ahuleziak**, berriz, hauek dira:

- Langileek **prestakuntza eskasa** dute.
- Administrazio publikoekiko **mendekotasun handia** dute.
- **Harreman tekniko eskasa** dago erakundeen eta administrazio publikoaren artean.
- Zuzendariak **kultura eskasa** dute **enpresa-arloan** (askok ez dute eginkizun hori beren gain hartu nahi), eta langileek, sindikalismoaren alorrean (oso gutxi daude afiliatuta, baina gero eta gehiago).

Gizartean esku hartzeko hirugarren sektorearen aurkako kanpo-mehatxuak

- **Finantzazio publikoko sistema** (administrazio publikoak diru-laguntzak ematen atzeratzea eta urtean behin ematea funtsak). Txandaketa handiagoa da sektorean, langileen segurtasunik eza eta erakundeek kontratu mugagabeak egiteko zailtasunak direla medio.
- **Irabazi-asmoak dituzten erakundeak** sektorean sartzea. Egiazko mehatxuztat dute hori irabazi-asmorik gabeko erakundeek.
- **Gastu publikoari eustea.**
- Gizarte-politikek **gehiegizko arreta** jartzea talde jakin batzuetan.

Gizartean esku hartzeko hirugarren sektorearen aldeko kanpo-aukerak

- **Mezenasgo sozialaren** gorakada. Datozen urteotan, gora egingo du mezenasgo sozialak, aurrezki-kutxetako gizarte-ekintzako sailen artean ez ezik, baita korporazio handien artean ere, korporazioen gizartearekiko erantzukizuna dela medio. Mesede egingo lioke gizarteari, baina konplexua litzateke lege, koherentzia izan zedin korporazio handien mezenasgoaren eta administrazioak eta hirugarren sektoreko erakundeek elkarrekin zehazten dituzten helburuen artean.
- **Teknologia berriak** sartzea informazioa eta jakintza kudeatzeko sistemetan.

	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
BARNE BALDINTZATZAILEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-ekintza bideratzeko eginkizuna betetzea gizartean • Askotariko taldeak • Esperientzia luzea • Behar berrietara egokitzeko eta haiei azkar erantzuteko gaitasuna • Kanalen modukoak izatea, gizartean egoerarik okerrenean dauden taldeek haien bidez hitz egin dezaten • Egitura ezin aproposagoak izatea herri-tartasun aktibo, demokratiko, pluralista eta barneratzailea eratzeko • Gizarte-sareak eratztea • Erakundeetan parte hartzen duten pertsonen gero eta profesionalizazio-maila handiagoa • Sindikatuak ere sektoreko lan-baldintzak hobetzeko lanean hasi izana 	<ul style="list-style-type: none"> • Langileen prestakuntza eskasa • Administrazio publikoekiko mende-kotasun ekonomiko handia • Harreman tekniko eskasa erakunde- eta administrazio publikoaren artean • Zuzendariek kultura eskasa izatea enpresa-arloan (askok eginkizun hori beren gain hartu nahi ez izatea), eta langileek, sindikalismoaren alorrean (oso gutxi egotea afiliatuta, baina gero eta gehiago).
	AUKERAK	MEHATXUAK
KANPO BALDINTZATZAILEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Mezenasgo sozialaren gorakada datozen urteotan • Teknologia berriak sartztea informazioa eta jakintza kudeatzeko sistemetan 	<ul style="list-style-type: none"> • Finantzazio publikoko sistema (administrazio publikoak diru-laguntzak ematen atzeratzea eta urtean behin ematea funtsak) eta, horren ondorioz, txandaketa handiagoa izatea sektorean, langileen segurtasunik eza eta erakundeek kontratu mugagabeak egiteko zailtasunak direla medio • Irabazi-asmoak dituzten erakundeak sektorean sartztea, egiazko mehatxu irabazi-asmorik gabeko erakundeen ikuspegitik • Gastu publikoari eustea • Gizarte-politikek gehiegizko arreta jartzea talde jakin batzuetan

Iturria: Bertan egina.

Azterlanean parte hartu duten pertsonen ekarpenak

Erakundeen zerrenda luze batek eratzen du gizartean esku hartzeko hirugarren sektorea, eta askotariko jarduerak antolatzen dituzte erakundeok, askotariko alorretan, baztertuta daudenen edo azkenerako baztertuta egon daitezkeen egoera hobetzeko.

EAEEn gizartean esku hartzeko hirugarren sektorea osatzen duten erakundeen **INDARGUNE**etako bat da hainbat **funtzio** betetzen dituztela edo bete ditzaketela **gizartean**, dela **beren kabuz**, dela **gizarte-sareen** esparruan.

31. Besteak beste, hauek dira hirugarren sektorearen funtzioak:

- **Gizartearen behar eta arazo berriak hautematea eta haietaz ohartaraztea.** Errealitatearekiko zuzeneko harremana du hirugarren sektoreak, bai laguntzen dituen pertsonen bidez, bai hainbat erakunde bazterketa eragiten duen ezaugarriren bat duten pertsonak (atzerritarrek, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek, ezinduek...) eratzen dituztelako.

Alde horretatik, hirugarren sektoreko erakundeak funtsezkoak dira **persona horiek egoera ikusarazteko**.

- **Bazterketa-egoerak aldarrikatzea eta salatzea.** Baliteke horixe izatea, herritarrei bertatik bertara **kontzientzia harrarazteko** eginkizunarekin batera, hirugarren sektoreko erakundeen egitekorik garrantzitsuenetako bat. Hala ere, zailtasunak dituzte funtzio horiek betetzeko, erakunde publikoekiko mendekotasun ekonomiko handia dutelako gaur egun.

Aldarrikatzeaz eta salatzeaz gain, hirugarren sektoreko erakundeen eginkizuna bada eskubideen aitortza sustatzea, gizartearen babes informala ematea (boluntarioak antolatzea, elkar laguntzea, etab.) eta erantzukizun publikoaren barneko eta kanpoko gizarte-zerbitzuak ematea ere.

- **Egoerarik okerreanean dauden taldeen eta administrazio publikoaren artean bitartekari aritzea.** Litekeena da hirugarren sektoreko erakundeen eginkizun nagusietako bat ez izatea hori, baina elkarlanaren ikuspegitik planteatzen dezakegu, taldeon beharrak esplizitukiago agerraraztearen eta are haiei "erantzuten" parte hartzearen ikuspegitik.

Bitartekari-lan horretan, hirugarren sektoreko erakundeak ezin dira izan laguntzen dituzten pertsonen bozeramaile; aitzitik, horiek beren kabuz hitz egiteko guneak sortu behar dituzte.

- **Herritartasun aktibo eta pluralista eratzea.** Gizarte-sareen berezko funtzioztat hartzen genuen lehen, baina erakundeen lehen mailako eginkizuntzat hartzen dugu orain. Izan ere, hirugarren sektoreko erakundeek funtsezko egitekoa dute pertsonen parte-hartzearen antolaketan.

32. Besteak beste, hauek dira **gizarte-sare formale**n funtzioak:

- **Egitura ezin aproposagoak izatea herritartasun aktibo** eta barneratzailea eratzeko. Litekeena da helburu hori teorikoa izatea eta *desideratum* kolektiboak banean hartzea, baina ez da egiazkoa.
- **Gizarteratzearen alde lan egiten duten erakundeak gizartean areago ikusaraztea.** Gizarte-sareek funtsezko eginkizuna betetzen dute gizarteari gizarte-erakundeen lana jakinarazten, baina ahalegina egin behar dute eta, kanpo-komunikazioa hobetzeaz gain, barne-komunikazioa ere hobetu behar dute.

Hainbatetan, asko baldintzatu dezake beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzeak, baina, egia esan, batasunak indarra dakar. Alde horretatik, beste erakunde batzuekin ez ezik, beste sare batzuekin ere aritu behar dute elkarlanean gizarte-sare formalek.

Are gehiago, eragile-lana egiten duen kohesiodun sare bat agerrarazteko garrantzia ere planteatu dezakegu. Sare hori bitartekari arituko litzateke auzi askotan, Confebask konfederazioak egiten duen lanaren ildoan, nahiz eta osatzen duten kideak administrazioari zerbitzuak emateko lehian aritu.

- **Administrazio publikoaren aurrean bazterketa-egoerak salatzea eta gizartean esku hartzeko erakundeen aldarrikapenen bozeramaile izatea.**

Gizarte-sareek ezin dute salatu bakarrik egin; aitzitik, **pertsona guztien eskubideak sustatu** ere egin behar dute.

Besteak beste, hauek dira gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreko erakundeen **AHULEZIAK**:

- 33.** Bazterketa-egoerak aldarrikatzea eta salatzea da hirugarren sektoreko erakundeen eginkizunetako (indarguneetako) bat, baina **administrazio publikoekiko mendekotasun ekonomikoak** horretarako ahalmena **txikiagotzen** du.

Gobernuz kanpoko erakundeen ahulgune nagusia da mendekotasun ekonomiko hori, eta eragin handia du, batez ere, salaketaren jomuga bada erakundeak kudeatzen duen zerbitzuaren gaineko erantzukizuna duen administrazioa. Alabaina, finantzazioa behar bezala arautzen dugun neurrian, baliteke erakunde publikoek zigorrak jartzeko ahalmen txikiagoa izatea eta, hartara, hirugarren sektoreko erakundeek salatzeke ahalmen handiagoa izatea.

- 34. Tentsio-harremana** dago administrazio publikoaren eta hirugarren sektorearen artean: batetik, administrazioak zerbitzuak eskuratzen ditu, kostu txikiaren trukean, eta, bestetik, hirugarren sektoreak zerbitzu asko kudeatzen ditu, egonkortasunik gabeko egoeran baina. Zerbitzuak kanpora ateratzearen eta kudeaketa behar adina ez kontrolatzearen ondorio da hori.

Kudeaketa kanpora ateratzeko irizpidea ezin da izan soldaten kostuak murriztea; aitzitik, lanaren alderdi guztiak hartu behar dira kontuan.

Hirugarren sektorearen aldeko apustua ez da oinarritzen gizarteari egiten dion ekarpenaren eta gizartean betetzen dituen eginkizunen ezagutzan; aitzitik, neurri handi batean, administrazioaren eta hirugarren sektoreko erakundearen arteko harremanean oinarritzen da. Alde horretatik, ikusteko eta zorrotz zehazteko dago zer etekin dakartzan hirugarren sektorearen kudeaketak.

Erakundearen eta administrazioaren arteko harremana ez da berdina beti, desberdintasun handiak baitaude sektoreen artean, egonkortasunik ezaren aldetik: esaterako, adimenaren ezintasunen bat duten pertsonekin edo adinekoekin lan egiten dutenak egoera hobean daude baztertuta edo babesgabe dauden pertsonekin lan egiten dutenak baino. Egia esan, egin dugu ahaleginik sektore jakin batzuetako lan-baldintzak hobetzeko, baina arazoa oso larria da, eta desberdintasunak, oso handiak.

Profesionalen artekoak ere dira aldeak, hala nola hezitzaileen eta etxeko laguntzaileen artekoak, eta, haien artean, prestakuntzaren aldetik ere daude desberdintasunak. Halere, ezin dugu onartu, "gizarte-zerbitzuen sistema"

bakarraren barnean, langile baten lan-baldintzak askoz okerragoak izatea beste batenak baino, funtzio berberak betetzen badituzte.

- 35.** Administrazioa eta gizarte-ekimeneko erakundeak harremanetan egoteko sistemak antolatu behar dira, eta **argitu zein den bataren eta besteen egin-kizuna**. Garrantzizkoa da zehaztea norainokoa den administrazio publikoen erantzukizuna gizarte-ekimeneko erakundeek egiten dituzten jardueren gainean edo zer funtzio betetzen duten erakundeok administrazio publikoen ardurapeko zerbitzuak ematen eta are “ongizatea emateko sistema mistoan”. Azken batean, aurrez ikusita dago gizarte-ekimeneko erakundeek gizarte-zerbitzuen Euskadiko sisteman parte har dezaten, bai zerbitzuak ematen, bai sistemaren plangintza, ebaluazioa, etab. egiten.

Beharrezkoa dirudi administrazio publikoek hirugarren sektorea sustatzeko politika bat jar dezaten abian, aurrera egiteko hirugarren sektoreko erakundeek, enpresekin (merkatuarekin), administrazio publikoekin eta bizi-munduekin (elkartek, erakundeak, enpresak... bitartekari ez dituzten elkar laguntzeko harreman informalekin) batera, gizarte-eragiletzat duten garrantzia eta gizartean betetzen duten eginkizuna ezagutzen.

Halaber, komenigarria litzateke, gobernantzaren ikuspegitik, administrazio publikoen eta gizarte zibil antolatuaren arteko harremana berriz aztertzea, besteak beste, ez daitezen sor elkar elikatzen duten bitariko interes-taldeak (publiko eta pribatuak).

Alde horretatik, gizartean esku hartzearen esparruan **irabazi-asmoak dituzten erakundeak** sartzea da gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreko erakundeek aurre egin behar dioten **MEHATXUetako** bat.

- 36.** Irabazi-asmo hutsak dituzten ekimenen aurretik, **irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenaren parte-hartzeak** izan behar du **lehentasuna** erantzukizun publikoko zerbitzuen kudeaketan, betiere, berdintasuna badago profesionaltasun-irizpideen, kalitatearen, eraginkortasunaren, kudeaketaren gardentasunaren... aldetik eta pertsoneri zerbitzu egiteko eta pertsonak errespetatzeko lan egiteko ikuspegitik lan egiten badugu.

Lehentasuna ekimen-mota bati emateak ez du esan nahi lehentasuna ez dutenak baztertuta gelditzen direnik. Alderantziz, ekimen-mota guztiak dira

onargariak, baina kontuan izan behar ditugu lehen aipatutako gaiak, erakunde bakoitzaren esku-hartzea ebaluatzeko balio baitute. Irabazi-asmorik ez izateak ez du esan nahi erakundeak egokiro jarduten direnik edo asmo onekoak direnik per se. Era berean, irabazi-asmoa izatea ez du esan nahi erakundeek desegokiro jokatzeko dutenik.

Azkenaldian, ohikoa da, zerbitzu jakin bat kudeatzeko, erakunde bat edo bestea (irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo irabazi-asmodunak) auzeratzeko irizpidea izan dadin "kalitate- eta kostu-baldintzak berdinak" izatea, baina ez ditugu zehaztu kalitatearen oinarritzko parametroak, eta, horregatik, arriskua dago benetako garrantzia duen irizpide bakarria izan dadin zerbitzuaren prezioa.

Ez dugu kontuan hartzen zenbat denbora daraman erakunde batek lurralde jakin batean esku hartzen edo talde jakin batekin lan egiten, haren esku-hartzea osokoa den, etab.

Bestalde, administrazio publikoak asko hobetu beharra dauka kontratazioaren, itunak egitearen eta abarren ikuspegitik, eta sisteman sartzeko irizpideak, jarduera-mailak, emaitzen adierazleak, kexak aurkezteko sistemak... ezarri behar ditu. Beharrezkoa da diru publikoaren erabilera gehiago eta hobeto kontrolatzea.

Gizarteratzea Sartu-ren ikuspuntutik

Aurkeztu dugun gizarteratzeari buruzko azterlan honi esker, Sartu Federazioan egiten ditugun lanekin zuzenean loturik dauden hainbat arlori buruzko gogoeta egin eta elkarrekin ezagutu ahal izan dugu. Baina, gure ustez, ezinbestekoa da azterketa-prozesu honek eta bertan jaso dugunak zer iradokitzen diguten adierazteko beste ahalegin bat egitea. Azkeneko atal honetan horietako batzuk aipatuko ditugu, nahiz eta badakigun jakin ez daudela lan honetan jaso diren guztiak, baina bai guretzat funtsezkoak direnak.

Beste alde batetik, ez genuke nahi izango gogoeta-prozesu hau dokumentu baten espazio itxi batean geratzea, eta aurrerago egin beharreko azterketa jarraituago eta zabalagoaren oinarri izatea espero dugu.

■ Eredu ekonomiko sozial eta finantzarioaren krisia

Galdera bat:

Hamabigarren mendean, Siziliako erresumako geografo ofizialak, Al-I-drisik, munduko mapa marraztu zuen, Europak ezagutzen zuen mundua, hegoa goian eta iparra behean zituela. Hori oso ohikoa zen garai hartako kartografian. Eta horrela, hegoa goian zela, marraztu zuen hegoamerikako mapa Joaquín Torres-Garcia margolari uruguaydarrek, eta halaxe esan zuen: "Nuestro norte es el sur, para irse al norte, nuestros buques bajan, no suben". *Si el mundo está, como ahora está, patas arriba, ¿no habría que darlo vuelta, para que pueda pararse sobre sus pies?* (Galeano, E., 1998).

Pertsona gehientsuok bat gatoz gauza batean: honetaraz gero, gizateria bizi izaten ari den mutur-muturreko egoera honetara iritsi izana estu-estu lotuta dagoela gure premiak asetzeko balio duten ondasunak ekoizteko eta banatzeko moduarekin. Hau da, ekonomiarekin zerikusia dauka, eta zehatzago esanda, ekonomia kapitalistarekin. “Un capitalismo, que no ha sido capaz de satisfacer las necesidades materiales más elementales de la población, ni hay visos de que lo consiga jamás” (García Jane, J., 2009).

Azken urteotan litekeen modu guztietan bizi izan dugu eredu hori; bai zabale-
ra geografikoari dagokionez, bai sakontasunari dagokionez (gure bizitzan den
-dena dago eredu horretako printzipioek zipriztinduta). Elkartasuneko Mundu
baten aldeko ekimena” Elkartasun Gutunean³² jasotzen den bezala, gaur egun
gizateriak eredu horrek eragindako **erronka** garrantzitsuei egin behar die au-
rre: arlo **ekonomikoan** (tokiko edo nazioetako ekonomien narriadura, nazioz
gaindiko finantza-taldeen mesedetan, kapitalari lehentasuna emanez lanaren
kaltetan, merkatuen desarauketa...); **enpleguaren** alorrean (lan-baldintzen na-
rriadura, gero eta langabezia handiagoa, gizarte-lehiakortasun desleiala...); arlo
sozialean (kontinenteen artean eta herrialdeetan bertan ere, gero eta desber-
dintasun handiagoarekin banatzen dira ondasunak, bazterkeria, isolamendua,
indarkeria...); **gizakion** alorrean (etorkizunerako iguripenik eza, kontsumismoa,
indibidualismoa, balioen galera...); arlo **politikoan** (botere publikoen eta klase
politikoaren ekintzen balio-galera, demokraziaren eta herritartasun-kontzep-
tuaren ahulezia...); **ingurumenaren** arloan (ingurumenaren narriadura azkarra,
hondakinen metaketa, baso-soiltzea, bioaniztasunaren murriztapena...). Eta
oraintxe beste bat gehituko diogu, **finantzen** alorrean (pobrezia edo zortzapen
-egoeran dauden pertsonen finantza-bazterkeria eta gehiegizko zorpetzea).

Horren ildotik, baieztatu dezakegu gure gizarteak bazterkeria-eragileak direla,
gaztelaniaz *exclusógenas*³³, hau da, bazterkeria sortzen dutela. Bazterkeriari
buruz hitz egitean derrigor aipatu behar da gaur eguneko sistema sozioekono-
mikoa, eta finean, egitura ekonomiko eta sozial bidegabe eta baztertzailak.
Gehieneko etekinean eta errentagarritasunean oinarritzen den ereduari buruz
ari gara, aberastasuna aldi berean pobrezia eraginez soilik sortzeko gai dena,
eta gizarte dual baten oinarria dena: herritarren parte bat hartzen du barnean,
beste parte bat kanpoan uztearen pentzuan.

(32) http://www.economiasolidaria.org/carta_solidaria_webgunean

(33) Julio Alguaciles eta beste batzuk, Foessa Fundazioarentzat, 2000. urtean egindako “Las condiciones de la población pobre desde la perspectiva territorial” azterlanean sortutako neologismoa.

Horren ildotik, gure ustez, pairatzen ari garen krisialdiak aspaldidanik hainbat eremutatik ikusten ari ginen gaiak azaleratu baino ez ditu egin. Hori dela eta, eta agian inoiz baino argudio gehiagorekin defendatzen dugu gizarte-eredu berri bat eraiki behar dugula lehenbailehen; ekonomia gizartearen zerbitzura, pertsonen zerbitzura –eta ez alderantziz– egongo den eredu bat.

Paradigma aldaketa horren oinarriak eraikuntza teorikoa izan behar du, konzientzia berri bat eragin eta piztuko duen ideologia bat (Dubois, A., 2009). Helburu horrekin, lehen aipatutako Elkartasun Gutunean deskribatzen diren printzipioen alde gaude:

- **berdintasuna** (pertsona protagonista guztien interesak modu orekatuan asetzea: langileak, enpresa-buruak, elkarteko bazkideak edo enpresaren akziodunak, bezeroak, hornitzaileak, tokiko, nazioko eta nazioarteko erkidegoa...),
- **enplegua** (enplegu egonkorrak sortzea eta beharizan handiena edo kualifikazio txikiena duten pertsonen irisgarritasuna ahalbidetzea, langile bakoitzari lan-baldintzak eta ordainsari duina bermatzea, bilakaera pertsonala eta erantzukizunak hartzea sustatuz),
- **ingurumena** (epe labur, ertain ez luzera, ingurumenari kalterik egingo ez dioten ekintzak, produktuak eta metodoak ahalbidetzea),
- **lankidetzak** (erakundearen barruan eta kanpoan lehiakortasunaren ordezkari lankidetzak sustatzea),
- **irabaz asmorik gabeko** (helburutzat norbanakoaren eta gizartearen garapena edukitzea, ez etekinak lortzea, eta egon litezkeen etekinak norberaren mesederako izan beharrean gizartearen mesederako izatea, gizarte-proiektuetarako, elkartasunezko ekimenetarako, garapenerako lankidetzak-programetarako eta abar),
- **ingurumenarekiko konpromisoa** (ekimen solidarioak garatzen diren inguru sozialarekin inkardinatuta egongo dira, eta horretarako, hainbat arazori aurre egiten dieten beste erakunde batzuekiko lankidetzak eta sareetan inplikatzeko eskatzen du, hori baita elkartasunezko esperientzia konkretuen bidez gizarte eta ekonomia aukera berriak sortzeko bide bakarra).

Proposamen horrekin ekonomia sozialaren eta solidarioaren ikuspegia aldarazi nahi dugu –"bigarren" mailako ekonomia gisa ikusten baita– eta aukera hori eredu kapitalistak defenditzen duena baino jasangarriagoa eta eraginkorragoa dela ikusarazi nahi dugu (ekomiaren eta gizartearen ikuspegitik).

Aurreko lerroetan eredu berrirako lehenengo urratsa egin dugu, kapitalismoak defenditzen dituen argudioak bertan behera utzi ditugu; beraz, ez dugu ulertzen zergatik horri buruz hartzen ari diren neurriak hura indartzen duten: finantza-erakundeei emandako diru-laguntza, sektore “estrategikoei” laguntzea eta gizarte-sektoreen bilakaeran oinarritzen den ikuspegi zabalago baten aldeko apusturik eza (beste pertsona batzueganako zainketaren eremua garatzea, esaterako), bestelako banka-eredu batzuk (Banka etikoa, esaterako, FIARE) eta lehen deskribatu dugun eredu solidarioan kokatzen den beste edozein aukera.

■ Krisiak pertsonengan duen eragina

Eguneroko lanak errealitatezko leihoa irekitzen digu, eta bertatik bertara ikus ditzakegu gure inguruan gertatzen ari diren aldaketa sozialak. Zerbitzuetan, programetan eta proiektuetan hautematen ari garena eta baliabide horiek errealitateari egokitzeko proposamen praktikoak agerrarazi nahi ditugu atal honetan.

Gaur egungo lan-merkatua aztertzean, alde batetik merkatua bera egituratzen duten elementuak hartu behar ditugu kontuan. Beste aldetik, krisialdiak bazterketa-faktoreak nola indartzen dituen.

Lanpostuak zer-nolako abiadura suntsitzen diren ikusita, krisialdiaren indarra ez ezik, **sortzen den enpleguaren kalitate eskasa ere** ikus dezakegu. Gainera, **lan-merkatuaren** ezaugarrietako bat da gizarte-desberdintasuneko egoerak bertikatzea hainbat arrazoiengatik: eskaintzen duen behin-behinekotasunagatik; pobrezia kronifikatzen duelako, soldata baxuengatik eta gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonen irispidea eragozteagatik.

Krisialdi ekonomiko orokorraren aurreko lan-merkatuaren egoerak EAEn, erabateko enplegua zuen ezaugarri berezia, eta ez enplegu erabatekoa³⁴; horrek aukerak handitzen ditu, bai eta lan-merkatutik urrunago dauden pertsonentzat ere.

Erabateko enpleguaren ezaugarrietako bat, kasu askotan, behin-behinekotasunaren ondorioz, babes-balioa galdu izana zen. Kalitate txiki eta diru-ordain txikiagoko aldi baterako enpleguak, segurtasunik eza eragiten zutenak eta urra-

(34) Erabateko enplegua, eskubide sozial eta laborekin.

kortasuna eta gizarte-bazterkeria ekar dezaketen egoerak sor ditzakeena, nahiz eta lan-jarduera ordaindua egin (working poors)³⁵.

Krisiaren eragin horiek eskaintzen ditugun zerbitzuetan identifikatzen ditugu. Alde batetik, azken urtean eskaera gehiago izan dira, eta bestetik, gure zerbitzuetara itzuli egin behar izan du bertatik aterata zegoen jendeak, hau da, gizarte eta laneko ibilbideak beteta zituzten arren, orain, berriro, behin-behine-kotasun egoeran, langabezia daudenak, behar beste kotizatzekeo denborarik izan ez dutenak, egoera erregularizatzekeo prozesuetan daudenak, etab.

Lan-merkatuaren ezaugarri horiek eta bizi dugun langabezia-tasa handiak, besteak beste, **harremanen eremuan ere aldaketak** eragiten ari dira, hori islatzen duten egoeretako batzuk dira honako hauek: gazteak independizatzekeo dituzten eragozpenak; herritarren artean elkarbizitzak eragindako tentsioa, bereziki atzeritarrekin; errenta-sarrerarik ez duten kideez osatutako familia kopuru gero eta handiagoa; gizarte-laguntzen mende bizi diren gero eta pertsona gehiago; eta horrek guztiak logikoa dirudi bizi dugun krisi egoera honetan (klase ertainen urrakortasuna); eta familia-unitatearen barruan ere gerta litezke aldaketak, diru-sarrerak jasotzeari uzten dioten pertsonak bertara itzultzean.

Sektoreak kontuan hartuta, lehenengo eraikuntza ahultzen da, eta ondoren, ekoizpenarekin eta zerbitzuekin zerikusia daukaten postu guztiak. Guztien ezaugarria da kualifikazio baxu edo ertaineko pertsonentzat enplegu-aukerak metatzea, hau da, egoera urrakorrean zeuden pertsonak hartzen zituztenak, baina merkatutik kanpo geratu direnak.

Konturatzen hasi gara bazterkeria-egoeretan gero eta oinarrizkoagoak diren premiak ase beharra sortzen dela (elikadura, jantziak, lotarako lekua...); buru-osasuneko arazoak, adikzioak, indarkeria (familia barnekoa, genero-indarkeria, elkarbizitzak eragindakoa...) eta etorkizunaren aurrean pertsonak duten zalantza, ezjakintasuna eta motibazioa galtzea, lehiakortasuna handiagoa izateaz gain, euren aukerak txikiagoak direlako. Hona hemen egoera horietako batzuk:

Pertsona **gazteak** (30 urtera arte) kualifikaziorik gabeak, edo kualifikazio tekniko ertainekoak, lan-merkatuan erabateko enplegukeo egoeran sartu zirenak, beraz, pertsona horiek ez daude krisi-egoeratarara eta langabeziara ohituta.

(35) Langile mota berri hori guztiz aintzatesten dute Europako zuzentarau berriek, eta etengabeko bazterkeria-arriskuan dagoen taldea barnean hartzea dakar, bai eta aldeko abagune ekonomikoa denean ere.

Azpimarratzekoak dira urrakortasun-egoeran dauden gazteen artean gertatzen diren indarkeriazko erantzunak.

45 urtetik gorako pertsonak: prestakuntzarik gabeak edo esperientzia handia eta prestakuntza zaharkitukoak; familia-erantzukizunak dituzte, eta eskatzen diren kotizazio-urteetara ez direlako iristen, jubilaziorako eskubidea galtzeko arriskuan daudenak.

Etorkinak, lege-premia zehatzak dituztenak (errotzea, berritzea, familia elkar-itzea...), laguntza-sare ahula edo sarerik ez dutenak, langabeziagatiko estaldura laburra dutenak eta gizarte-bazterkeria egoera oso larriei lotuak.

Enplegua galdu duten familiak, edo etxebizitza, eta eguneroko gastuei aurre egiterik ez dutenak; gainera, kasu askotan zorrak dituzte (hipotekak, negozioak itxita, gehiegizko zorpetzea...). Bereziki eragiten die guraso bakarreko familiei.

Egoera horiek guztiak larriagoak dira **emakumeen** kasuan.

Hori dela eta, langabezian dauden pertsona askoren kasuan, lan-merkatuaren "geldialdia" baliatzen dute **euren prestakuntza profesionala eguneratzeko** edo/eta beste gai batzuetan ere ezagupenak lortzeko, horrela, gizarteratzeko zein laneratzeko aukera gehiago izango dituztelako.

Hala eta guztiz ere, jendeak oro har gero eta prestakuntza-ekintza gehiago eskatzen ditu, eta onartzeko betekizunetan gero eta eskakizun handiagoak egiten dira, baina aurrekontu-murrizketak gertatzen dira, eta horren guztiaren ondorioz, berriro ere, **herritar urrakorrenen aukerak murriztu egiten dira**.

Beste alde batetik, pertsonak ere zalantza dute prestakuntza eta gaikuntza jaso ondoren esperotako emaitza izango ote duen; izan ere, eskaintzen den prestakuntzak aurreko garaietakoaren antzekoa da, eta merkatuak baztertu egiten du lanerako sarbide gisa.

Mekanismo sozialek eta enplegu-mekanismoek egokitzapen-aldi bat igaro behar dute uneko egoerari erantzun ahal izateko, eta **ez dugu behar besteko dimentsionamendua eduki**. Zerbitzu gehiegi dagoelako sentsazioak gizarteak laguntza edo erantzuna eman ote duen pertzepzioa txarrera aldatu du. Duela urtebete, urrakortasun edo gizarte-bazterkeria egoera batean, egoera horretan zegoen jendea gutxiago zenez, jendearen sentsazioa zen gizarteak babesteko aukera zuela. Gaur egun, egoera horretan dauden pertsonak babesteko gaitasunaren aurrean zalantzak daude (etsipen-sentimendua).

Hauxe da jendeak egiten duen galdera: gizarteak ba al du laguntza premian gauden pertsona guztiari laguntzeko gaitasunik? Horrekin batera, komeni da gaur bat ez ahaztea: pertsona bakoitzak baztertuena ez ikusteko duen arriskua onartu eta balioetsi behar duen garrantzia.

Espero daitekeena enpleguaren egoerak hobera ez egitea denez, arriskuan dauden pertsonekin erabili diren mekanismoak indartu egin behar dira, eta baliabide berriak sortu beharko dira langabezia maila altua leuntzeko.

Baliabideak areagotzea jasangarria izan dadin, gure ustez hainbat tokitatik egin behar zaio aurre, joerek adierazten duten bezala: babes sozial handiagoa, gizarteak proposatzen dituen aldaketa guztietarako –erantzukidetasuna, eraginkortasuna, jarduera bateratua, koordinazioa, sareko lana– pertsonak prestatu eta sustatuko dituzten baliabideetan inbertitzea.

Praktikan dagoeneko ari gara horietako batzuk identifikatzen:

1. Indartu edo/eta egokitu beharreko baliabideak:

Dagoeneko badiren horiez ari gara, baina gaur egungo errealitatera doitzeko, berdimentsionatu eta berregokitu egin behar dira.

Esaterako, **norberaren erreaktibazioarako** baliabideak **prestakuntzarako eta enplegurako**, sektore ekonomikoen eskaria eta etorkizuneko enplegu-hobiak kontuan hartuko dituztenak (“ekonomia berdea”: birziklapena, nekazaritza jasangarria, energia berriztagarriak); “zerbitzuen garapena”: mendekotasuna eta bateratzea); **pertsonak gaitzeko**: prestakuntza, gaitasunak garatzera bideratutako politikak areagotuz eta egokituz, lan-merkatuan hobeto kokatu ahal izateko; **laguntzeko eta eusteko**; **ekonomia soziala** (gizarteratzeko enpresak); **ikasteko** (teknologia berriak, alfabetatzea...); **informazio juridikoa eta administratiboa emateko** eta baliabide sozialak, oro har.

2. Garatu beharreko baliabideak:

Sortzen hasi ziren beharrezko erantzuteko, berritzaile eta beharrezko gisa sortu ziren baliabideak dira, eta ezartzen hasi baziren ere, oraindik garatzeke daude. Horietako batzuk honako hauek izan daitezke:

Norberaren bizitza, lana eta familia **uztartzeko** baliabideak (lanaldi partziala, lan-saio malguak, teknologia berriak erabiltzea); **norberaren sustapenerako eta**

sareak sortzeko baliabideak; **bizitza osorako ikaskuntzarako** baliabideak; **kulturaztasunerako** baliabideak, elkarbizitza eta kohesio soziala landuz; buruko gaixotasunak edo/eta adikzioak dituzten pertsonak gizartean nahiz lanean **birgaitzeko** baliabideak; **parte-hartze sozialerako** baliabide orokorrak (aisia, elkar-teak sortzea) **gizarte, osasun** eta **hezkuntza** alorretako baliabideak.

Badakigu baliabideen "doikuntza" hori egiteko inplikaturak gauden eragile guztiek aldaketak egin beharko ditugula: hirugarren sektoreko erakundeek, administrazio publikoak eta gizarteak oro har.

■ Gizarteratzeko estrategiak

2006ko otsailean, Gizarteratze Aktiborako Europako Estrategia sustatu zuen Europako Batzordeak, eta horrekin batera, kasu bakanen batean izan ezik, gure inguruko lurraldeetan garatu ez diren hainbat proposamen.

Estrategia horrek hiru oinarri ditu:

